

EAEn BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIAN DAUDENEN EGOERARI BURUZKO II. AZTERKETA

2014



Ikerketa honetako laguntzaileak:

 <p>Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala</p>	 <p>B Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO</p>	 <p>kale gorriari lan-taldea</p> <p>Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián</p>
 <p>Barakaldo Udala Ayuntamiento</p>	 <p>Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO</p>	 <p>Ayuntamiento Udala irun www.irun.org</p>
 <p>Laudio Llodio LAUDIO IBAR NOBLEAREN UDALA AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE LLODIO</p>	 <p>Ayuntamiento de Portugaleteko Udala</p>	 <p>SANTURTZI udala - ayuntamiento Stz</p>
 <p>Sestao Udala Ayuntamiento</p>	 <p>EUEDEL EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS</p>	
 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p>	 <p>BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia</p>	 <p>Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa</p>
 <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES</p>		

Txostengilea:

Centro de Documentación y Estudios SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa
Eguía-Careaga Fundazioa

AURKIBIDEA

1. LABURPEN BETEARAZLEA	6
1.1. Helburuak eta metodologia	6
1.2. EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden zenbaketa	8
1.3. EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden karakterizazioa	10
2. AZTERKETAREN AURREKARIAK, HELBURUAK ETA EGITURA	14
2.1. Aurrekariak	14
2.2. Azterketaren helburuak eta egitura	15
3. METODOLOGIA	17
3.1. Esparru kontzeptuala eta azterketaren helburu diren biztanleen azalpena	17
3.1.1. Etxearen kontzeptua eta etxegabetasunaren zein bizitegi-bazterketaren azalpenean dauzkan inplikazioak	17
3.1.2. Europako Etxegabetasunaren eta Bizitegi Bazterketaren Tipologia (ETHOS): bizitegi-bazterketaren kontzeptualizazioa, operatibismoa eta sailkapena	18
3.1.3. Azterketa honetan kontuan hartutako bizitegi-bazterketaren motak	19
3.2. Azterketaren eremu geografikoa	22
3.3. Landa-lana eta boluntarioen partaidetza	23
3.4. Informazioa biltzeko tresnak	26
3.5. Kaleko gaueko zenbaketen ezaugarriak eta mugak	28
3.6. Etxerik gabekoak azterketa honetan izandako erantzunaren eta partaidetzaren tasa	29
3.6.1. Hamar etxerik gabeko zazpi azterketan parte hartu dute	29
3.6.2. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen faktore personalak eta egoeraren araberakoak, lortutako erantzun-tasan eragina dutenean	30
4. EAEN BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIAN DAUDENEN ZENBAKETA.....	33
4.1. Zenbaketako gauean zenbatutakoen kopurua, kokapen geografikoa eta kokalekua ...	33
4.1.1. Kaleko zenbaketako emaitzak	35
4.1.1.1. Aurkitutako pertsonen banaketa geografikoa eta ezaugarriak	35
4.1.1.2. Aurkitutako bizilagunek lo egiteko erabilitako lekua	37
4.1.1.3. Zenbaketako gauean kalean lo egin zutenen benetako kopurura egindako hurbilketa: emaitzak erkatzeko metodoak	40
4.1.1.4. Beste hiriekiko konparazioa	45
4.1.2. Zentro eta bizitokietan egindako gaueko zenbaketako emaitzak	46
4.1.2.1. Aurkitutako pertsonen banaketa geografikoa eta ezaugarriak	46
4.1.2.2. Bizitoki-mota	48
4.2. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen sailkapena, ETHOS tipologiaren arabera	51

4.3. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen oinarrizko ezaugarri soziodemografikoak: Sexua, adina eta jatorria	53
4.3.1. Bizitegi-bazterketa larrian dauden hamar lagunetatik zortzi gizonak dira, eta ginen proportzio hori handiago atzerritarren artean tokiko bizilagunen artean baino	54
4.3.2. Etxerik gabekoen %40k 35 urte baino gutxiago dituzte	55
4.3.3. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen erdiak baino gehiago atzerritarrak dira	57
4.4. EAEko etxerik gabekoen zenbateko emaitzen bilakaera	60
4.4.1. EAEko bizitegi-bazterketa larriko egoeren bilakaera: bizilagunen kopurua, Kokalekua eta lurralde-banaketa	60
4.4.1.1. Kaleko gaueko zenbaketako datuen bilakaera eta beste testuinguru batzuekin egindako erkapena	63
4.4.1.2. Etxerik gabekoentzako zentro eta bizitokietan egindako zenbaketako datuen bilakaera	66
4.4.2. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen oinarrizko ezaugarri demografikoetako Aldaketak. Sexual, adina eta nazionalitatea	69
4.5. Bizitegi-bazterketa larrian daudenezako bizitokien sarearen karakterizazioa	73
5. BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIAN DAUDENEN KARAKTERIZAZIOA.....	77
5.1. Sarrera	77
5.2. Sorterria eta egoera administratiboa	80
5.2.1. Sorterria	80
5.2.2. Bizitegi-bazterketa larrian dauden atzerritarren egoera administratiboa: Nazionalitatea eta bizileku-baimena	83
5.2.2.1. Nazionalitatea.....	83
5.2.2.2. Bizileku-baimena	84
5.2.3. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoera administratiboa: erroldatzeko aukera	86
5.3. Hezkuntza-maila eta jardueraren egoera	88
5.3.1. Hezkuntza-maila	88
5.3.2. Jarduerarekin lotutako egoera	89
5.3.3. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen jarduera-sektoreak eta lan-baldintzak	93
5.4. Diru-sarrerak	97
5.4.1. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen diru-sarreraren kopurua eta txirotasun egoera	97
5.4.1.1. Diru-sarreraren lorpena	97
5.4.1.2. Jasotako diru-sarreraren kopurua	98
5.4.1.3. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen txirotasun-tasak	99
5.4.2. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen diru-sarreraren iturriak.....	103
5.4.3. DSBE, bizitegi-bazterketa larrian daudenen diru-iturri	105
5.4.3.1. DSBE jasotzea	105
5.4.3.2. DSBE ez jasotzea	107

5.5. Bizitokia: aurrekariak eta gaur egungo egoera	110
5.5.1. Etxegabetasun-egoeraren iraupena.....	110
5.5.2. Etxegabetasunaren aurretiko bizitegi-egoera	111
5.5.3. Etxegabetasun-egoerak sorrarazi dituzten arrazoi subjektiboak.....	113
5.5.4. Klean lo egiteko esperientzia.....	113
5.5.5. Klean noizbait lo egin dutenen biktimizazioa	116
5.6. Harreman sozialak eta familiarrak	119
5.6.1. Egoera zibila.....	119
5.6.2. Harreman familiarrak	121
5.6.3. Harreman sozialak.....	123
5.7. Osasun-egoera eta substantzien kontsumoa.....	126
5.7.1. Osasunaren autopertzepzioa	126
5.7.2. Gaixotasun kroniko edo larrien prebalentzia.....	128
5.7.3. Osasun-sistemara jotzeko eta tratamenduak eskuratzeko aukera	130
5.7.4. Tabakoaren, alkoholaren eta beste droga batzuen bilakaera	132
5.8. Gizarte-zerbitzuen erabilera eta eskaera.....	135
5.8.1. Gizarte-arloko zerbitzu eta prestazioen erabilera azken hiru hilabeteetan	135
5.8.2. Gizarte-arloko zerbitzu eta prestazioen balioespena	137
5.8.3. Gizarte-arloko zerbitzu eta prestazioen ukapena.....	137
5.9. Bilakaerari buruzko datu nagusiak.....	140

I. ERANSKINA: KALEZ KALE EGINIKO ZENBAKETAREN EMAITZAK UDALERRIEN ARABERA 143

1. LABURPEN BETEARAZLEA

1.1. Helburuak eta metodologia

Agiri honetan, 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean EAEko hamar udalerritan bizitegi-bazterketa larrian daudenei aldi berean egindako zenbaketako emaitzak azalduko dira, eta 2012an Donostia, Bilbo eta Vitoria-Gasteiz hirietan egindakoaren jarraipena izan da. Bietan, gero eta sarriagotan inguruko hirietan egindako gaueko errolda-zenbaketen metodologia erabili da. Zenbaketa horiek etxerik gabe bizi direnak edo etxerik gabekoentzako aterpetxeetan edo beste bizitoki batzuetan aldi baterako bizi direnak dauzkate helburu, eta laurogeiko hamarkadatik egiten dira munduko hiri handi askotan. Balio handi-handiko metodologia dira, une eta leku jakin batean horrelako egoeran zenbat jende dagoen eta nolako ezaugarriak dituzten jakiteko. Azterlan hau burutzeko gaueko bi zenbaketa egin ziren, bat kalean eta bestea etxegabekoentzako bizitokiak dituzten baliabideetan, gune geografiko desberdinetan.

Azterketa honetako erreferentziako eremu geografikoa aldatu egingo da, udalerrietako kaleetan dauden etxerik gabekoen gaueko zenbaketa kontuan hartuz gero edo bizitokietan daudenen zenbaketa kontuan hartuz gero.

- Udalerrietako kaleetako gaueko zenbaketari dagokionez, honako leku hauetan egin zen azterketa: Barakaldo, Bilbo, Getxo, Portugalete, Santurtzi eta Sestao, Bizkaian; Donostia eta Irun, Gipuzkoan; eta Laudio zein Vitoria-Gasteiz, Araban. Guztira, hamar udalerririk horietan bizi dira EAEEn 2014an dauden biztanleen %52,8.

Etxerik gabekoentzako bizitokietan egindako zenbaketari dagokionez, Hiru Lurralde Historikoak izan dira azterketako eremu geografikoa, nahiz eta EAEko etxerik gabekoentzako egoitza guztiek azterketan parte hartu ez duten. Guztira, 253 bizitokik parte hartu dute ikerketa honetan, eta, eurretatik, 76 Gipuzkoan daude; 129, Bizkaian; eta 48, Araban. Zentro parte-hartzaileek bizitegi-bazterketa larrian daudenezako 2.086 leku eskaintzen dituzte guztira, eta lurraldeko 25 udalerritan daude banatuta. Araban, zentro guztiak Vitoria-Gasteizko hirian daude kokatuta. Bizkaian, azterketa honetan parte hartu duten bizitokiak 11 udalerritan daude kokatuta, eta, Gipuzkoan lurralde horretako 13 udalerritan.

Aurreko zenbaketan bezala, azterketa hau egiteko orduan funtsezkoa izan da boluntarioen talde zabalak eskainitako lankidetzak, zenbaketako gauean kalean lo egiten duten bizilagunak antzeman eta aurkitu egin dituztelako eta gaur egungo egoerari, ibilbideari eta premiei buruz egin zaien galde-sorta bete dutelako. Guztira, 780 boluntariok parte hartu dute, eta gehienak emakumeak izan dira (%68). Hori dela eta, estalitako kilometro koadroko 1,53 boluntario egon dira batez beste, zenbaketako eremu geografiko guztiak kontuan hartuz gero.

Kaleko bizilagunak zenbatzeko, zenbait gune eta azpigunetan banatu ziren udalerriak. Barakaldon, zenbaketarako 8 gune zedarritu ziren; Bilbon, 8 barruti eta 27 azpigune; Donostian, 5 gune eta 23 azpigune; Getxon, 6 barruti; Irunen, 9; Laudion, 6; Portugaleten, 4; eta, Santurtzin, 5. Azkenik, 7 barruti eta 29 azpigune zedarritu ziren Vitoria-Gasteizen. Sestaoko udalerrian, ordea, ez zen horrelako azpibanaketarik egin alde aurretik, boluntarioen talde bakoitzak aurretiaz zehaztutako eta antolatutako ibilbide zehatza egin zuen arren. Gune bakoitza boluntarioen talde baten ardurapean egon zen, eta zuzenean bildu zuten informazioa.

Bizitokietan egindako zenbaketari dagokionez, zentro bakoitza kudeatzen duten langileen lankidetzari esker egin ahal izan zen zenbaketa, zentroari buruzko informazioa bildu zutelako eta bertan zeuden gehienei egin zizkietelako galde-sortak.

Kalean eta gizarte-zerbitzuetako zentroetan lo egiten duten bizilagunak zenbatu ziren, baina, horrez gain, zenbaketan bertan, gaur egungo egoerari eta ibilbideari buruzko galde-sorta ere egin zitzairen. Zenbaketan kontuan hartutako eta bizitegi-bazterketa larrian dauden hamar lagunetatik zazpik erantzuten zioten galde-sortari. Kalean aurkitutako erantzun-tasa (%42,7) bizitokietan aurkitutako tasaren (%88,6) erdia da gutxi gorabehera. Kalean aurkitutako erantzun-tasa kalkulatu bada, aurkitu zituztenean esnatuta zeuden bizilagunak bakarrik kontuan hartuta, talde horren partaidetza-tasa hogeitun puntu baino gehiago handitzen da (%67,3). Horren arabera, partaidetzako emaitzak askoz hobekak dira, baina, hala ere, inkesta zenbaketako gauean kalean lo egin zuten etxerik gabekoen bi hereni-edo bakarrik egin ahal izan zitzaizela adierazi nahi du. Bizitokietan lo egiten duten bizilagunei dagokienez, zenbatutako guztien %90ek egin zuten ia-ia. Bizileku daukaten lurralde historikoaren arabera etxerik gabekoen partaidetza-mailan antzemandako aldeei dagokienez, erantzun-tasa handieneko lekua Bizkaia izan da (%73,8); eta, ondoren, Araba (%70,9) eta Gipuzkoa (%68,8).

Hamar udalerrietan eta zentro guztietan, galde-sorta bera erabili zen. Guztira, tresna hori osatzen zuten berrogei galdera baino gehixeagok, eta bideratzen zen zenbatutako lagunen egoera zehatza ezagutzera. Xede horri jarraikiz, zenbatutako lagun horiek baimendu zuten elkarrizketa burutzea euren oinarrizko ezaugarri soziodemografiko, egoera administratibo, errotze sozial, etxegabetasunaren ibilbide eta erlazio sozial, ikasketen maila, jarduera eta diru-sarrera, gizarte-zerbitzuen erabilera eta osasun-egoeraren inguruan. 2014ko galdetegian aldaketa batzuek egin arren, ia-ia, 2012an erabilitakoaren antz-antzekoa izan zen. Hori dela eta, erraz-erraz erkatu ahal izan dira emaitzak.

1.2. EAEEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen zenbaketa

Hona hemen EAEko bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden bizilagunen zenbaketari buruzko datu nagusiak:

- **la-ia bi mila lagun daude bizitegi-bazterketa larrian.** Zenbaketako gauean, EAEen guztira 1.836 lagun aurkitu zituzten bizitegi-bazterketa larrian. Euretatik guztietatik, %17,6 zenbaketan parte hartu zuten hamar udalerrietakoren bateko kaleetan zeuden lo egiten; eta %82,4, etxerik gabekoentzako bizitoki nahiz zentroetan. Aurkitutako guztietatik, 297 Araban zeuden (%16,2); 904, Bizkaian (%49,2); eta 635, Gipuzkoan (%34,6). EAEko Hiru Lurralde Historikoetarako etxegabetasun-tasak kalkulatzeko direnean (hau da, mila biztanleko etxerik gabe dauden bizilagunen kopurua), egiaztatu egiten da Araba dela bizitegi-bazterketa larriko egoera gehien dituen lurraldea, bertan mila biztanleko 0,923 lagunek lo egiten dutelako kalean edo gizarte-zerbitzuetako zentroetan. Gipuzkoan, ordea, etxegabetasun-tasa mila biztanleko 0,888 lagunekoa da; eta, Bizkaian, 0,785ekoa. Edonola ere, Arabako tasa handiagoa da leku gehiago eskaintzen dituelako bizitoki edo zentroetan. Izan ere, zenbaketan parte hartu zuten Arabako bi udalerriak dira bertako biztanleen arabera kalean lo egiten duten bizilagun gutxien dituzten udalerrietakoak.
- **Bilbon eta Donostian, kalean aurkitutako %70 daude kokatuta, nahiz eta Donostian eta Irunen etxerik gabeko gehien identifikatu ziren, bertako biztanleen kopurua kontuan hartuta.** Kalean lo egiten zenbatutako 323 etxerik gabekoetatik, 141 Bilboko kaleetan aurkitu zituzten (%43,7); eta lautik bat baino gehixeago, Donostian (%27,6). Hori dela eta, bi udalerririk bakarrik, zenbaketako gauean lo egiten ari ziren hamar lagunetatik zazpi zeuden kokatuta (%71,3). Bestetik, Irun izan zen horrelako egoeran lagun gehien zeukan hirugarren udalerririk, 39 bizilagun zenbatu zituzten-eta, guztizkoaren %12,1, alegia. Gainerako zazpi udalerrietan, %16,7% aurkitu zituzten guztira. Nolanahi ere, alde handiak daude udalerririk bakoitzak kopuru global horretan egindako ekarpenean. Getxo etxerik gabeko gehien dituen laugarren udalerririk da (20 lagun aurkitu zituzten, guztizkoaren %6,2, alegia); eta, ostean, Vitoria-Gasteiz, bertan 17 lagun aurkitu zituzten-eta (%5,3). Barakaldon, %2,8 aurkitu zituzten; eta, Laudion (3 lagun, %0,9), Santurtzin (3 lagun, %0,9) eta Portugaleten (2 lagun, %0,6), %3 baino gutxiago, guztien artean. Sestaoko udalerririk, ostera, ez zuten kalean lo egiten duen inor aurkitu. Udalerririk bakoitzeko biztanleen kopurua kontuan hartuta, Irun da etxegabetasun-tasa handiena daukan udalerririk (0,637 pertsona mila biztanleko). 61.000 biztanle baino gehixeagoko herri honetan 39 pertsona aurkitu ziren, horietako 22 bertan behera utzitako eraikinetan. Halaber, segurtasun-arrazoiak direla-eta, kokapen-mota honetako zenbaketa ez zen zehatza izan, horregatik datu hauek tentuz hartu behar dira. Irunen atzetik datoz Donostia eta Bilbo, mila biztanleko 0,478 eta 0,407 lagun tasarekin, hurrenez hurren, bestalde, oso urruti daude kontaktetan parte hartu zuren gainontzeko udalerrietatik.
- **Kalean lo egiten dutenen benetako kopurua bostehunetik gorakoa izan liteke.** Kalean lo egiten duten bizilagunen benetako kopurua aurreko paragrafoan adierazitakoa baino ia-ia bi aldiz handiagoa izan liteke. Lehen esan dugunez, kalean aurkitutako buruzko datuek zenbatzaileek benetan antzemandako bizilagunekin baino ez dute zerikusirik. Boluntarioen taldeek antzeman ez zituzten etxerik gabekoen ustezko kasuak identifikatzeko, erkapenerako bi metodo alternatibo erabili dira azterketa honetan. Datu horien arabera, baliteke aurkitutako lagun kopurua (323, lehen esan bezala) %80 handiagoa izatea, hau da, 550 lagunekoa izatea. Termino absolutuetan, Bilboko udalerririk etxegabetasunaren gehikuntza handiagoa izan liteke, zenbaketako gauean udalerririk horretan 284 egon zitezkeelako leku publikoetan edo etxebizitza desegokietan lo egiten (benetan aurkitutakoak baino 143 lagun gehiago). Gehikuntza hori ere handia izango litzateke Donostian, aurkitutakoak baino 72 lagun gehiago egon zitezkeelako, hau da, %80,9 gehiago. Kalean lo egiten dutenen gehikuntza askoz txikiagoa izango litzateke zenbaketan parte hartu zuten gainerako udalerririk guztietan, kopuru hori 14 lagun gehiagokoa izan zitezkeelako Vitoria-Gasteizko hirian; eta sei lagun gehiagokoa, Santurtziko udalerririk.

- **Mila eta bostehun lagun daude gizarte-zerbitzuetako zentroetan.** Gizarte-zerbitzuetako zentroetan dauden bizilagunei dagokienez, zenbaketako gauean guztira 1.513 lagunek lo egin zuten EAEko etxerik gabekoentzako egoitzetan eta zentroetan. Hamar bizilagunetatik lau Bilboko hiriko bizitokietan zeuden (595 lagun, %39,3); lautik bat, Donostiako zentroetan (350 lagun, %23,1); eta %18,3, Vitoria-Gasteizen (277 lagun). Hau da, etxerik gabeko hamar lagunetatik zortzik EAEko Hiru Lurralde Historikoetako hiriburuetako bizitokietan lo egin zuten (%80,7); eta hamarretik bik bakarrik, Gipuzkoako (157 lagun, %10,4) edo Bizkaiko (134 lagun, %8,9) beste udalerrri batzuetan kokatutako zentroetan. Zenbaketako gauean zentroetan eta bizitokietan lo egin zuten 1.513 lagunetatik, ia-ia erdiek babespeko bizitokietan lo egin zuten (724 lagun, guztizkoaren %47,9), horrelako zentroak erabilienak direla esan daiteke. Ondoren, aterpetxeak edo gaueko babeslekuak daude (225 lagun, %14,9); eta epe luzerako babespeko zein tutoretzapeko etxebizitzak, 197 lagun bizi direlako bertan (guztizkoaren %13).
- **Etxerik gabekoak, etxebizitzarik ez dutenak eta etxebizitza desagokiak.** Identifikatutako bizilagun guztien laurdenak etxerik gabekoak direla esan daiteke (489 lagun, guztira), hau da, ez dute ohiko bizilekurik, ezta epealdi laburrerako ere. Talde horren barruan, kalean dauden bizilagunak edo azpiegitura publikoetan eta bizitokiak ez diren lekuetan dauden bizilagunak hartzen dira kontuan; esate baterako, gauean iraupen laburreko aterpea bakarrik eskaintzen duten gaueko babeslekuetan edo harrera-zentroetan lo egiten dutenak. Zenbatutako hamar lagunetatik zazpik (%70,2) badute non bizi, baina ez dute etxebizitzarik. Gehienak etxerik gabekoentzako aterpetxe eta zentroetan bizi dira aldi baterako. Gainerako %3 etxebizitza desagokietan aurkitu dute: karabanak eta antzekoak (14 lagun, %0,8); ezohiko eraikinak eta bizileku moduan diseinatu ez diren eraikinak (29 lagun, %1,6); eta aldi baterako egiturak (10 lagun, %0,5). Azterketa honetan parte hartu duten udalerrietako kaleetan egindako zenbaketan aurkitutako 323 lagunetatik 59 bizilagun zeuden inguruabar horretan.
- **%77 gizonak dira, %52 atzerritarrak dira eta %40k 35 urte baino gutxiago dituzte.** Azterketa honetan kontuan hartutako 1.566¹ etxerik gabekoetatik, 1.219 gizonak dira (%77,8); eta 320, emakumeak (%20,4). Kalean aurkitutakoen artean, gizonen ehuneko handixeagoa da (%80). Antzemandakoen erdiak baino gehiago atzerritarrak dira (%52,7). Euretatik, %20 kalean daude; eta, tokiko bizilagunetatik, %13 besterik ez. Beraz, tokiko bizilagunek erraztasun handiagoa dute egonaldi ertain zein luzeko bizitokietan eta aterpetxeetan lo egiteko. Batez besteko adina 37 urtekoa da, eta aurkitutako bizilagun guztien %40k 35 urte baino gutxiago dituzte.
- **EAE osoan, etxerik gabekoen kopurua egonkorra bada ere, gora egin du Gipuzkoan.** EAE osoan, 2012tik 2014ra, 56 lagun gehiago daude bizitegi-bazterketa larrian, hau da, %3,3 igo da kopurua. Era berean, 4 lagun gehiago daude kalean (%1,6); eta 52 lagun gehiago (%3,6), bizitokietan. Edonola ere, lurraldeen arteko alde handiak daude bilakaera global horren atzean. Gipuzkoa izan da etxegabetasun-egoeren gehikuntza handiena eduki duen lurraldea, %16,9 igo delako 2012an (510 lagun) eta 2014an (596 lagun) aurkitutako bizilagunen kopurua. Donostiako kaleetan aurkitutakoen kasua nabarmendu beharra dago, haien kopurua ia-ia biderkatu egin delako Kale Gorrian taldeak hiri horretan lehenengo zenbaketa egin zuenetik. Lehenengo zenbaketa hartan, 45 aurkitu zituzten; eta, 2014koan, 89. Bestetik, Bizkaian ere, 2010-2014ko epealdian lurraldeko etxerik gabekoen kopuruak gora egin du, nahiz eta gehikuntza hori Gipuzkoakoa baino askoz motelagoa izan den (izan ere, 2012tik 2014ra, lagun gutxiago daude kalean nahiz bizitokietan). Azkenik, Araban zenbatutakoen kopuruak behera egin du, 2012an 308 zeudelako; eta, 2014an, 294, hau da, %4,5 gutxiago. Hain zuzen ere, kalean lo egiten identifikatutako bizilagunen kopurua murriztu da erabat (%41).

¹ Zenbaketako gauean zenbatutako 1.836 lagunetatik, idatz-zati honetako azterketak 1.566rekin bakarrik dauka zerikusia, hau da, guztizkoaren %85,3rekin. Izan ere, 330 kasutan ezin izan zen behaketa-fitxarik bete. Bertan, hain zuzen ere, bizilagun horien ezaugarri soziodemografiko nagusiak azaltzen dira, eta galde-sortaz aparte egiten da.

1.3. EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen karakterizazioa

Hona hemen etxerik gabekoen karakterizazioari buruzko datu nagusiak ²:

- **Inkestatutakoan %30,5 Magreben jaio dira; eta %43,7, Afrikako kontinentean.** Lehen esan dugunez, galde-sortari erantzun zioten 1.236 bizilagunetatik, %60 atzerrian jaio dira; %28, EAEn; eta %12, estatu espainoleko beste autonomia-erkidego batzuetan. Etxerik gabeko atzeritarren sorteriari dagokionez, erdiak baino gehiago Magrebeko eskualdekoak dira (%50,5). Izan ere, Maroko da atzerrian jaiotako eta bizitegi-bazterketa larrian daudenen %43,9ren sorteria. Bigarren jatorrizko eskualde ohikoena Sahara Azpiko Afrika da, atzerrian jaiotakoan %22,4 direlako bertakoak. Aurkitutakoan %4 inguru baino ez dira Amerikako kontinentekoak. Atzeritarren erdiek-edo ez dute bizileku-baimenik.
- **Inkestatutakoan %90 erroldatuta daude.** Bizitegi-bazterketa larrian daudenen %90 inguru erroldatuta daude (%87,4), eta hamarretik batek baino gehixeagok (%11,2) ez dute erroldarik. Errolda-gabeziak antzeko eragina du gizonen nahiz emakumeen artean; eta, are gehiago, atzeritarren artean tokiko bizilagunen artean baino. Era berean, neurri handiagoan ere badu eraginik gazteen artean eta, batez ere, kalean lo egiten aurkitutakoan artean.
- **%60k ez dute ikasketarik, edo lehen mailako ikasketak baino ez dituzte.** Inkestatutakoan erdiek baino gehiegok ez dute ikasketarik (%14), edo lehen mailako ikasketak baino ez dituzte (%44). Inkestatutakoan herenek baino gehixeagok bigarren hezkuntzako titulua daukate. Azkenik, galde-sortari erantzun diotenen %5ek unibertsitateko titulua daukate, proportzio hori ia-ia EAEko biztanleena baino bost aldiz txikiagoa bada ere, bertan 10 urtetik gorako biztanleen %24k dutelako unibertsitateko titulua.
- **Inkestatutakoan %6k lanpostu egonkorra dute, eta %17k lan-jarduera informalak garatzen dituzte.** Galde-sortari erantzun dioten 1.236 etxerik gabekoetatik (%85), langabezian daude (%42), edo ez-aktiboak dira (%44). Gaur egun, %6k baino ez dute ohiko lanpostu egonkorra, nahiz eta 206 lagunek (%17) nolabaiteko lan-jarduera edo erdilan-jarduera garatzen duten diru-sarreraren iturri osagarri moduan. Jarduera-tasa hamar puntu txikiagoa da etxerik gabekoen artean (%48) EAEko biztanleen artean baino (%57,5). Haien langabezia-tasa (%87,2), ordea, gainerako biztanle guztiena (%14,5) baino sei aldiz handiagoa da, eta okupazio-tasa (%6,1) Euskadiko gainerako biztanle guztiena baino hamaika aldiz txikiagoa da (%49,1).
- **Kolokatasuna nagusi da haien lan-ibilbideetan.** Bizitegi-bazterketa larrian daudenen %40k lan-arloan aktiboak direla uste dute (hau da, lan egiten dute, edo langabezian daude lanean ibili ondoren), eta aldi baterako kontratudun lanpostuetan garatzen dute edo garatu dute euren azken lan-jarduera. Bestetik, lautik batek kontraturik gabe lan egin du (%26,5). Hamar lagunetik batek bakarrik eduki du kontratu mugagabea bere azken lanean (%10,8).
- **Inkestatutakoan %21ek ez dute diru-sarrerarik, eta lautik hiru txirotasunean bizi dira.** Inkestatutako 1.236 lagunetatik, lautik hiruk nolabaiteko diru-sarrerak dituzte hilean (%76,5), eta hamarretik bik ez dute inolako diru-sarrerarik (%20,8). Talde horren batez besteko hileko errenta hileko 370,6 eurokoa da, diru-sarrerak dituztenak eta ez dituztenak kontuan hartuta; eta hileko 447,9 eurokoa, diru-sarreraren bat daukatenak bakarrik kontuan hartuta. Biztanle-talde horren batez besteko hileko errenta gainerako biztanle guztiek dutenaren herenera ere ez da iristen. Hain zuzen ere, azken horren balioaren %31,1ekoa da, diru-sarrerak dituzten guztiak kontuan hartuta; eta %37,6koa, diru-sarreraren bat dutenak bakarrik kontuan hartuta. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen txirotasun-tasak 2014an EAerako zehaztutako txirotasun erlatiboaren eta txirotasun larriaren atalaseen arabera kalkulatu gero, egiaztatu egiten da hamarretik bederatz

² Idatz-zati honetan adierazitako ehunekoek galde-sortari erantzun zioten 1.236 lagunekin daukate zerikusia. Euretatik, 138 topatu zituzten kalean eta 1.098 zentroetan. Guztira, gaueko zenbaketan zenbatutako horien guztien artetik %67 dira horiek.

txirotasun erlatiboan daudela. Horrez gain, bizilagun horien bi herenak baino gehiago txirotasun larrian ere egongo lirатеke (%67,3).

- **Inkestatutakoen %42k prestazio ekonomikoa jasotzen dute; eta ia %16k, lan-jarduera edo erdilan-jarduerengatiko diru-sarrerak.** EAEko etxerik gabekoen diru-sarreraren iturri nagusia prestazio ekonomiko publikoak dira, eta prestazio horiek jasotzen dituzte elkarriketaturiko hamar lagunek baino gehixeagok. Hirugarren sektoreko erakundeek emandako dirua diru-sarreraren bigarren iturri ohikoena da, nahiz eta bizitegi-bazterketa larrian daudenen %18,2k baino ez duten jasotzen horrelako diru-sarreraren bat. Hirugarren postuan, lanaren beraren ondorioz lortutako diru-sarrerak egongo lirатеke, bizilagun horien %15,7k jasotzen dituzte-eta. Hamar etxerik gabekotatik batek baino gehiagok bere babes-sarearekin lotutako diru-sarreraren bat jasotzen du, hau da, senideena, adiskideena edo auzokideena (%14). Azkenik, %6k adierazi egin dute eskean lortzen dutela dirua, eta %3k beste era bateko diru-iturria daukate.
- **%18k DSBE jasotzen dute, eta jasotzen ez dutenen herenek prestazio hori ezagutzen ez dutela diote.** Galde-sorta honi erantzun dioten EAEko etxerik gabekoen %18,4k diru-sarrerak bermatzeko errentako (DSBE) titularrak direla diote. Prestazio hori jasotzen ez duten 948 lagunetatik, ordea, bi herenek ezagutu egiten dute (%66,2), eta jasotzen ez dutenen herenek baino gutxiagok inoiz horri buruz ezer entzun ez dutela diote (%33,8). Prestazioa ezagutu arren jasotzen ez dutenen artean, %61ek ez dute inoiz eskatu, %16,2k jaso egiten zuten baina orain ez, hamarretik batek prestazioa eskatu du eta noiz jasoko zain dago (%11,9, 75 lagun) eta %7,8k noizbait eskatu dute baina ez diete inoiz eman. Laburbilduta, EAEko hamar etxerik gabekotatik bik baino gutxiagok DSBE jasotzen dute (%18,4), lautik batek ez du ezagutzen (%25,9), %50,8k ezagutu egiten dute baino ez dute jasotzen eta hamarretik hiruk ez dute inoiz eskatu, egon badagoela jakin arren (%31). DSBEren jasoketa desberdina da inkestatutakoen profilarren arabera: galde-sorta honi erantzun dioten atzerritarren %9,6k baino ez dute laguntza jasotzen, tokiko bizilagunen %30en aldean. Adinari dagokionez, argi eta garbi dago zenbat eta urte gehiago eduki orduan eta aukera gehiago egongo direla laguntza hori jasotzeko. Bestetik, egonaldi ertain edo luzeko bizitokian daudenek aterpetxean edo kalean daudenek baino askoz maizago jasotzen dute.
- **Heren batek urtebete baino gutxiago daramate etxerik gabe; eta beste heren batek, hiru urte baino gehiago.** Galde-sortari erantzun dioten 1.236 etxerik gabekoetatik, herenek urtebete baino gutxiago daramate egoera horretan (%33,3); lautik batek, urtebete eta 3 urte artean (%25,6); eta herenek baino gehiagok (%36,1), hiru urte baino gehiago. Azken talde horretakoetatik, %13,2 3-5 urte egon dira egoera horretan; %12,1, 5-10 urtez; eta %10,8, 10 urte baino gehiago. Gizonen eta Espainiako nazionalitateko bizilagunen etxegabetasun-ibilbideak luzeagoak dira.
- **Noizbait kalean lo egin dutenen %60a delituren bateko biktima izan da, eta biktimizazio horren prebalentzia nahikoa handia da emakumeen artean.** Euren bizitzako uneren batean kalean lo egin duten 849 lagunetatik, %60,7ak delitu edo eraso bat jasan du gutxienez. Irainak edo mehatxuak dira etxerik gabekoek gehien jasaten dituzten delituak (%41,9); eta, ondoren, lapurretak (%38,2), iruzurrak (%26) eta eraso fisikoak (%22). Eragin gutxienerako delitua eraso sexualak dira, noizbait kalean lo egin duten etxerik gabekoen %4,9k baino ez dituztelako jasan. Nolanahi ere, aipatu egin beharra dago horrelako delituetako hamar biktimatatik zazpi emakumeak direla (%69) eta kalean lo egin duten hamar emakumetatik bi eraso sexualeko biktimak izan direla. Izan ere, delitu gehien jasan dituztenen profila aztertuz gero, emakumeak talde zaurgarrienetakoa dira. Horrez gain, tokiko bizilagunak eta urte gehiago dituztenak ere badira biktimak izateko arrisku handiena duten taldeak, haien bazterketa-ibilbideak luzeagoak direlako, agian.

- **Etixerik gabekoen %80k harremanak dituzte euren familiarekin.** Ezin da esan etxerik gabekoen euren familiako gainerako kideekiko harremanak erabat hautsi dituztenik, guztiz kontrakoa baizik. Izan ere, inkesta egin duten hamar lagunetatik zortzik nolabaiteko harremana dutelako euren familiako norbaitekin (galde-sortari erantzun dioten 1.236 bizilagunen %83k, hain zuzen ere). Dena dela, 197 lagunek (guztizkoaren %16k) ez dute inolako harremanik euren familiarekin. Kanean nahiz aterpetxean daudenak eta adin gehiago dutenak dira jatorrizko familiarekiko harremanak sarriagotan hautsi dituztenak. 24 urtetik beherakoen %90ek eta egonaldi ertain zein luzeko zentroan daudenen %89k harremana daukate euren jatorrizko familiarekin. Era berean, generoaren eta nazionalitatearen arloko aldeak ere badaude datu horietan, gizonen %17k euren harremanak hautsi dituztelako familiarekin, emakumeen %11ren aldean. Modu berean, tokiko bizilagunen %20k ez dute harremanik euren jatorrizko familiarekin, atzerritarren %12ren aldean.
- **Bizitegi-bazterketa larrian dauden %25 baino gehixeagok bakarrik ematen dute egunaren zati handiena.** Lau etxerik gabekotatik batek bakarrik ematen du egunaren zati handiena (%26,3). Gizarte-isolamendua ohikoagoa da gizonen artean, hamar gizonetatik ia-ia hiruk bakarrik ematen dutelako egunaren zati handiena (%28,2), emakumeen artean hamarretik bik (%19,6) horrela jokatzeko dutela kontuan hartuta. Bakardadeak eragin bera dauka atzerritarren artean (%27,5) nahiz EAEn edo estatuko beste leku batzuetan jaiotakoaren artean (%24,7). Adinari dagokionez, bakardadearen prebalentzia handiagoa da 55 urtetik gorakoaren artean, euren herenek baino gehiagok bakarrik ematen dutelako egunaren zati handiena (%34,2).
- **%11ren ustez, euren osasun-egoera txarra edo oso txarra da, eta %40k gaixotasun larria edo kronikoa dute.** Hamar lagunetatik baten iritziz, bere osasun-egoera txarra da (%8,1) edo oso txarra (%2,9). Ehuneko hori ez dator bat gainerako biztanle guztien %3,9rekin, 2013an EAeko Osasunari buruz egindako Inkesta kontuan hartuz gero. Gainerako biztanle guztien artean gertatzen den bezala, osasun-egoeraren autopertzepzioa txarragoa da emakumeen artean gizonen artean baino, eta hobe da gazteen artean adinekoen artean baino. Bestetik, atzerritarrek adinekoek baino autopertzepzio hobea dute osasunari buruz. Osasun-egoeraren autopertzepziotik haratago, gaixotasun larri edo kronikoren bat zeukaten ere galdetu zitzaizen inkestatutakoei. Galdera horri emandako erantzunen arabera, hamar etxerik gabekotatik lauk (504 lagunek, guztira) gaixotasun larriren bat daukate. Gizonen artean, prebalentzia (%39) emakumeen artean (%47) baino txikiagoa da; eta, atzerritarren artean (%23), tokiko bizilagunen artean (%64) baino askoz txikiagoa. Gainera, gaixotasun horien agerpena ere handiagoa da adinean aurrera egin ahala. Nahasmendu eta gaixotasun mentalak patologia arruntenak dira, 188 lagunetan dutelako eragina (patologiaren bat daukatenen %37 eta inkestatutako guztien %15). Ondoren, gaixotasun infekzio-kutsakorrek (inkestatutako guztien %10) eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak daude (%9,4).
- **Atzerritarren herenek ez dute osasun-txartelik, tokiko bizilagunen %4,3ren aldean.** Inkestatutakoen hiru laurden baino gehixeago osasun-txarteleko titularrak dira (%77,5), eta hamar lagunetatik bik ez daukate (%21). Kanean lo egiten aurkitutakoaren herenek baino gutxiagok badute osasun-txartelik, zenbaketako gauean aterpetxeetan zein babesleketan lo egiten ari zirenen %75en aldean eta egonaldi ertain edo luzeko bizitokietan bizi zirenen %86ren aldean. Atzerritarren eta espainiarren artean, aldea ere handiagoa da, tokiko bizilagunen %94k badutelako osasun-txartelik, atzerritarren bi herenen aldean (%65).
- **Tabakoaren zein kanabisaren kontsumoa alkoholarena baino handiagoa da.** Etxerik gabekoen gainerako biztanle guztiek baino gehiago erretzen dute, eta legez kanpoko droga gehiago hartzen dituzte. Hala ere, alkohol gutxiago edaten dute, erlijio musulmaneko bizilagunek talde horretan daukaten zeresanagatik, agian. Zenbait substantziaren kontsumo aitortuaren tasak aztertzen direnean eta gainerako biztanle guztien tasekin erkatzen direnean, talde horren %55ek egunero erretzen dutela ikusten da, gainerako biztanle guztien %25en aldean. Aitzitik, inoiz erre ez dutenak taldearen %25 baino ez dira, gainerako biztanle guztien %45en aldean. Alkoholari dagokionez, inkestatutakoen %56k ez dute azken urtean alkoholik edan, gainerako

biztanle guztien %26ren aldean. Legez kanpoko drogen kontsumoari dagokionez, inkestatutakoen %16k azken hilabetean kanabisa erre dutela adierazi dute, gainerako biztanle guztien %4,3ren aldean.

- **Inkestatutakoen %18k ziurtatu egiten dute gizarte-zerbitzuetako prestazioren bat ukatu dietela.** Inkestatutakoen %18ren esanetan, horrelako zerbitzuren bat ukatu diete, eta %72k ez dute horrelako ukorik aipatu. Prestazio ekonomikoak dira bizilagun horiei sarriagotan ukatu zaien prestazioa, nahiz eta inkestatutako guztien %4,4k bakarrik aipatu duten prestazio zehatza ukatu dietela. Ukatutako bigarren zerbitzua bizitokiarena da, ordea.

2. AZTERKETAREN AURREKARIAK, HELBURUAK ETA EGITURA

2.1. Aurrekariak

Azken urteotan, EAEko administrazio publikoek atentzio handiagoa eskaintzen diote etxegabetasunaren arazoari. Horren adierazgarri, batetik, zenbait ekintza bultzatu dira, arrazoiak aztertze eta arazo horretako gizarte-talde kaltetuenak zein diren zehazteko. Bestetik, formula instituzional berriak bilatu dira, lurraldeko bizitegi-bazterketa larria prebenitzeko eta arazo horri aurre egiteko.

Instituzio publikoek etxegabetasunaren arazoan daukaten gero eta inplikazio handiagoak zenbait jatorri ditu. Batetik, krisi ekonomikoaren ondorioz, bizitegi-bazterketa larriaren arazoa eztabaidagai nagusia da gaur egun, baita arazo horretako kaltetuen eskubideetan daukan eragina ere. Bestetik, Europar Batasunak arazo hori lehentasun hartu du txirotasunaren eta gizarte-bazterketaren aurkako agenda politikoan, 2020ko Europako Estrategiaren esparruan. Izan ere, 2010eko otsailean Europako Batzordeak argitaratutako Babes Sozialari eta Inklusio Sozialari buruzko Txosten Bateratuan, Europako etxegabetasunaren eta bizitegi-bazterketaren arazoa aipatzen zen berriaz³, babesteko eta gizarteratzeko politika publikoen diseinurako lehentasunezkoak diren jarduketataradatzetakoa da-eta. Horrez gain, Europako Parlamentuak modu berezian jorratu du etxerik gabekoen arazoa. Hori dela eta, zenbait ebazpen hartu dira, estatu kideei etxegabetasunari bete-betea aurre egiteko neurriak eta estrategiak ezarri ditzatela eskatzeko eta, horren bidez, hurrengo urteetan Europar Batasunean fenomeno hori desagerrarazteko. Adierazpen horien guztien ondorioz, Europako Parlamentuak 2011ko irailaren 14an onartu zuen EBk etxerik gabekoentzat abian jarri beharreko strategiari buruzko ebazpen-proposamena (2013/C 51 E/13).

Edonola ere, esparru kontzeptual eta argigarri bateratua ezarri beharra dago. Horrez gain, bizitegi-bazterketa larriari aurre egitean, instituzioek badute mugarik, ez dagoelako ez estatistikarik ez azterketa berezirik, fenomeno horrek gainerako biztanle guztien artean nolako eragina daukan jakiteko eta arazo horretako kaltetuen ezaugarri demografikoak ezagutzeko. Hori dela eta, 2010. urteaz geroztik, EAEko zenbait administrazio bete-betea ahalegindu dira behar beste datu

³ Agiri horretan adierazten zen bezala, “azken hamar urteotan, eskuragarritasunaren, etxegabetasunaren, polarizazio sozialaren eta bizitegiaren arloko egoerak txarrera egin du erabat, eta etxebizitza gabetzeko modu berriak oso kezkarriak izan dira politika publikoen arloan (...). Etxebizitzaren arloko bazterketari eta etxegabetasunari aurre egiteko estrategiek zeresan handia dute gizartearen zein ingurumenaren ikuspegitik ekonomia jasangarriak garatzeko orduan, eta krisiaren osteko epealdirako estrategien osagaiak izan beharko lirateke”.

enpiriko garatzen, arlo horretako politika publikoen diseinua bideratzeko asmoz. Azterketa hau ere testuinguru horren barruan dago kokatuta.

Agiri honetan, hain zuzen ere, 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean bizitegi-bazterketa larrian daudenei egindako zenbaketako emaitzak azalduko dira, eta 2012an egindakoaren jarraipena izan da. Bietan, gero eta sarriagotan inguruko hirietan egindako gaueko errolda-zenbaketen edo "gauean" ikerketetan ezarritako metodologia erabili da. Zenbaketa horiek etxerik gabe bizi direnak edo etxerik gabekoentzako aterpetxeetan edo beste bizitoki batzuetan aldi baterako bizi direnak dauzkate helburu, eta laurogeiko hamarkadatik egiten dira munduko hiri handi askotan. Balio handi-handiko metodologia dira, une jakin batean horrelako egoeran zenbat jende dagoen eta nolako ezaugarriak dituzten jakiteko.

EAEko eremuan, 2010. urteaz geroztik egiten dira horrelako zenbaketak. Azterketa honen aurrekari zuzenak 2010eko ekainean Bilboko hirian eta 2011ko martxoan Donostian egindako zenbaketak dira, baita 2012ko urrian Euskadiko hiru hiriburuetan batera egindakoa ere⁴. Zenbaketa horretako emaitzak azaltzen dira orrialde hauetan, eta 2012an egindakoaren jarraipena dela esan beharra dago. Izan ere, metodologia eta tresna berberak erabili dira informazioa biltzeko. Oraingo honetan, hiru hiriburuetan ez ezik, Hiru Lurralde Historikoetako beste zazpi udalerritan ere egin dira zenbaketak. Zazpi udalerririk horietatik, bost Bizkaian daude (Barakaldo, Getxo, Portugaleta, Santurtzi eta Sestao); bat, Araban (Laudio); eta beste bat, Gipuzkoan (Irun). Guztira, hamar udalerririk horietan bizi dira EAEEn 2014an dauden biztanleen %52,8.

2.2. Azterketaren helburuak eta egitura

Honako hauexek dira azterketaren helburu nagusiak:

- EAEEn bizitegi-bazterketa larrian daudenak zenbatzea, 2014ko urriaren 29tik 30erako gaua erreferentziatzat hartuta. Horretarako, honako bizilagun hauek hartu dira kontuan: azterketan parte hartu duten hamar udalerrietako kaleetan lo egiten aurkitutakoak eta gau horretan EAEko etxerik gabekoentzako zentro eta bizitokietan lo egin zutenak.
- Aurkitutako ezaugarri soziodemografiko nagusiak zein diren jakitea (adina, generoa, nazionalitatea) eta haien profila zenbait aldagairen arabera aztertzea; esate baterako, gau horretan non lo egin zuten (kalean edo bizitegi-bazterketan daudenentzako zentroan) edo zer lurralde historikotan zeuden.
- Bizilagun horien bizi-baldintzak eta bizi-ibilbidea nolakoak diren jakitea, hau da, euren egoera administratiboa eta errotze soziala, etxegabetasun-ibilbidea eta harreman sozialak, hezkuntza-maila, jarduera eta diru-sarrerak, gizarte zerbitzuen erabilera eta osasun egoera ezagutzeko.

⁴ SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. EAEEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko Azterketa. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2013, 243. or.

Hona hemen txostenaren estruktura:

- Laburpen betearazlearen eta sarrerako kapitulu honen ostean, erabilitako metodologia eta azterketaren oinarria den esparru kontzeptuala zein diren azalduko dugu hurrengo kapituluan.
- Laugarren kapituluan, 2014an bizitegi-bazterketa larrian daudenen zenbaketa egingo dugu, eta identifikatutakoen oinarritzko ezaugarri soziodemografikoei buruzko datu batzuk eskainiko ditugu, baina, batez ere, sexuari, adinari eta nazionalitateari buruzkoak. Kapitulu horretan, honako hauexei buruzko informazioa ere azalduko da: zenbaketan parte hartu duten zentroyen edo bizitokien ezaugarriak, identifikatutakoen kopuruaren bilakaera eta 2012tik 2014ra haien oinarritzko ezaugarrietan gertatu diren aldaketak.
- Bosgarren kapituluan, taldearen karakterizazioa egingo dugu, aurkitutako gehienek galde-sorta zabalean emandako erantzunak kontuan hartuta. Kapitulu horretan, honako hauexek izango dugu aztergai: haien bizi-baldintzak eta bizitza-ibilbideak (okupazioa, prestakuntza, osasun-egoera, diru-sarrerak, harreman sozialak eta zerbitzuen eskaria), inkestatutako guztiak eta kolektibo horren barruan egon daitezkeen talde nagusiak kontuan hartuta (honako aldagai hauen arabera, hain zuzen ere: sexua, adina, jatorria edo zenbaketako gaueko kokalekua).

Neurri handi batean, 2012ko zenbaketako datuetatik abiatuta 2013an EAEn Bizitegi Bazterketan Daudenen Egoerari buruz egindako I. Azterketako eskemari eutsi dio azterketa honek. Dena dela, badago alderik lehenengo azterketarekin erkatuz gero, bertan kapitulu berezia agertzen zelako ezaugarri pertsonalek etxerik gabekoen egoeran zeukaten eragin diferentzialari buruz. Horren bidez, aztertu egin nahi genuen sexuak, nazionalitateak, adinak edo zenbaketako gaueko kokalekuak zer neurritan zeukan lotura aztertutako faktoreetan antzemandako alde handiekin (hezkuntza-maila, etxegabetasuneko esperientzia, osasun-egoera, diru-sarrerak...). Txosten honi begira, kasuan kasuko idatzizko zatian adierazten den bezala, desagregazio horiek (interesgarriak izan direnean) kontuan hartu dira ikergai izan diren faktore guztiak aztertzeko orduan.

Era berean, badago beste alderik 2013ko txostena kontuan hartuta, kasu honetan bilakaerari buruzko datuak ere eskaini ahal izan direlako hiru hiriburuetarako, behintzat, bertan bigarren edo hirugarren aldiz egin delako zenbaketa.

3. METODOLOGIA

3.1. Esparru kontzeptuala eta azterketaren helburu diren biztanleen azalpena

2012ko zenbaketari buruzko txostena bezala, Etxerik Gabekoekin Lan egiten duten Erakunde Nazionalen Federazio Europarrak (*European Federation of National Organisations Working with the Homeless*) etxegabetasunari buruz garatutako esparru kontzeptualetik abiatuko da, Europako Etxerik Gabekoekin Behatokiaren esparruan. Sortu zenetik, erakunde horrek erreferentziako corpus teoriko eta metodologikoa garatu du, Europako etxegabetasunaren eta bizitegi-bazterketa larriaren arazoari buruzko azterketa integralerako esparrua zehaztu ahal izateko. Ondoren, honako hauexek izango ditugu hizpide: ikuspegi honen oinarria diren ideia eta kontzeptu nagusiak, tresna metodologikoak eta azterketa honen esparruan erabiltzeko modua.

3.1.1. Etxearen kontzeptua eta etxegabetasunaren zein bizitegi-bazterketaren azalpenean dauzkan inplikazioak

Behatokiak etxegabetasunaren arazoari buruz garatutako kontzeptualizazioa etxearen kontzeptuaren dimentsio anitzeko kontzepzioan dago oinarrituta. Horren arabera, etxeak hiru gune edo “jabari” ditu osagai: fisikoa, soziala eta legezkoa. Hiru dimentsio horietako batean gabeziarik badago, zenbait eratako etxegabetasuna eta bizitegi-bazterketa sortuko lirateke.

Etxearen dimentsio fisikoa etxebizitzako bizigarritasun-baldintzekin egongo litzateke lotuta, eta instalazioen kalitatearekin zein haien egiturarekin zerikusia daukan guztia hartzen da kontuan. Bertan ere, etxebizitzan bizi den bakoitzak zenbat metro koadro erabilgarri dituen kontuan hartzen denez, pilaketak ere aztertu daitezke eta ez bakarrik etxebizitza-gabezia edo etxebizitzaren egoera txarra bizitegi-bazterketaren ustezko egoeren barruan. Azken puntu hori funtsezkoa da, jendeak etxebizitzarekin lotutako funtzio sozial eta ezaugarri guztiak betetzen dituen etxebizitza eskuratzen duela bermatzeko; intimitatea, esaterako.

Bestetik, etxebizitzaren legezko dimentsioak edukitza-araubidearekin eta bertako egoiliarrei eskaintako segurtasun juridikoarekin dauka zerikusia. Etxebizitzaren gaineko legezko titulua edukitzean (jabetzakoa edo alokairukoa), segurtasuna lortzen da haren okupazio zein edukitza eskusiboan, eta berme bakarra ere bada, haren jabetzarekin edo gozamenarekin lotutako eskubideak benetan erabiltzeko orduan. Hori dela eta, bizileku duten etxebizitzaren gaineko alokairu-kontraturik edo jabetzarik ez daukaten guztiak ere badaude bizitegi-bazterketan, sailkapen hori kontuan hartuz gero. Egia da horrelako egoerekin lotutako bizitegi-bazterketaren

maila etxegabetasuna baino arinagoa izan daitekeela, halakoetan bizilagunek inolako etxebizitzarik ez daukatelako edo haiena izandako etxebizitza galdu dutelako. Dena dela, egia ere bada horrelako egoeren ezaugarri bereizgarria den legezkontrakotasunaren ondorioz badagoela arbitrariotasuna eta bereizkeria sortzerik, baita desberdintasunak ere. Izan ere, horrelako egoeretan daudenek ez dituzte gainerakoek bezalako legezko bermeak, bizileku duten etxebizitzako jabeekin edo errentariek sortu daitezkeen arazoei aurre egiteko.

Azkenik, etxebizitzaren arlo sozialak bizikidetzaren unitate bereko kideen artean ezartzen diren harreman sozialen kalitatearekin dauka zerikusia, baita jendearentzat norbera garatzeko eta ingurunearekiko harreman sozialak sendotzeko lekua den etxebizitzaren garrantziarekin ere. Funtsezkoa da bizitegi-bazterketaren dimentsio soziala aitortzea, kideen arteko harreman gatazkatsuak dituzten -bizikidetzaren unitateetan bizi direnak eta emantzipatzeko beharrezko baliabide ekonomikorik ez dutenak bizitegi-bazterketan edo bizitegi-bazterketarako arriskuan dauden bizilaguntzat hartzeko orduan.

Irizpide horietan oinarrituta, Europako Etxerik Gabekoen Behatokiak Europako Etxegabetasunaren eta Bizitegi Bazterketaren Tipologia garatu du, eta ingeleseko siglen bidez da ezaguna: ETHOS (*European Typology of Homelessness and Housing Exclusion*).

3.1.2. Europako Etxegabetasunaren eta Bizitegi Bazterketaren Tipologia (ETHOS): bizitegi-bazterketaren kontzeptualizazioa, operatibismoa eta sailkapena.

Hasiera batean, tipologia hori 2005ean sortu eta 2006an nahiz 2007an berrikusi zen. Europako esparruan, erreferentziako tresna da, etxegabetasunaren eta bizitegi-bazterketaren fenomeno konplexu bezain aldagarria sailkatzeko eta zenbatzeko orduan. Sailkapen horrek badu abantailarik, esparru analitiko zabalean kokatzen duelako etxegabetasunaren arazoa eta era guztietako bizitegi-bazterketak kontuan hartzen dituelako, arinenetatik larrienera, alegia. Horrela, bada, ez da berriro egin beharko etxerik gabekoen arazoa guztion eskubide soziala den etxebizitza duinerako eskubidetik aldentzen duen bereizketa kontzeptual artifizia⁵.

Dragana Avramov soziologoak Europako Etxerik Gabekoen Behatokitik ikerketa koordinatu zuen 1994tik 1998ra, eta etxegabetasunaren zein etxerik gabekoaren kontzeptuen azalpen hau proposatzen du: etxegabetasuna “iraunkortasunez bizitzeko leku egokirik ez edukitzea” izango litzateke; eta etxerik gabekoa, “bizitzeko lekua iraunkortasunez eskuratzeko aukerarik ez daukana, zailtasun ekonomikoaren nahiz beste oztopo sozial batzuen ondorioz bizitoki horri eusterik ez daukalako edo bere kabuz bizitzeko zailtasunak dituelako eta atentzioa zein babesa behar dituelako, baina instituzionalizatuta ez dagoenean”⁶.

⁵ Nazioartean, etxebizitza duinerako eskubidea aitortzeko orduan, bizi-maila egokirako eskubidea hartzen da kontuan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 25. artikuluan eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituneko (PIDESC) 11. artikuluan adierazten den bezala. Itun horretako 11. artikuluan aitortzen denez, “guztiok guretzako eta geure familiarentzako bizi-maila egokirako eskubidea dugu, honako hauxe kontuan hartuta: elikadura, jantzi eta etxebizitza egokiak eta bizi-baldintzen etengabeko hobekuntza”. Beraz, ituna sinatzen duten tokiko gobernuak eskubide hori bermatzeko behar besteko politikak garatu behar dituzte, eta, horretarako, talde zaugarrienen atentzioari eman behar diote lehentasuna. Horretarako, Nazio Batuetako DESC Lantaldearen ustez, testuingurua edozein dela ere, zenbait elementu hartu behar dira kontuan, etxebizitza egokia izan dadin: a) edukitzaren segurtasun juridikoa; b) zerbitzu material eta azpiegitura erabilgarriak; c) gastu onargarriak; d) bizigarritasuna; e) irisgarritasuna; f) espazioa, eta g) egokitzapen kulturala. Iturria: <http://observatoridesc.org/es/derecho-una-vivienda-adecuada>

⁶ Avramov, D. (1996) *The Invisible Hand of the Housing Market: A Study of Effects of Changes in the Housing Market on Homelessness in the European Union*. Brusela: FEANTSA.

Azalpen hori ikerketa aplikatuan erabiltzeko, errealitatearen arabera operatibizatu, hau da, karakterizatu beharra dago aztergai dugun testuinguruan zer egoera zehatz diren bizitegi-bazterketa. Horretarako, Europako Etxegabetasunaren eta Bizitegi Bazterketaren Tipologiak (ETHOS) lau kategoria analitiko handi hartzen ditu kontuan (etxerik gabekoak, etxebizitzarik gabekoak, etxebizitza ez-segurua dutenak edo etxebizitza desegokia dutenak). Horren ondorioz, hamahiru kategoria eragile sortzen dira, eta bakoitzaren inguruabar zehatzak zehaztu eta azaltzen dira bertan. 1. taulan –testu honetako 20. orrialdean- 4 kategoria kontzeptual edo analitikoak azalduko dira, baita ETHOS tipologiako 13 kategoria eragileak ere.

3.1.3. Azterketa honetan kontuan hartutako bizitegi-bazterketaren motak

Hala ere, zehaztu egin beharra dago ETHOS sailkapenean oso ikuspegi zabaletik kontuan hartzen dela etxegabetasunaren arazoa eta ikerketa honen helburu teoriko zein metodologikoak gainditzen direla. Beraz, azterketa hau diseinatzeko orduan, “etxerik gabe” eta “etxebizitzarik gabe” kategoria kontzeptualen barruan kokatutako bizitegi-bazterketako egoerak baino ez dira kontuan hartu. Horrez gain, azken horien artean, ez da 6. kategoriako egoera aztertu, hau da, epe jakin batean bizitegi edo barnetegiko instituzioetatik irtengo diren bizilagunak (zigor-instituzioak, osasun-instituzioak eta adingabeentzako harrera-zentroak).

Azkenik, 5.2. kodean (sasoiko langileentzako bizitokiak) eta 7.1. kodean (adineko etxerik gabekoentzako egoitzak) azalduko bizitegi-egoeretan, ez dago inolako translaziorik azalpen horien eta EAEko etxerik gabekoentzako bizitoki bat beraren artean. Hori dela eta, egoera horiek ere ezin izan dira azterketa honetan kontuan hartu.

Horrela, bada, honako hauexek izan dira azterketa honetan azkenean kontuan hartu diren kategoria eragileak:

- Etxerik gabe:
 - Kanpoko eremu publikoa (1.1. kodea)
 - Gaueko aterpetxea edo babeslekua (2.1. kodea)
- Etxebizitzarik gabe:
 - Aterpetxeak eta bizitokiak (3.1. kodea)
 - Aldi baterako eta iragaitzarako bizitokia (3.2. kodea)
 - Babespeko bizitokia (3.3. kodea)
 - Emakumeentzako aterpetxeak (4.1. kodea)
 - Aldi baterako bizitokia / Harrera-zentroak (5.1. kodea)
 - Aurretiaz etxerik ez zutenentzako epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitza (7.2. kodea)

Halaber, nahiz eta azterketari begira hasiera batean hautatutako bizitegi-kategorien osagaiak izan ez, nabarmendu ere egin beharra dago kaleko zenbaketaren ondorioz aztergai ditugun bizilagunen artean kontuan hartu direla “etxebizitza desegokia” kategoria kontzeptualaren barruan sartutako kokapenetan aurkitu zituzten bizilagunak; 11. kategoria eragilean (karabanak edo antzekoak, ezohiko eraikinak eta bizileku moduan diseinatu ez diren eraikinak eta aldi baterako egiturak) eta 12. kategoria eragilean (bertan bizi izateko egokia ez den eraikin okupatua), hain zuzen ere. Gehienetan, ibilgailuetan, txaboletan edo bertan behera utzitako eraikinetan lo egitear edo lotan zeuden bizilagunak ziren.

Aurreko zehaztapenak eginda, modu zehatzago batean irakurri daiteke testu honetako 21. orrialdean 2. taulan agertutako azterketa honetan hautatutako kategoria eragileen laburpena.

1. taula. Europako Etxegabetasunaren eta Bizitegi Bazterketaren Tipologia, ETHOS. 2007ko berrikuspena.

Kategoria kontzeptuala		Kategoria eragilea	Kodea	Bizitegi-egoera	Azalpena
Etxerik gabe	1	Eremu publikoan bizi direnak (atari zabalean)	1.1	Kanpoko eremu publikoa	Aterpetxerik gabe kalean edo eremu publikoetan lo egiten dutenak
	2	Gaueko babeslekuan lo egiten dutenak edota egunean zenbait ordu eremu publikoan eman behar dituztenak	2.1	Gaueko aterpetxea edo babeslekua	Ohiko bizilekurik ez daukatenez, oso eskakizun urriko aterpetxeak edo bizitokiak darabiltzatenak
Etxebizitarik gabe	3	Etxerik gabekoentzako aterpetxe eta zentroetan / aldi baterako bizitokietan bizi direnak	3.1	Aterpetxeak eta bizitokiak	Egonaldia epe labur edo ertainerako eta aldi baterako denean eta ez behin betiko bizilekua denean
			3.2	Aldi baterako eta iragaitzako bizitokia	
			3.3	Babespeko bizitokia	
	4	Emakumeentzako aterpetxeetan daudenak	4.1	Emakumeentzako aterpetxeak (bakarrik edo seme-alabekin)	Genero-indarkeria jasan duten emakumeak, betiere, aldi baterako bizitokitzat hartzen denean
	5	Asilo-eskatzaile eta etorkinentzako bizitokietan daudenak	5.1	Aldi baterako bizitokia / Harrera-zentroak	Etorkinak izateagatik harrera-zentroetan edo aldi baterako bizitokietan / aberriratzeko zentroetan (barnetegia) dauden etorkinak
			5.2	Sasoiko langileentzako bizitokiak	
	6	Epe jakin batean bizitegiko edo barnetegiko instituzioetatik irtengo direnak	6.1	Zigor-instituzioak (espetxeak)	Espetxetik irtetean etxebizitarik ez dutenak
6.2			Osasun-instituzioak (ospitaleak...)	Etxebizitarik ez edukitzeagatik behar baino egonaldi luzeagoa egiten dutenak	
6.3			Adingabeentzako zentroak	18 urte betetzean non bizi ez dutenak, esate baterako	
7	Etxerik gabekoak direnez babes eutsiko bizitokia jasotzen dutenak	7.1	Adineko etxerik gabekoentzako egoitza	Etxerik gabe bizi izan direnentzako egonaldi luzeko babespeko bizitokia	
		7.2	Aurretiaz etxerik ez zutenentzako epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitza		
Etxebizitza ez-segurua	8	Edukitze ez-seguruko araubidean bizi direnak. Alokairurik ordaindu gabe	8.1	Senideen harrerapean bizi izatea	Etxebizitza galdu dutenez, ohikoa ez den ezohiko bizitokian bizi direnak. Legez kanpoko okupazioa edo bertan bizi izateko inolako berme juridikorik gabe
			8.2	Legezko edukitzarik gabe (adb.: azpialokatuak)	
			8.3	Legez kanpoko okupazioa	
9	Etxe-kanporaketarako mehatxupear bizi direnak	9.1	Alokairu-araubidepean	Alokairua ez ordaintzeagatik etxe-kanporaketarako agindua dutenak	
		9.2	Jabetzapeko etxebizitza	Hipoteka ez ordaintzeagatik desjabetuak izatear daudenak	
10	Bikotekideen edo familiaren indarkeriarako mehatxupear bizi direnak	10.1	Polizian aurkeztutako salaketak	Poliziak eta jarduketa azkarrerako zentroek esku hartu dutenean, salbu dagoen bizitoki segurua aurkitzeko. Itzuliak izateko aginduak (jabetzapeko etxebizitza)	
Etxebizitza desegokia	11	Aldi baterako eta ezohiko egituretan bizi direnak	11.1	Karabanak eta antzekoak	Etxe mugigarria / karabana (oporretarako etxebizitza moduan erabiltzen ez dena)
			11.2	Ezohiko eraikinak eta bizileku moduan diseinatu ez diren eraikinak	Bizitoki autoeraikia, txabolak edo etxolak
			11.3	Aldi baterako egiturak	
12	Bizitoki desegokia	12.1	Bertan bizi izateko egokia ez den eraikina	Legeria nazionalaren arabera, gizakiek etxebizitza moduan erabili ezin dituzten leku desegokiak	
13	Larregizko pilaketa	13.1	Pilaketa zehazten duten ohiko estandarren gain-gainetik	Pilaketari buruzko arau nazionalen gainetik	

Iturria: Cabrera, P. J. et al. (2008) ¿Quién duerme en la calle? Una investigación social y ciudadana sobre las personas sin techo. Serie: herramientas para la inclusión, nº 4, Barcelona: Caixa Catalunya. Páginas 18 y 19.

2. taula. ETHOS tipologiaren arabera ikerketa honetan kontuan hartu diren bizitegi-egoeren motak.

Kategoria kontzeptuala		Kategoria eragilea		Bizitegi-egoera	Ikerketa
Etixerik gabe	1	Eremu publikoan bizi direnak (atari zabalean)	1.1	Kanpoko eremu publikoa	Bai
	2	Gaueko babeslekuan lo egiten dutenak edota egunean zenbait ordu eremu publikoan eman behar dituztenak	2.1	Gaueko aterpetxea edo babeslekua	Bai
Etxebizitzarik gabe	3	Etixerik gabekoentzako aterpetxe eta zentroetan / aldi baterako bizitokietan bizi direnak	3.1	Aterpetxeak eta bizitokiak	Bai
			3.2	Aldi baterako eta iragaitzako bizitokia	Bai
			3.3	Babespeko bizitokia	Bai
	4	Emakumeentzako aterpetxeetan daudenak	4.1	Emakumeentzako aterpetxeak (bakarrik edo seme-alabekin)	Bai
	5	Asilo-eskatzaile eta etorkinentzako bizitokietan daudenak	5.1	Aldi baterako bizitokia / Harrera-zentroak	Bai
			5.2	Sasoiko langileentzako bizitokiak	Ez
	6	Epe jakin batean bizitegiko edo barnetegiko instituzioetatik irtengo direnak	6.1	Zigor-instituzioak (espetxeak)	Ez
			6.2	Osasun-instituzioak (ospitaleak...)	Ez
			6.3	Adingabeentzako zentroak	Ez
	7	Etixerik gabekoak direnez babes eutsiko bizitokia jasotzen dutenak	7.1	Adineko etxerik gabekoentzako egoitza	Ez
7.2			Aurretiaz etxerik ez zutenentzako epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitza	Bai	
Etxebizitza ez-segurua	8	Edukitze ez-seguruko araubidean bizi direnak. Alokairurik ordaindu gabe	8.1	Senideen harrerapean bizi izatea	Ez
			8.2	Legezko edukitzarik gabe (adb.: azpialokatuak)	Ez
			8.3	Legez kanpoko okupazioa	Ez
	9	Etxe-kanporaketarako mehatxupear bizi direnak	9.1	Alokairu-araubidepean	Ez
			9.2	Jabetzapeko etxebizitza	Ez
	10	Bikotekideen edo familiaren indarkeriarako mehatxupear bizi direnak	10.1	Polizian aurkeztutako salaketak	Ez
Etxebizitza desegokia	11	Aldi baterako eta ezohiko egituretan bizi direnak	11.1	Karabanak eta antzekoak	Bai
			11.2	Ezohiko eraikinak eta bizileku moduan diseinatu ez diren eraikinak	Bai
			11.3	Aldi baterako egiturak	Bai
	12	Bizitoki desegokia	12.1	Bertan bizi izateko egokia ez den eraikina	Bai
	13	Larregizko pilaketa	13.1	Pilaketa zehazten duten ohiko estandarren gain-gainetik	Ez

Iturria: Cabrera, P. J. et al. (2008) *¿Quién duerme en la calle? Una investigación social y ciudadana sobre las personas sin techo*. Serie: herramientas para la inclusión, nº 4, Barcelona: Caixa Catalunya, kontuan hartuta.

3.2. Azterketaren eremu geografikoa

Aurreko azterketan bezala, erreferentziako eremu geografikoa aldatu egingo da, udalerrietako kaleetako etxerik gabekoen gaueko zenbaketa kontuan hartuz gero edo EAEko etxerik gabekoen atentziorako sareko bizitokietan daudenen zenbaketa kontuan hartuz gero.

Udalerrietako kaleetako gaueko zenbaketari dagokionez –ETHOS sailkapeneko 1, 11 eta 12. kategorien baitan–, azterketa hementxe egin zen, lehen azaldu dugun bezala: Barakaldo, Bilbo, Getxo, Portugaleta, Santurtzi eta Sestao, Bizkaian; Donostia eta Irun, Gipuzkoan; eta Laudio zein Vitoria-Gasteiz, Araban. Guztira, hamar udalerrri horietan bizi dira EAEko 2014ko biztanleen %52,8, hau da, 1.156.085 lagun. Halaber, azalera horrek biltzen suen EAEko azalera osoaren %7.

3. taula. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen gaueko zenbaketa egin zuten udalerrriak. Udalerrriko bakoitzeko biztanleen kopurua eta udalerrri bakoitzean dauden EAEko biztanleen proportzioa. 2014.

LH	Udalerrria	Biztanleen kop.	EAEko biztanleen %	Azalera (km ²)	EAEko azalaren %
Araba	Laudio	18.428	0,8	0,52	0,52
	Vitoria-Gasteiz	242.082	11,1	3,82	3,82
	Guztira	260.510	11,9	4,34	4,34
Bizkaia	Barakaldo	100.080	4,6	0,35	0,35
	Bilbo	346.574	15,8	0,56	0,56
	Getxo	79.544	3,6	0,16	0,16
	Portugaleta	47.117	2,2	0,04	0,04
	Santurtzi	46.651	2,1	0,12	0,12
	Sestao	28.288	1,3	0,05	0,05
	Guztira	587.454	26,8	1,28	1,28
Gipuzkoa	Donostia	186.126	8,5	0,84	0,84
	Irun	61.195	2,8	0,58	0,58
	Guztira	247.321	11,3	1,42	1,42
Guztira		1.156.085	52,8	7,04	7,04
EAE guztira		2.188.985	100,0	7.234,9	100,0

Iturriak: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014. EIN. Errolda Etengabeko Estatistika. 2014ko urtarrilaren 1eko datuak. Eusko Jaurlaritz. Ingurumen eta Lurralde Politika saila. Udalplan-Informazio geografikoko sistema eta lurralde-datuaren bankua.

Etxerik gabekoentzako bizitokietan egindako zenbaketari dagokionez, EAEko Hiru Lurralde Historikoak kontuan hartu dira azterketaren eremu geografikoan, nahiz eta EAEko etxerik gabekoentzako zentro guztiek azterketan parte hartu ez duten. Guztira, 253 zentrok lagundu digite ikerketa hau garatzen, eta, eurretatik, 76 Gipuzkoakoak dira (693 leku eskaintzen dituzte), 129 Bizkaian daude kokatuta (943 leku eskaintzen dituzte) eta 48 Araban daude (450 leku eskaintzen dituzte). Guztira, zentro parte-hartzaileek 2.086 leku eskaintzen dizkiete bizitegi-bazterketa larrian daudenei, eta lurraldeko 25 udalerritan daude banatuta. Araban, zentro guztiak Vitoria-Gasteizko hirian daude kokatuta. Bizkaian, 11 udalerritan daude azterketa honetan parte hartu duten etxerik gabekoentzako bizitokiak; eta, Gipuzkoan, lurralde horretako 13 udalerritan.

4. taula. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen gaueko zenbaketan parte hartu duten etxerik gabekoentzako bizitokien kokapena. 2014.

LH	Udalerría	Zentroen kop.	Lekuen kop. guztira
Araba	Vitoria-Gasteiz	48	450
	Guztira	48	450
Bizkaia	Arrigorriaga	4	18
	Barakaldo	17	91
	Bilbo	97	767
	Etxebarri	1	6
	Galdakao	1	4
	Gamiz-Fika	1	20
	Getxo	1	5
	Leioa	3	12
	Mungia	1	3
	Santurtzi	2	9
	Erandio	1	8
	Guztira	129	943
	Gipuzkoa	Alegia	1
Andoain		1	14
Beasain		1	6
Zizurkil		1	8
Hernani		2	11
Irun		2	12
Irura		1	6
Pasaia		7	78
Errenteria		4	40
Donostia		50	476
Tolosa		3	12
Urnietá		2	18
Billabona		1	8
Guztira	76	693	
Guztira		253	2.086

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

3.3. Landa-lana eta boluntarioen partaidetza

Landa-lanaren antolakuntzari dagokionez, datuak aldi berean bildu ziren EAEko Hiru Lurralde Historikoetan, udalerrí parte-hartzaileetan egindako gaueko zenbaketan nahiz etxerik gabekoentzako bizitokietan. 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean egin zen zenbaketa.

Landa-lana antolatzeko erabilitako metodologiari dagokionez, desberdina izan zen kaleko gaueko zenbaketan eta etxerik gabekoentzako bizitokietan. Kanean zeudenak zenbatzeko, zenbait gunetan banatu ziren udalerríak. Barakaldon, zenbaketarako 8 gune zedarrítu ziren; Bilbon, 8 barruti eta 27 azpigune; Donostian, 5 gune eta 23 azpigune; Getxon, 6 barruti; Irunen, 9; Laudion, 6; Portugaleten, 4; eta, Santurtzin, 5. Azkenik, 7 barruti eta 29 azpigune zedarrítu ziren Vitoria-Gasteizen. Sestaoko udalerrían, ordea, ez zen horrelako azpibanaketarik egin alde aurretik, boluntarioen talde bakoitzak aurretiaz zehaztutako eta antolatutako ibilbide zehatza egin zuen arren.

Gune bakoitza boluntarioen talde baten ardurapean egon zen, eta zuzenean bildu zuten informazioa. Aldi berean, koordinatzaile batek talde bakoitza antolatu eta ikuskatu egin zuen, eta etxerik gabekoentzako jarduketan arloko esperientzia zeukan. Aldez aurretik, prestakuntzarako eta gaikuntzarako zenbait jardura antolatu ziren udalerrí bakoitzean zenbaketan boluntario moduan parte hartzeko izena eman zuten guztientzat. Hamar udalerríetan, goizaldeko 22:00etatik 2:00etara egin zen zenbaketa. Zenbaketako gauean bertan, lana errazteko zenbait material ere banatu ziren:

- Ibilbidearen marra ikusgarriaren bitartez zedarritutako mapa.
- Pertsona bat zenbatzean bete beharreko behaketa-fitxak.
- Klean esnatuta egonda elkarrizketatuak izatea onartzen zutenentzako galde-sortak.
- Gaueko zenbaketako esperientzia ebaluatzeko galde-sortak, zenbaketa amaitutakoan boluntarioek bete zezaten.

Etixerik gabekoentzako bizitokietan egindako zenbaketari dagokionez, zentro bakoitza kudeatzen duten langileen lankidetzari esker egin ahal izan zen zenbaketa, zentroari buruzko informazioa bildu zutelako eta bertan zeuden gehienei egin zizkietelako galde-sortak. Nolanahi ere, zentro handienetako lan-taldeak boluntarioen bidez indartu ziren, informazioa azkarrago biltzeko eta zerbitzuaren ohiko jardura ez eragozteko. Zentro parte-hartzaile bakoitzari honako material hauek bidali zitzaizkien zenbaketa baino astebete lehenago, gutxi gorabehera:

- Elkarrizketatuak izatea onartzen zuten erabiltzaileentzako galde-sortak eta kasuan kasuko behaketa-fitxak.
- Zentro horietako arduradunentzako orria, zentro horien oinarrizko zenbait ezaugarri azaltzeko eta, batez ere, urriaren 29tik 30erako gauean bertan zenbat lagun zeuden jakiteko.

Azterketan parte hartu duten 253 zentroetatik, ia-ia erdiak hirugarren sektoreko erakunde pribatuak kudeatzen dituzte (%49,8), lautik bat udal-titularitatepekoa da (%25,3) eta gainerakoak foru-titularitatepekoak dira (%24,9).

5. taula. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen gaueko zenbaketan parte hartu duten zentroyen titularitatea. 2014.

		Publikoa		Pribatua	Guztira
		Udalekoa	Forala		
Araba	Kop.	31	8	9	48
	%	64,6	16,7	18,8	100,0
Bizkaia	Kop.	15	27	87	129
	%	11,6	20,9	67,4	100,0
Gipuzkoa	Kop.	18	28	30	76
	%	23,7	36,8	39,5	100,0
EAE	Kop.	64	63	126	253
	%	25,3	24,9	49,8	100,0

Iturria: EAE En Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Etixerik gabekoen gaueko zenbaketetan boluntarioek parte hartzen dute, 8oko hamarkadan New Yorkeko hirian egindako horrelako azterketetako esperientzia aitzindarietan ezarritako metodologiaren ondorioz. Gero, metodologia bera erabili da munduko zenbait hiritan, baita Espainiako hiri batzuetan ere (Madril, Bartzelona, Sevilla eta Zaragoza). Zenbait arrazoi daude, boluntarioek landa-lanean parte hartu dezaten. Batetik, boluntarioak direnez, horrelako azterketen kostuak murriztu daitezke, bideragarritasun ekonomiko handiagoa izan dezaten. Bestetik, boluntarioek parte hartzean, gizarte zibila inplikatzeko da ikerketan bertan, eta, horrela, etxegabetasunaren ezagutza zuzena zein aitortpen soziala sustatzen dira arazo sozial moduan eta gizakien eskubideen urraketa moduan. Oro har, boluntarioek parte hartzen dutenean, jendea sentibilizatu egiten da, eta zuzen-zuzenean hurbiltzen da etxerik gabekoen errealiterara nahiz inguruabarretara, etxerik gabekoek jasandako estigmaren eta gizarte-bereizkeriaren oztipoa apurka-apurka gainditu nahian.

2014an, guztira 780 boluntariok parte hartu dute zenbaketan, eta gehienak emakumeak izan dira (%68). Hori dela eta, kilometro koadroko 1,53 boluntario egon dira batez beste, zenbaketako eremu geografiko guztiak kontuan hartuz gero. Edonola ere, badago udalerrien arteko alde esanguratsurik, Portugaleteko eta Getxoko udalerrietako zenbaketan 6,9 eta 6,08 boluntariok parte hartu zutelako kilometro koadroko, hurrenez hurren. Bestetik, Laudioko, Sestaoko eta Vitoria-Gasteizko udalerrietan, boluntario bat baino gutxiago egon zen kilometro koadroko, bertako batez bestekoa 0,37, 0,55 eta 0,72 boluntariokoa izan zelako, hurrenez hurren. Agerikoa denez, zenbaketarako taldeetan jende gehiago dagoenean, askoz errazagoa da etxerik gabekoak aurkitzea, denbora gutxiago behar da esleitutako gunea orrazteko eta bigarren edo hirugarren buelta ere egin daiteke boluntarioen talde bakoitzari esleitutako ibilbidean. Hori dela eta, badago zenbaketa-taldeak lehen aldiz igaro ondoren leku horretara iritsi ahal izan direnak zenbatzerik.

Boluntarioen agerpen handiagoak udalerrri bakoitzean lortutako datuen kalitatean eragina eduki ahal izan duen arren, ezin da zehatz-mehatz adierazi faktore horrek nolako eragina izan duen kasu bakoitzean. Hartara, informazio hori orientazio eta ustezko hipotesi moduan erabili daiteke, udalerrri bakoitzean lortutako emaitzen zehaztasun handiagoa edo txikiagoa aztertzeako orduan. 6. taulan, boluntarioen osaketa azaltzen da sexuen arabera, baita zenbaketa egin zuten udalerrietan kilometro koadroko zeuden boluntarioen kopurua ere.

6. taula. Kaleko bizilagunen zenbaketan parte hartu duten boluntarioak eta azalera, udalerrien arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua.

	Boluntarioak			Azalera (km ²)	Boluntarioen kop. km ² -ko
	Gizonak	Emakumeak	Guztira		
Barakaldo	15	25	40	25,0	1,60
Bilbo	76	126	202	40,6	4,98
Donostia	51	99	150	61,0	2,46
Vitoria-Gasteiz	35	163	198	276,3	0,72
Getxo	31	41	72	11,8	6,08
Irun	21	44	65	41,9	1,55
Laudio	4	10	14	37,4	0,37
Portugalete	10	12	22	3,2	6,90
Santurtzi	8	7	15	8,7	1,72
Sestao	2	0	2	3,6	0,55
Guztira	253	527	780	509,6	1,53

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014. Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika saila. Udalplan-Informazio geografikoko sistema eta lurralde-datuen bankua.

Azkenik, funtsezkoa da etxerik gabekoen atentziorako eguneko zentroen lankidetzaren aipatzea. Zentro horiek azterketa honetan emaitzak erkatzeako agertzen diren barne-metodoetako bat egiten lagundu digute. Erkatzeako metodo horiek, hain zuzen ere, udalerrri bakoitzean bizi diren etxerik gabekoen kopuruaren zenbatespeneko errorea ahalik eta gehien gutxitzea dute helburu.

Gaueko errolda-zenbaketetako emaitzetan eragina izan dezaketen faktore metodologiko ugarien ondorioz, udalerrriko kaleetan zenbatutako lagunen kopurua zenbaketan bertan gutxietsi edo gehiatsi daiteke. Errore hori ahalik eta gehien gutxitzeako, lortutako emaitzak erkatzeako bi mekanismo aurreikusi dira ikerketa honetan. Batetik, zenbaketa egin duten udalerrietako bertako eguneko zentroetara eta eguneko gainerako bizitokitara doazen etxerik gabeko guztiei elkarrizketa laburra egiten zaie zenbaketaren osteko hurrengo egunean. Elkarrizketa horretan, zentrori doazenei galdetzen zaie non lo egiten duten aurreko gauean, eta, kalean lo egin dutela badiote, aurreko gauean norbaitek elkarrizketa egin zien edo elkarrizketatuak izateko eskatu zien ere galdetzen zaie. Horrela, bada, elkarrizketa horiek antolatzeako eta garatzeako, ezinbestekoa izan zen bizitoki horiek kudeatzen dituzten erakundeek eta une hartan artatu zituzten profesionalen laguntza jasotzea.

3.4. Informazioa biltzeko tresnak

Ikerketa honetarako beharrezkoa den informazio guztia modu sistematiko eta antolatuan lortu ahal izateko, datuak biltzeko tresna arrunt hauek erabili dira:

- **Kalean aurkitutakoentzako galde-sorta eta behaketa-fitxa.** 42 galderako galde-sorta da, eta kalean esnatuta aurkitutako bizilagunei egiten zaie, haien oinarrizko ezaugarri soziodemografikoak zein diren eta zenbait arlotan nola dauden jakiteko: etxerik gabekoen egoera administratiboa, erroketak soziala, egoera zibila, harreman sozialak, familiako harremanak, lan egoera, diru-sarreraren iturria, bizitokia, etxegabetasunaren ibilbidea, gizarte-zerbitzuen erabilera, ohiturak edo osasun-egoera orokorra. Galde-sortan bertan, gainera, identifikaziorako eta lekurapenerako oinarri-oinarrizko datuak biltzeko fitxa ere badago erantsita. Fitxa hori banan-banan bete behar da, etxerik gabeko bat zenbatzen den guztietan, azterketan parte hartu nahi zuen ala ez eta galde-sortari erantzun nahi zion ala ez kontuan hartu gabe.
- **Kaleko zenbaketarako zantzuen orria.** Tresna hau diseinatu eta ezarri egin da, udalerrietako kaleetan lo egin ohi duten etxerik gabekoen benetako kopurura ahalik eta gehien hurbildu ahal izateko. Boluntarioek orri hori bete behar dute, esleitu dieten ibilbideko lekuren batean norbait lotan dagoela edo lo egin ohi duela zentzuz uste badute, hau da, horren gaineko zentzuzko zantzurik badute. Zantzuak behaketa zuzenekoak edo zeharkako behaketakoak izan daitezke, hau da, boluntarioak berak behatutako guztian edo hirugarrenaren lekukotasunean oinarritu daitezke. Nolanahi ere, antzemandako zantzuaren iturriaren eta motaren berri eman behar da orrian (zoruan aurkitutako arropa edo objektuak, barruan lotan dagoena ikusi ez arren autoko leihatilan ikusten den lurruna, auzokideen edo beste etxerik gabeko batzuen lekukotasuna...). Era berean, adierazitako lekuan zenbat lagun egon daitezkeen lo egiten eta zehatz-mehatz non dauden ere jarri behar da bertan. Ondoren, emaitzak aztertzen dituen talde teknikoak informazio hori ikertu eta erabaki egingo du zer orri diren pertsonaren agerpenaren behar besteko proba eta zein ez diren nahikoak baliozkotzat hartu ahal izateko.
- **Bizitokietako erabiltzaileentzako galde-sorta eta behaketa-fitxa.** 43 galderako galde-sorta da, eta bizitokiren batean lo eginda azterketan parte hartu nahi dutenei egiten zaie. Bertan bildutako informazioa kalean lo egiten dutenek emandakoaren antz-antzekoa da. Hala ere, galde-sorta honetan, bi galdera gehiago daude: batetik, aldeztu aurretik etxegabetasunean esperientziaren bat eduki duten eta, horren ondorioz, kalean lo egin behar izan duten derrigorrean; eta, bestetik, EAeko etxerik gabekoen atentziorako sareko bizitoki batean sartu baino lehenagoko gauean non lo egin zuten. Galde-sorta honetan ere, identifikaziorako eta lekurapenerako oinarri-oinarrizko datuak biltzeko fitxa dago erantsita.
- **Zentroetako eta bizitokietako datuak biltzeko orria.** 13 galderako agiri hau gaueko zenbaketa egin duten bizitokietako arduradunentzat da. Orri honetan, bizitokien oinarrizko ezaugarri buruzko datuak biltzen dira (titularitatea, eskuragarri dauden lekuak eta itunpeko lekuak). Aldi berean, zenbaketako gauean bizitokian lo egin zuten guztien kopurua ere jarri behar da bertan, eta datuak sexuaren arabera banatzen dira. Horrez gain, biztanle-talde horrentzako lekuak dituzten bizitokietako adingabe guztien kopurua ere jarri behar da bertan.
- **Eguneko zentro eta zerbitzuetan datuak biltzeko orria.** Informazioa biltzeko tresna hau eguneko zentro eta zerbitzuetako arduradunentzat da (eguneko zentroak, jantoki sozialak eta gizarte-larrialdietarako zerbitzuak, batez ere). Zentro eta zerbitzu horiek, gainera, ez dira bizitegi-bazterketa larrian daudenentzat bakarrik izan behar ezinbestean. Datuak biltzeko orria eguneko zentro eta zerbitzuetako kudeatzaileek bete beharreko fitxa da, eta honako hauxe jarri behar dute bertan: 1) zenbaketaren osteko hurrengo egunean zenbat lagun artatu zituzten bertan; 2) artatutako bizilagunetatik zenbaterik lo egin zuten kalean edo nolabaiteko etxebizitza desegokian aurreko gauean; 3) eurretatik zenbaterik lo egin zuten zenbaketan parte hartu zuten

udalerrietako batean; eta, azkenik, 4) eurretatik zenbati egin zieten elkarrizketa zenbaketako taldeek aurreko gauean eta zenbati ez. Tresna honek kalean daudenen zenbaketaren zehaztasuna ebaluatzea du helburu, eta, kalean daudenen zantzuen orriarekin batera, udalerrietako kaleetan egindako gaueko zenbaketan lortutako emaitzak erkatzeko bi tresnak dira.

- **Boluntarioek izena emateko fitxa.** 11 galderako galde-sorta laburra da, eta ikerketan boluntario moduan parte hartu nahi duten guztiek bete behar dute.
- **Datuen bilketa ebaluatzeko fitxa.** 20 galderako orria da, eta boluntarioek zenbaketako partaidetzari buruz zer uste duten adierazi behar dute bertan. Era berean, zenbaketaren antolakuntzarekin eta teknikarekin lotutako zenbait faktoreri buruzko iritzia ere eman behar dute.

2012ko zenbaketaren aldean informazioa biltzeko tresnetan egindako aldaketei dagokienez, batez ere nabarmendu egin beharra dago etxerik gabekoentzako galde-sortetan (kalean nahiz bititokietan daudenak kontuan hartuta) bloke berezia txertatu dela, bizitegi-bazterketa larrian daudenek diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) zer neurritan jasotzen duten jakiteko. Era berean, beste galdera bat ere sartu da, zenbaketan aurkitutako etxerik gabekoek zer lan-baldintzetan lan egiten duten edo azken lanean nolako baldintzak izan dituzten jakiteko. Horrela, bada, bizitegi-bazterketa larriaren eta lan-merkatu formalizatu zein erregularretiko bazterketaren artean loturarik dagoen jakin ahal izango da. Gainerakoan, bi galde-sortetako galdera guztiak berdinak dira, hau da, idazketa eta erantzun-kategoria berberak dituzte, aurkitutako etxerik gabeko guztien erantzunak batera aztertu ahal izateko.

3.5. Kaleko gaueko zenbaketen ezaugarriak eta mugak

Bizilagunen gaueko zenbaketan eta, batez ere, kalean egindako zenbaketan lortutako emaitzak interpretatzeko orduan, oso kontuan hartu beharra dago horrelako ikerketek kalean daudenen irudi finkoa eskaintzen dutela gau zehatz batean eta ordutegi zehatz batean egindako zenbaketaren bitartez. Zenbaketarako teknika horretan, gehiago edo gutxiago kontrolatuta dauden zenbait egoerak eragina izan dezaketenez, emaitzak aldatu daitezke.

Lehenengo eta behin, gaueko zenbaketari dagokionez, adierazi egin beharra dago teknika horren bidez lortutako emaitzak neurri handiagoan edo txikiagoan egon daitezkeela aldi baterako faktore hauen baldintzapean:

- Zenbaketaren data. Oso garrantzitsua da zenbaketa zer egunetan egingo den zehaztea. Udan, tenperatura beroagoa denean eginez gero, kalean lo egiten duen jende gehiago zenbatu daiteke zenbaketa beste garai batean egiten bada baino. Bestetik, ikerketa honetan bezala, udazkenean egitean, eragina ere eduki ahal izan du zenbaketan, kalean zenbatu direlako neguan, esaterako, hilabete hotzetan irekitako neguko bizitokiren batean lo egingo zuten bizilagunak. Faktore hori ere oso kontuan hartu beharra dago gaueko zenbaketak nolabaiteko maiztasunaz antolatzeko erabakia hartzen denean, data desberdinak aukeratzean lortutako emaitzen alderagarritasuna baldintzatu daiteke-eta.
- Ordu-tartea. Gaueko zenbaketa antolatzeko orduan, ordu-tartea zedarritu beharra dago (gure kasuan, 22:00etatik 2:00etara egin zen), balitekeelako zenbaketaren muga-ordua igaro ostean lotara doazen etxerik gabekoak zenbaketan bertan kontuan ez hartzea.

Aipatutako inguruabarrez gain, beste era bateko mugak ere badaude honelako ikerketetan. Hala ere, ez dira hainbeste teknikaren beraren ondorioz sortzen, abian jartzen direnean baizik. Horri buruz esan beharrekoa sistematizatzeko ahaleginean, muga horiek honelaxe antolatu litezke, lortutako emaitzetan eduki ditzaketen behin-behineko inplikazioen arabera:

- Zenbaketa gehietsi dezaketen egoerak:
 - o Etxerik gabekoen mugikortasuna. Baliteke gune desberdinetako taldeek pertsona bera bi aldiz zenbatzea, gauean lekuz aldatu delako.
 - o Oso garrantzitsua da zenbaketako guneak errespetatzea. Esleitutako guneko mugak errespetatzen ez badira edo argi eta garbi zedarritzen ez badira, baliteke bi taldek pertsona bera bi aldiz zenbatzea.
 - o Boluntarioen larregizko ardura. Luzaroan inor ikusi ez duen zenbaketa-taldeak norbait aurkitu nahi duenez, baliteke etxerik gabekoak ez diren bizilagunak identifikatzea eta zenbatzea.

- Zenbaketa gutxietsi dezaketen egoerak:

- Klean lo egiten dutenen beldurra. Baliteke etxerik gabekoak ezkutatzea boluntarioen taldeak ikusten dituztenean edo, klean egon arren, lotsagatik edo beste arrazoi batzuegatik etxerik gabekoak ez direla erantzutea.
- Izenak ez du izana egiten. Baliteke zenbaketa-taldeen klean lo egiten duten bizilagunei ez erreparatzea, etxerik gabekoak ez direlakoan.
- Leku helezinak. Ez dago leku itxietan (autoak, garajeak, karabanak) edo ezkutuetan edo hirietako oso gune helezinetan dauden bizilagunak zenbatzerik.
- Betatuta dauden guneak. Zenbaketa guztietan, ez dira zenbait gune nahita kontuan hartzen, seguruak ez direlako edo oso zaila delako bertan lotan dauden bizilagunak antzematea. Hori dela eta, baliteke etxerik gabekoen kopurua gutxiestea.

3.6. Etxerik gabekoak azterketa honetan izandako erantzunaren eta partaidetzaren tasa

Horrelako zenbaketen muga orokorreaz gain, identifikatutako bizilagunen karakterizazioari dagokionez (lehen esan dugun bezala, eurek egituratutako galde-sortari emandako erantzunetan dago oinarrituta), oso garrantzitsua da jakitea aurkitutakoetatik zenbatek erantzun dieten galdera horiei, asko lo egon daitezkeelako edo erantzun nahi ez dutela esan dezaketelako. Hori dela eta, argi eta garbi dago emaitzen adierazgarritasuna murrizten dela.

3.6.1. Hamar etxerik gabeko zazpi azterketan parte hartu dute

Zenbaketan bizitegi-bazterketa larrian aurkitutako 10 bizilagunetatik 7k parte hartu dute azterketa honetan. Erantzun-tasa %71,65koa izan da, adinez nagusiak bakarrik kontuan hartuz gero; eta %67,32koa, 18 urtetik beherako biztanleak ere kontuan hartuz gero.

Zenbaki horiek balioesteko orduan, zenbaketan kontuan hartu arren, ez zitzaion adingabekoa den inori proposatu galde-sortari erantzutea. Guztira, 111 adingabe zenbatu ziren, hau da, zenbaketan aurkitutako guztien %7,34. Biztanle-talde horren partaidetza-tasa hutsa denez, azterketan lortutako emaitzak balioesteko orduan egokiagoa da zenbaketan zenbatutako adinez nagusiak (%71,6) bakarrik erreferentziatzen daukan erantzun-tasa kontuan hartzea. Nolanahi ere, etorkizuneko azterketetan adingabeen etxegabetasunaren esperientzia behar bezala islatu nahi izanez gero, nabarmendu egin beharra dago estrategia bereziak garatu beharko direla biztanle-talde horren partaidetza lortu ahal izateko. Horretarako, besteak beste, informazioa biltzeko tresnak egokitu beharko dira etxerik gabeko adingabeen inguruabar berezietara.

7. taula. Kalean eta bizitokietan egindako zenbaketatik ateratako erantzun-tasa, lurralde historikoen arabera. 2014.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Kalean aurkitutakoak	20	175	128	323
Jasotako galde-sortak	20	175	128	323
- Identifikaziorako fitxa besterik ez	13	107	65	185
+ Lotan zeudenak	4	68	46	118
+ Esmatuak egon arren erantzun nahi ez zutenak	9	39	19	67
- Erantzundako galde-sortak	7	68	63	138
+ Erantzun-tasa, esnatuta zeudenak kontuan hartuta	43,7	63,6	76,8	67,3
+ Erantzun-tasa, aurkitutako bizilagunak kontuan hartuta	35,0	38,9	49,2	42,7
Bizitokietan lo egiten dutenak	277	729	507	1.513
Bizitokietan dauden adinez nagusiak	231	703	468	1.402
Jasotako galde-sortak	181	661	401	1.243
- Identifikaziorako fitxa besterik ez	10	81	54	145
- Erantzundako galde-sortak	171	580	347	1.098
+ Erantzun-tasa, adinez nagusiak kontuan hartuta	78,3	94,0	85,7	88,7
+ Erantzun-tasa guztira	65,3	90,7	79,1	82,1
Kalean eta bizitokietan daudenak	297	904	635	1.836
- Identifikaziorako fitxa besterik ez	23	188	119	330
- Erantzundako galde-sortak	178	648	410	1.236
+ Erantzun-tasa guztira	59,9	71,7	64,6	67,3
+ Erantzun-tasa, adinez nagusiak bakarrik kontuan hartuta	70,9	73,8	68,8	71,6

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

7. taulan ikusten denez, kalean aurkitutakoaren (%42,7) erantzun-tasa bizitokietan aurkitutakoaren (%88,7) tasaren erdia da, gutxi gorabehera. Kalean aurkitu eta galde-sortari erantzun ez zioten 185 bizilagunetatik, 118 (%63,8) lotan zeuden zenbaketa-taldeak aurkitu zituztenean, eta 67k (%36,2k) nahiago izan zuten azterketan ez parte hartu. Aurkitu zituztenean esnatuta zeudenak bakarrik kontuan hartuta, kalean aurkitutakoaren erantzun-tasa kalkulatzeko bada, talde horren partaidetza-tasa hogeita bost puntu biko gehiago handitzen da, eta %67,3koa dela esan beharra dago. Zenbaki horien araberrako partaidetza-emaitzak askoz hobekien diren arren, agerian uzten dute taldeak zenbaketako gauean kalean lo egin zutenen bi herenetara baino gehixeagotara baino ezin izango zirela iritsi.

Bizitokietan dauden bizilagunei dagokienez, partaidetza-tasaren arabera, zenbaketako gauean etxerik gabekoentzako zentroetan zeuden %80-90engana iritsi ahal izan dira taldeak.

Etxerik gabekoen partaidetza-mailako aldeei dagokienez, bizileku duten lurralde historikoaren arabera, erantzun-tasa handieneko lekua Bizkaia izan da (%73,8); eta, ondoren, Araba (%70,9) eta Gipuzkoa (%68,8).

3.6.2. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen faktore pertsonalak eta egoeraren araberrakoak, lortutako erantzun-tasan eragina dutenean

Etorkizuneko azterketari begira, bizitegi-bazterketa larrian daudenen partaidetza-tasa areagotzea oso interesgarria izango litzatekeenez, zenbaketako gauean aurkitutakoaren erantzun-tasan eragina eduki ahal izan duten zenbait faktore aztertu behar dira.

Guztira, bizitegi-bazterketa larrian zeuden 1.448 laguni proposatu zitzaion ikerketa honetako eremuan garaturiko elkarrizketa burutzea. Kopuru horren baitan, kontuan hartzen dira kaleko gaueko zenbaketan esna zeuden eta elkarrizketa burutzea proposaturiko pertsona horiek guztiak (205 lagun), eta horietaz gain, galde-sortari erantzuteko aukera izan zuten bizitokia eskainitako baliabideetan zeuden lagunek (1.243). Beraz, ez dira kontuan hartzen kalean lo zeudela aurkitutako pertsona horiek guztiak (118) eta baita ere, baliabide batean egon eta zenbatu arren, arrazoi desberdinen ondorioz galdetu gabeko lagun horiek guztiak (270 lagun). Lagun horien oinarriko ezaugarri soziodemografikoak kontuan hartuz gero, nabarmentzekoa da atzerritarrak (%88,2) eta 24 urte azpiko pertsonak (%89,7) izan direla azterlanean gehien parte hartu izan dutenak, atzerritar ez diren pertsona (%84,4) eta urte gehiago dituzten pertsonen aldean. Elkarrizketatutako lagunen sexuari dagokionez, emakumeek izandako partaidetzaren tasa (%86,3) gizonen tasaren oso tankerakoa da (%85,2), edo, izatekotan ere altuagoa izan da.

8. taula. Elkarrizketa egitea proposatu zitzaizen bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen partaidetza-tasa, hainbat ezaugarriren arabera. 2014

		Pertsona kopurua			Banaketa horizontala		
		Ez dute erantzun	Erantzun dute	Guztira	Ez dute erantzun	Erantzun dute	Guztira
Sexua	Gizona	168	965	1.133	14,8	85,2	100,0
	Emakumea	43	271	314	13,7	86,3	100,0
	Daturik Gabe	1	0	1	100,0	0,0	100,0
Nazionalitatea	Espainiarra	99	535	634	15,6	84,4	100,0
	Atzerritarra	94	701	795	11,8	88,2	100,0
	Daturik Gabe	19	0	19	100,0	0,0	100,0
Adina	<25 urte	36	314	350	10,3	89,7	100,0
	25-34 urte	33	236	269	12,3	87,7	100,0
	35-44 urte	58	269	327	17,7	82,3	100,0
	45-54 urte	54	268	322	16,8	83,2	100,0
	55 urte eta gehiago	24	114	138	17,4	82,6	100,0
	Daturik gabe	7	35	42	16,7	83,3	100,0
Kokalekua	Kalea	67	138	205	32,7	67,3	100,0
	Aterpetxea	97	264	361	26,9	73,1	100,0
	Beste bizitoki batzuk	48	834	882	5,4	94,6	100,0
Guztira		212	1.236	1.448	14,6	85,4	100,0

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Dena dela, erantzun-tasan antzemandako aldeak ondoen azaltzen dituen aldagaia bizilagunek zenbaketako gauean erabilitako kokalekua da. Azterketa hau apur bat zehatzagoa izan dadin, hiru kategoriatan sailkatu dira bizilagunak, kokalekua (kalea edo bizitokia) eta zenbaketan erabilitako bizitoki-mota kontuan hartuta. Honako kategoria hauek zehaztu dira: 1) kalean lo egin zutenak; 2) egonaldi laburreko babesleku eta aterpetxeetan zeudenak; eta 3) egonaldi ertain eta luzeko bizitokietan zeudenak. Bereizketa hori egitean, aterpetxe eta babeslekuetan zeudenen erantzun-tasa (%73,1) beste era bateko bizitokietan zeudenen tasa (%94,6) baino 21,5 puntu txikiagoa da. Datu horien arabera, argi eta garbi dago egonaldi laburreko bizitokietan daudenen partaidetza ere areagotu beharra dagoela etorkizuneko zenbaketei begira.

Azkenik, azterketa honen balio erantsi nagusia eta helburu estrategikoetakoa etxerik gabekoengana hurbiltzea denez (hau da, zenbait arrazoiengatik EAeko etxerik gabekoentzako bizitoki eta zentroetara joaterik ez dutenak edo joan nahi ez dutenak), oso egokia da talde horren erantzun-tasan eragina eduki ahal izan duten faktore bereziak aztertzean, kontuan izatea topatutako 323 lagun horietatik 138 lagunek erantzun izan, dela lo zeudelako, dela ez zutela erantzun nahi.

Aurretik nabarmendu beharrekoa da, bestelako faktoreez gain, ordutegi horrek baldintzatu egiten duela zenbatutako lagunen kopuru hori. Zenbatutako lagunetatik ia-ia erdia (%50,7) zenbatu ziren gaueko hamar eta erdiak eta hamaika eta erdiak bitartean. Lagunik gehien zenbatutako ordutegiaren tartea izan zen 22:31 eta 23:00 bitartekoa (62 lagun). Ordu hartatik aurrera, modu gradual batean beheratzen joan zen zenbatutako pertsonen kopurua, eta azkeneko tartean, goizeko 1:30 eta 2:00 bitartean, soilik zenbatu zituzten 3 lagun. Ez zuten zehaztu zenbatutako 323 kasuetatik 37 kasuetan zein ordutan aurkitu zituzten.

Halaber, nabarmendu daiteke etxegabeko diren pertsonak aurkitzeko aukerak gutxitu egiten direla orduak aurrera egin ahala, eta baita ere erantzuteko tasa hori. Emaitzek erakusten dutenez, ordutegiaren tarte bakoitzean lo zeuden lagunek gain, gauak aurrera egin ahala gutxitu egin zen galde-sortari erantzuteko prest zeuden lagunen zenbatekoa. 12. taulak erakusten duen moduan, 22:01 eta 22:30ak bitartean lo zeuden pertsonen zenbatekoa kontuan hartu gabeko erantzunen tasa %80,4 izan zen, eta 1:01 eta 1:30ak bitartean proportzio hori soilik %45,4 gertatu zen. Hala eta guztiz ere, goizeko 1etatik aurrerako erantzunak heldu ziren %100 izatera, baina kontuan hartu beharrekoa da tarte horretan zenbatutako lagunen kopurua oso baxua izan zela, 11 lagun guztira, horietatik guztietatik %3,4.

9. taula. Zenbaketako gauean aurkitutakoen partaidetza-tasa, haien kokalekua eta aurkitu ziren ordu-tartearen arabera. 2014ko urriak 29-30eko gaua.

	Pertsona kopurua				Ehunekoa			
	Lotan zeudenak	Esnatuta zeudenak		Guztira	Pertsonen % bertikala	Esnatuta zeudenak	Lotan zeudenak	Esnatu totalarekiko erantzunak
		Ez dute erantzun	Erantzun dute					
22:01-22:30	6	10	41	57	17,6	89,5	10,5	80,4
22:31-23:00	12	11	39	62	19,2	80,6	19,4	78,0
23:01-23:30	23	6	16	45	13,9	48,9	51,1	72,7
23:31-00:00	17	10	17	44	13,6	61,4	38,6	63,0
00:01-00:30	22	7	8	37	11,5	40,5	59,5	53,3
00:31-01:00	19	6	5	30	9,3	36,7	63,3	45,5
01:01-01:30	4	0	4	8	2,5	50,0	50,0	100,0
01:31-02:00	2	0	1	3	0,9	33,3	66,7	100,0
Daturik gabe	13	17	7	37	11,5	64,9	35,1	29,2
Guztira	118	67	138	323	100,0	63,5	36,5	67,3


Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

4. EAEEn BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIAN DAUDENEN ZENBAKETA

4.1. Zenbaketako gauean zenbatutakoen kopurua, kokapen geografikoa eta kokalekua

2014ko urriaren 29tik 30erako gauean egindako gaueko zenbaketan, EAEen bizitegi-bazterketa larrian dauden 1.836 lagun aurkitu zituzten guztira. Eurretatik, %17,6 (323 lagun) zenbaketan⁷ parte hartu zuten hamar udalerrietako bateko kaleetan lo egiten ari ziren, eta %82,4k (1.513 lagunek) etxerik gabekoentzako bititoki eta zentroetan eman zuten gaua.

1. grafikoa. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen banaketa, zenbaketako gauean aurkitu zituzteneko lekuaren arabera. 2014ko 29tik 30erako gaua.



Iturria: EAEEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

⁷ Hamar udalerrri hauek izan ziren Barakaldo, Bilbao, Donostia, Vitoria-Gasteiz, Getxo, Irun, Laudio, Portugalete, Santurtzi eta Sestao.

Kalean eta etxerik gabekoentzako zentroetan aurkitutako arteko proportzioa nahikoa desberdina da erreferentziako lurralde historikoaren arabera. Araba kalean lo egiten aurkitutako ehuneko txikiena daukan lurraldea da (%6,7), Gipuzkoaren (%20,2) eta Bizkaiaren aldean (%19,4). Bertan, hain zuzen ere, bizitegi-bazterketa larrian dauden hamar lagunetatik bik-edo lo egin zuten kalean edo beste leku desegokiren batean zenbaketako gauean.

10. taula. 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean lurralde historiko bakoitzean zenbatutako bizitegi-bazterketa larriko egoeren eragina eta banaketa

		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Pertsona kopurua	Kalea	20	175	128	323
	Bizitokietan aurkitutakoak	277	729	507	1.513
	Guztira	297	904	635	1.836
Banaketa bertikala	Kalea	6,7	19,4	20,2	17,6
	Bizitokietan aurkitutakoak	93,3	80,6	79,8	82,4
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
Banaketa horizontala	Kalea	6,2	54,2	39,6	100,0
	Bizitokietan aurkitutakoak	18,3	48,2	33,5	100,0
	Guztira	16,2	49,2	34,6	100,0
1.000 biztanleko tasa*	Kalea ¹	0,077	0,270	0,518	0,279
	Bizitokietan aurkitutakoak	0,860	0,633	0,709	0,691
	Guztira	0,923	0,785	0,888	0,839

* Kaleko etxegabetasun-tasa kalkulatzeko, zenbaketa egin zuten lurralde historikoetako udalerrietako biztanleak besterik ez dira hartu kontuan. Etxegabetasunaren eragin-tasa guztian, kalean nahiz bizitokietan aurkitutakoak hartu dira kontuan, eta kalkulurako erreferentziako biztanleak lurralde historiko bakoitzeko biztanle guztiak izan dira.

Iturria: EAEEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014. Errolda Etengabeko Estatistika. EIN. 2014.

Lurralde historiko bakoitzean aurkitutako kopuru guztiari dagokionez, 297 lagun aurkitu zituzten Araban (%16,2); 904, Bizkaian (%49,2); eta 635, Gipuzkoan (%34,6). EAEko Hiru Lurralde Historikoetarako etxegabetasun-tasak kalkulatu direnean⁸, egiaztatu egiten da Araba dela bizitegi-bazterketa larriko egoera gehien dituen lurraldea, bertan mila biztanleko 0,923 lagunek lo egiten dutelako kaleak edo gizarte-zerbitzuetako zentroetan. Gipuzkoan, ordea, etxegabetasun-tasa 0,888 lagunekoa da mila biztanleko; eta, Bizkaian, 0,785ekoa.

Oro har, Araban kontuan hartutako etxegabetasun-tasa EAEko beste bi lurralde historikoetan baino handiagoa bada ere, kalean aurkitutakoak bakarrik kontuan hartzen direnean, Gipuzkoa da, inolako zalantzarik gabe, aurkitutako bizilagun gehien dituen lurralde historikoa. Gipuzkoan aurkitutako etxegabetasun-tasak (0,518) Bizkaikoa (0,270) bikoizten du ia-ia, eta Arabakoa (0,077) baino 6-7 aldiz handiagoa da⁹.

⁸ Etxegabetasun-tasari esker, badago bizitegi-bazterketa larriak zenbait biztanleren artean daukan eragina antzematerik, mila biztanleko bizitegi-bazterketa larrian aurkitutako kopuruaren adierazgarri da-eta.

⁹ Kaleko zenbaketa datu horiek interpretatzeko, bi elementu hartu behar dira kontuan: batetik, Gipuzkoaz ari garenean Donostia eta Irun ditugu hizpide. Modu berean, Arabaz ari garenean, Laudio eta Vitoria-Gasteiz ditugu hizpide; eta, Bizkaiaz ari garenean, zenbaketa parte hartu duten beste sei udalerriak. Bestetik, lehen esan dugun bezala, horrek ez du ezinbestean adierazi nahi urte osoan kalean lo egiten dutenen benetako kopurua (gainerako biztanleen aldean) Gipuzkoako bi udalerrietan handiagoa denik, gau zehatz horretan zenbaketa parte hartu zutenek Gipuzkoako bi udalerririk horietan etxerik gabeko gehiago aurkitu zituztela baizik.

4.1.1. Kaleko zenbaketako emaitzak

4.1.1.1. Aurkitutako pertsonen banaketa geografikoa eta ezaugarriak

Guztira, kalean 323 lagun topatu zituztenaldi berean boluntario-lanak eginiko lagunen taldeek azterlan honetan partaide izandako 10 udalerrietan¹⁰. Zenbatutako 323 etxerik gabekoetatik, 141 Bilboko kaleetan aurkitu zituzten (%43,7); eta lautik bat baino gehixeago, Donostian (%27,6). Hori dela eta, bi udalerririk horietan daude zenbaketako gauean kalean lo egiten ari ziren hamar lagunetatik zazpi (%71,3). Bestetik, Irun izan zen kalean lo egiten ari ziren bizilagun gehien eduki zituen hirugarren udalerria, 39 zenbatu zirelako bertan (guztizkoaren %12,1).

Gainerako zazpi udalerririk kontuan hartuta, guztira aurkitutakoen %16,7 zeuden bertan. Edonola ere, alde handiak daude udalerririk bakoitzak zenbaki orokorrean daukan ekarpenean. Getxo da etxerik gabeko gehien dituen laugarren udalerria (20 lagun, guztizkoaren %6,2); eta, ondoren, Vitoria-Gasteiz (17 lagun, %5,3). Barakaldon, ordea, aurkitutakoen %2,8 daude kokatuta; eta, Laudion (3 lagun, %0,9), Santurtzin (3 lagun, %0,9) nahiz Portugaleten (2 lagun, %0,6), aurkitutakoen %3 baino gutxiago, hirurak kontuan hartuta. Sestaoko udalerrian, ostera, ez zuten kalean lotan zegoen inor aurkitu.

11. taula. Kaleko zenbaketako emaitzak, udalerrien arabera.
2014ko urriaren 29-30eko gaua

	Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabe	Guztira	
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	%
Bilbo	117	17	7	141	43,7
Donostia	63	8	18	89	27,6
Irun	31	7	1	39	12,1
Getxo	17	2	1	20	6,2
Vitoria-Gasteiz	14	3	0	17	5,3
Barakaldo	7	2	0	9	2,8
Santurtzi	3	0	0	3	0,9
Laudio	2	1	0	3	0,9
Portugalete	2	0	0	2	0,6
Sestao	0	0	0	0	0,0
Guztira	256	40	27	323	100,0

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Kalean topaturiko pertsona horietatik guztietatik. 256 gizonak eta 40 emakumeak ziren. Zenbatutako 323 kasuetatik gainontzeko 28etan ezin izan zen sexua zehaztu. Oro har, zenbatutako pertsona horietatik guztietatik soilik emakumeak ziren %12,4. Hala eta guztiz ere, proportzio horrek aldeak ditu Laudioiko %33,8 eta Donostiako %9aren tartean. Halaber, nabarmentzen da hiru hiriburuetan zerbait apalagoa den proportzio bat (zenbatutako lagunen artetik %11,3 dira) gainontzeko udalerririk aldean (%15,8).

Udalerririk bakoitzean lortutako emaitzak behar bezala interpretatzeko, honako haxe ezagutu beharra dago: zenbat lagun aurkitu dituzten udalerririk bakoitzean eta zer proportziotan dauden udalerririk bakoitzeko biztanleen kopuru guztiaren arabera. Kasu honetan ere, etxegabetasun-tasa zein den kalkulatu beharko da, hau da, zenbat etxerik gabeko aurkitu dituzten udalerririk bakoitzean bertako 1.000 biztanleko.


¹⁰ I. Gehigarrian gehitzen dira gaueko kaleko zenbaketaren emaitzan agertzen dituzten taulak udalerririk bakoitzaren lurralde-antolaketaaren arabera.

12. taula. 2014ko urriaren 29tik 30erako gaueko kaleko kontaktetan parte hartu zuten udalerrietako etxegabetasun-tasa

	2014ko biztanleria	Aurkitutako bizilagunak	1.000 biztanleko tasa
Irun	61.195	39	0,637
Donostia	186.126	89	0,478
Bilbo	346.574	141	0,407
Getxo	79.544	20	0,251
Laudio	18.428	3	0,163
Barakaldo	100.080	9	0,090
Vitoria-Gasteiz	242.082	17	0,070
Santurtzi	46.651	3	0,064
Portugalete	47.117	2	0,042
Sestao	28.288	0	0
Guztira	1.156.085	323	0,279

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014. Errolda Etengabeko Estatistika. EIN. 2014.

Udalerrri bakoitzeko biztanleen kopurua kontuan hartuta, Irun da etxegabetasun-tasa handiena daukan udalerrria (0,637 pertsona mila biztanleko). 61.000 biztanle baino gehixeagoko herri honetan 39 pertsona aurkitu ziren, horietako 22 bertan behera utzitako eraikinetan. Halaber, segurtasun arrazoiak direla eta, kokapen-mota honetako kontaketa ez zen zehatza izan, horregatik datu hauek tentuz hartu behar dira. Irunen atzetik datoz Donostia eta Bilbo, mila biztanleko 0,478 eta 0,407 pertsona-tasarekin, hurrenez hurren, oso urrun, bestalde, kontaktetan parte hartu zuren gainontzeko herriengandik. Honako hauek izan ziren herri horietako tasak, handienetik txikienera ordenatuak: Getxo (0,251), Laudio (0,163), Barakaldo (0,090), Vitoria-Gasteiz (0,070), Santurtzi (0,064), Portugalete (0,042) y Sestao (0).

2.grafikoa. 2014ko urriaren 29tik 30erako gaueko kaleko kontaktetan parte hartu zuten udalerrietako etxegabetasun-tasa

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014. Errolda Etengabeko Estatistika. EIN. 2014.

Datu horien arabera, zenbaketan aurkitutako etxerik gabekoen banaketa desberdinxeagoa da, eta adierazi egiten dute proportzioan Irungo zein Donostiako udalerrietan zenbatu direla leku publikoetan lo egiten ari diren edo etxebizitza desegokietan bizi diren bizilagun gehien. Nolanahi ere, bere tamainagatik, zenbaketako gauean Bilbon bertan aurkitu zituzten lagun gehien.

Azkenik, oso garrantzitsua ere bada etxerik gabekoek udalerrri bakoitzean daukaten barne-banaketa zein den jakitea, hau da, hirietako zer auzotan eta gunetan aurkitu zituzten zenbaketako gauean kalean lo egin zuten bizilagunak (ikus I. Gehigarria).

Irunen, hamar lagunetatik sei Lapitzen eta Belaskoenean zeuden (%61,5)¹¹. Donostian, hamarretik lau Amara Berri-Loiola-Martutene inguruan zeuden (%39,3). Bilbon, etxerik gabekoak sakabanatuago daudenez, guztira hiru barrutitan zeuden aurkitutako guztien %20na, gutxienez. Hala ere, 8. barrutian aurkitu zituzten etxerik gabeko gehien (%32,6), Basurton (%10,6) eta Olabeagan (%19,9), hain zuzen ere. Getxon ere, hamar lagunetatik sei zeuden hiriko guneean, zenbaketako taldeek izendatutako Algorta II gunean (%60), hain zuzen ere. Laudiori dagokionez, bi heren Gurutze Santua-Gardea inguruan aurkitu zituzten (%66,7), eta, Barakaldon, lau lagunetik hiru baino gehixeagok hementxe lo egin zuten: San Bizente, Hilerría, Mukusuluba, Epaitegiak, El Pilar ikastetxea eta Askatasun etorbidea (%77,8). Vitoria-Gasteizen, 2. barrutian (%35,3) eta, batez ere, Mendizorrotzan (%29,4) zeuden etxerik gabeko gehien. Azkenik, Santurtziko eta Portugaleteko udalerrietan, hiru eta bi lagun baino ez zituzten aurkitu, hurrenez hurren.


4.1.1.2. Aurkitutako bizilagunek lo egiteko erabilitako lekua

Zer udalerririk dituzten etxerik gabeko gehien eta zer gunetan dauden jakin beharra dago, baina, horrez gain, garrantzitsua ere bada etxerik gabekoek non lo egiten duten jakitea, EAEko etxerik gabekoentzako bizitokien sareko zentroetara joan nahi ez dutenean edo horretarako aukerarik izan ez dutenean.

Lortutako datuen arabera, aurkitutako hamar lagunetatik hiruk (%30,7k) kalean lo egin zuten; %16,7k, azpiegituren barruan edo inguruan; eta %12,4k, kutzazainean. Horiexek dira zenbaketako gauean kalean aurkitutakoek lo egiteko erabilitako hiru leku ohikoenak. Bertan behera utzitako etxeak edo eraikinak (%10,2), txabolak (%10,2) eta parkeak (%7,7), ordea, zenbaketako gauean kalean bizitegi-bazterketa larrian aurkitutako lau lagunetatik batek baino gehiagok erabili zituzten (%28,1). Azkenik, ibilgailuak (%3,7), saltegiak (%2,5) eta bizitzeko aurreikusita ez dauden beste leku batzuk (%3,1) hamar lagunetatik batek baino gutxiagok erabili zituzten (%9,3). Basoa edo mendia (%0,9) gutxien erabilitako lekua izan zen, zenbaketan aurkitutako hiru lagunek baino ez zutelako bertan lo egin.

¹¹ Nabarmendu beharra dago Irunen aurkitutako enrdiak-edo kokaleku berean zeudela, Belaskoenean bertan behera utzitako eraikinean, hain zuzen ere.

3. grafikoa. 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean kalean bizitegi-bazterketa larrian aurkitutakoek lo egiteko erabilitako lekua



Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Nolanahi ere, oso kontuan hartu beharra dago zenbaketa-taldeak ez direla gune basotsu edo urrunetara joan euren ibilbideetan. Hori dela eta, zenbaketa-taldeentzat oso zaila da horrelako lekuetan lo egiten duten bizilagunak antzematea. Oro har, gehienetan ere, zenbaketa-taldeak ez ziren bertan behera utzitako etxeetan edo azpiegitura handien barruan sartu. Izan ere, lo egiteko orduan horrelako kokalekuak erabiltzen dituztela adierazi zuten gehienak leku horretarantz joan baino lehen aurkitu zituzten zenbaketa-taldeen. Hau da, zenbaketa-taldeen aurkitu zituztenean, kalean lo egingo zutela adierazi zuten, baina beste leku batera joango zirela, zenbaketa-taldeen aurkitu zituzteneko lekuan geratu beharrean.

13. taula. Kaleko gaueko zenbaketan bizitegi-bazterketa larrian aurkitutakoek lo egiteko erabilitako lekua, aurkitu zituzteneko udalerraren arabera. 2014

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Vitoria-Gasteiz	Laudio	Bilbo	Beste udalerrak	Donostia	Irun	Guztira	
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	%
Kalean/plazan	5	2	46	3	36	7	99	30,7
Azpiegituren barruan/inguruan	4	0	26	2	21	1	54	16,7
Kutzazainean	2	0	21	5	12	0	40	12,4
Bertan behera utzitako etxean edo eraikinean	0	0	8	2	1	22	33	10,2
Txabolan	1	1	19	2	7	3	33	10,2
Parkean	1	0	6	12	3	3	25	7,7
Ibilgailuan	0	0	4	4	4	0	12	3,7
Bizitzeko aurreikusita ez dagoen lekuan	3	0	4	1	0	2	10	3,1
Saltegian	0	0	6	1	0	1	8	2,5
Basoan/mendian	0	0	0	0	3	0	3	0,9
Beste leku batzuetan	0	0	1	0	2	0	3	0,9
Daturik Gabe	1	0	0	2	0	0	3	0,9
Guztira	17	3	141	34	89	39	323	100,0

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Udalerrietan lo egiteko erabilitako lekuetako aldeak aztertuz gero, etxerik gabekoek agerpen handiagoa dute EAEko hiriburu-eremu publikoan, Laudion izan ezik, udalerririk txiki horretan 3 pertsonetatik bik horrelako kokalekuetan lan egin zutelako zenbaketako gauean. Hala ere, udalerririk horretan hiru bizilagun bakarrik aurkitu zituztenez, ehuneko hori ez da batere adierazgarria.

Vitoria-Gasteizen, Bilbon eta Donostian, %29,4k, %32,6k eta %40,4k hiriko kalean edo plazan lo egin zuten, hurrenez hurren. Etxerik gabekoek hiri handietan duten bigarren kokaleku ohikoena azpiegituren barruko aldea edo ingurua da, zenbaketako gauean Vitoria-Gasteizen aurkitutako %23,5ek, Bilbon zenbatutako %18,4k eta Donostian aurkitutako %23,6k lo egin zutelako bertan. Azkenik, kutzazainak dira etxerik gabekoek Bilbon (%14,9) eta Donostian (%13,5) lo egiteko gehien erabiltzen duten hirugarren lekua. Vitoria-Gasteizen, ostera, laugarren kokaleku ohikoena dira kutzazainak (%11,8), bizitzeko aurreikusita ez dauden lekuen atzetik (esate baterako, garajeak, sotoak eta nabe industrialak), hiri horretan aurkitutako etxerik gabekoek %17,6k lo egin zutelako bertan.

Hiriburuak ez diren udalerririk txikiagoei dagokienez, Bizkaikoetan honako hauexek dira lo egiteko leku ohikoenak: parkeak (%35,3), kutzazainak (%14,9) eta ibilgailuak (%11,8). Irunen, ordea, erdiak baino gehiago zeuden bertan behera utzitako etxe edo eraikinetan (%56,4); eta %17,9, udalerririk kale edo plazetan.

Azkenik, aurkitutakoek zenbaketa-taldeek aurkitu zituzteneko lekuan lo egin zuten ala ez aztertuz gero, argi eta garbi dago aurkitu zituztenean esnatuta zeuden 138 lagunetatik (guztizkoaren %42,7) gehienek leku berean lo egiteko asmoa zuten, eta %17,4k bakarrik adierazi zuten beste leku batean lo egingo zutela. 17. taulan, zenbaketako gauean udalerririk bakoitzean zenbat lagun aurkitu zituzten lotan eta zenbat esnatuta azaltzen da.

14. taula. Udalerririk kaleetan egindako gaueko zenbaketako emaitzak, elkarrizketatuen egoeraren eta lo egiteko lekua araberak. 2014
N=323

	Lota	Esnatuta			Guztira
		Leku berean egin zuten lo	Beste leku batean egin zuten lo	Guztira	
Laudio	3	0	0	0	3
Vitoria-Gasteiz	1	6	1	7	17
Irun	8	23	1	24	39
Donostia	38	23	16	39	89
Barakaldo	6	0	2	2	9
Bilbo	60	53	2	55	141
Getxo	0	7	2	9	20
Portugalete	2	0	0	0	2
Santurtzi	0	2	0	2	3
Sestao	0	0	0	0	0
Guztira	118	114	24	138	323

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

4.1.1.3. *Zenbaketako gauean kalean lo egin zutenen benetako kopurura egindako hurbilketa: emaitzak erkatzeko metodoak*

Orain arte, kaleko gaueko zenbaketan lortutako emaitzak azaltzeko orduan, talde bakoitzari esleitutako udalerrietako guneak zeharkatu bitartean zenbaketa-taldeen garatutako behaketa zuzenetik ateratako datuak bakarrik hartu dira kontuan. Edonola ere, aldeztu aurretik azaldu bezala, kaleko gaueko zenbaketarako metodologiaren berezko zenbait muga gaitzetzeko asmoz, lortutako emaitzak erkatzeko bi metodo ezarri dira. Bi metodoetako emaitzak osagarriak diren arren, ezin dira euren artean erkatu, informazio-iturri desberdinak erabiltzen dituztelako. Hori dela eta, faktore eta alborapen berezien baldintzapean daudenez, bertan lortutako emaitzak aparte hartu beharko dira kontuan.

Ondoren, erabilitako metodo bakoitza eta haien emaitzak azaltzen dira. Azkenik, informazio hori kontuan hartuta kalkulatu da urkila, eta horren inguruan mugituko da zenbaketako gauean aztergai ditugun udalerriz guztietako kaleetan edo bizitzeko aurreikusita ez dauden beste era bateko lekuetan benetan lo egin zuten bizilagunen kopurua.

a) Eguneko atentzio-zentroetan eta jantoki sozialetan egindako zenbaketa

Kalean lo egiten duten edo etxebizitza egokirik ez daukaten etxerik gabeko askok eguneko atentzio-zentroak eta jantoki sozialak erabiltzen dituzte egunez. Zentro horietan, hain zuzen ere, zenbait zerbitzu eskaintzen dira, bizilagun horien oinarrizko premiei aurre egiteko; esate baterako, elikadura edo higieena. Era berean, aisialdiko jarduerak ere eskaintzen dira bertan. Hori dela eta, zenbaketako gauean boluntarioen taldeek etxerik gabe benetan zeudenak edo etxebizitza desegokian lo egin zutenak zenbatzea zer neurritaraino lortu zuten jakin nahian, zentro horiei eskatu zitzaizkien zenbaketako gauaren osteko hurrengo egunean bertara joan zirenei galdetu ziezaietela aurreko gauean kalean edo ETHOS sailkapenean “etxerik gabe” edo “etxebizitzarik gabe” kategoria analitikoetarako zehaztutako beste lekuren batean lo egiten zuten. Erabiltzaile horiek eskakizun hori betez gero, aurreko gauean inor elkarrizketa egiteko asmoz hurbildu zitzaizkien ere galdetu zieten.

Zenbaketan parte hartu zuten eguneko zentroek, jantoki sozialek eta lanerako tailerrek aurkeztutako txostenak kontuan hartuta, zenbatu egin ahal izan da zenbat lagunek dioten kaleko taldeek elkarrizketarik egin ez dietela, nahiz eta zenbaketako gauean kalean edo etxebizitza desegokian lo egin dutela adierazi.

Guztira, honako udalerriz hauetan kokatutako 41 zentrok parte hartu zuten informazioaren bilketan: Vitoria-Gasteiz (3), Bilbo (30), Donostia (7) eta Barakaldo (1). Ikusten denez, lortutako datuek badute lehenengo mugarik, zenbaketa hori egin zuten zenbait udalerritan horrelako bizitokirik ez dagoelako. Zenbaketan parte hartu zuten udalerrietan lo egin zuten bizilagun guztiak zenbatu arren, erabili zuten zentroa beste udalerriz batean kokatuta zegoen ala ez kontuan hartu gabe, egia da bizitegi-bazterketa larrian bizi direnek zailtasun handiak dituztela udalerriz batetik bestera joateko, garraioaren kostuagatik, besteak beste. Horren ondorioz, praktikan, aurkitutako lagun gutxi lo egin dute horri buruzko informazioa eman duten eguneko zentroak dituztenak ez beste udalerriz batzuetan.

15. taula. Urriaren 30ean atentziorako eguneko zentro eta zerbitzuetan egindako kaleko zenbaketa osagarriko emaitzak. 2014

	Vitoria-Gasteiz	Bilbo	Donostia	Barakaldo	Guztira
Parte hartu duten zentroak edo zerbitzuak	3	31	7	2	42
▪ Informazio guztia eman duten zentroak	3	31	6	2	41
- Artatutako bizilagunak guztira	59	1.190	186	45	1.480
- Udalerriko kaleetan lo egin zutenak	8	185	82	8	283
+ Elkarriketa egin zitzaizen	4	44	10	0	58
+ Ez zitzaizen elkarriketa egin	4	141	72	8	225
- Errore-tasa*	50,0	76,2	87,8	100,0	79,5

*Aurkituak izan arren elkarriketarik egin ez zutenen kopuruaren eta lau udalerrietako kaleetan lo egin zutela adierazi zutenen kopuru guztiaren artean dagoen loturaren adierazgarri da.

Parte hartu zuten zentro guztietatik, bakar batek eman zuen informazio guztia. Gainerakoek, ordea, honako honexeri buruzko informazioa bidali zuten: egun horretan zentroan atenditutako erabiltzaileen kopurua, zenbaketan parte hartu zuten udalerrietakoren batean gaua eman zutenen kopurua eta, udalerrri horietakoren batean lo egin arren, zenbaketa-taldeek elkarriketatu ez zutenen kopurua guztira. Guztira, parte hartu zuten udalerrietakoren bateko kaleetan edo etxebizitza desegokian lo egin arren zenbaketako gauean elkarriketatu ez zituztela esandako 225 lagun identifikatu zituzten. Hori dela eta, errore-tasa altua izango litzateke hori, izan ere, kalean lo egin zutela adierazitako 283 lagun horietatik guztietatik, soilik 58k erantzun zitelako galde-sortari. Beraz, aurreko gauen zenbatutako lagunen zenbateko osoari (323 lagun) 225 lagun gehituz gero, zenbatekoa 548 izatera pasako litzateke, hau da, zenbaketan parte hartu zuten hamar udalerrietako kaleetan lo egin zutenen benetako kopurua gaueko zenbaketarako metodoaren bidez lortutakoa baino %69,7 handiagoa izan liteke.

Edonola ere, elkarriketatutak izan ez diren bizilagunak egon arren, oso kontuan hartu beharra dago ez duela esan nahi zenbatuak izan ez direnik, lotan zeudenean aurkitu ahal izan dituztelako eta, horren ondorioz, ez dakitelako zenbaketa-taldeek zenbatu dituztela. Dena dela, ez dago jakiterik haietatik zein zenbatu zituzten eta zein ez. Horretara hurbiltzeko, jakintzat eman beharra dago elkarriketatutak izan ez direla dioten guztiak lotan zeudela zenbaketa-taldeek zenbatu zituztenean. Hala ere, zenbaketan aurkitutako 323 lagunetatik 118 bakarrik zeuden lotan zenbaketa-taldeek ikusi zituztenean. Kasurik onenean ere, kontuan hartuz gero lau udalerrri horietan gauean lo zeudela zenbatutako lagun horiek guztiak (guztira, 105), horiek berak dira hurrengo egunean eguneko arreta zentro eta jangela sozialetan elkarriketatu gabeak izan zirela (guztira, 225), eta oraindik ere zenbatu gabeko 120 pertsona leudeke. Azken zenbaki hori gaueko zenbaketaren bidez zenbatetsitako kaleko bizilagunen kopuruaren errore-tasa kalkulatzeko erreferentzia moduan hartzen bada, oraindik ere erlatiboki nahiko altua den tasa agertuko litzateke (%42,4). Kasu horretan, kalean lo egin zuten lagunen zenbatekoa helduko litzateke 443 izatera, eta horrek haziko luke %37,2 gaueko zenbaketan zenbatutakoen datua. Nolanahi ere, emaitza horien arabera, badirudi bizitegi-bazterketa larriko egoerek biztanleen artean duten eragina gaueko zenbaketaren bidez lortutakoa baino askoz handiagoa dela.

Bilbo izan da aurreko gauean kalean lo egin arren zenbaketa-taldeek elkarriketatu ez zituzten bizilagun gehien eduki dituen udalerria. Bertan, hain zuzen ere, eguneko zentroetako 185 erabiltzailek esan zuten aurreko gauean kalean lo egin zutela; eta eurretatik 141k, zenbaketa-taldeek elkarriketatu ez zituztela. Ondoren, Donostian egon ziren horrelako kasu gehien, bertan 82 lagun aurkitu zituztelako eta eurretatik 10ek bakarrik esan zutelako aurreko gauean elkarriketa egin zutelako. Barakaldon eta Vitoria-Gasteizen, bizilagunen kopuru bera aurkitu zuten, nahiz eta Barakaldon eurretako inor ez zen elkarriketatua izan eta Vitoria-Gasteizen erdiak elkarriketatu zituzten. Udalerrri bakoitzean lortutako zenbakien errore-tasa %50 eta %100 artekoa da, eguneko atentzio-zentroetan zenbatutakoak kontuan hartuz gero; eta %23 eta %101 artekoa, zenbaketako gauean guztira aurkitutakoen arabera kalkulatu gero.

Amaitzeko, oso kontuan ere hartu beharra dago udalerrri bakoitzeko eguneko atentzio-zentroek nolako eskaintza asistentziala duten. Izan ere, eragin handia edukiko du metodo horrek zenbaketako gauean udalerrietako kaleetan lo egin zutenen benetako kopuruari buruzko datu fidagarri bezain zehatzak eskaintzeko daukan gaitasunean. Kasu honetan, Bilbo da eskaintza asistentzial handiena daukan udalerrria; eta, ondoren, Donostia, Vitoria-Gasteiz eta, azkenik, Barakaldo.

b) *Zenbaketa-taldeek bete beharreko zantzuen orriak*

Erabilitako bigarren metodoan, zenbaketa-taldeek zantzuen orriak bete behar izan zituzten. Bertan, hain zuzen ere, taldekideek fitxak bete behar izan zituzten, euren ibilbideko lekuren batean norbait lotan zegoen zantzuak ikusi zituzten guztietan (zoruko kartoiak, ondasunak, tapakiak, janari-hondakinak...) edo hirugarrenek antzeko zerbait esan zietenean (beste etxerik gabeko batzuk, inguruko auzokideak edo langileak...).

Zenbaketako gauean, gaueko zenbaketan parte izandako 10 udalerrietatik 8 udalerrietako zantzuen 114 orri bildu ziren¹², eta eurretatik, 100 onartu dira, eta 14 ezetsi dira, aipamenak oso lausoak izan direlako edo informazioa behar bezala sailkatzeko beharrezkoa den informazioa eskaini ez dutelako. Orri horietan aipatutakoaren arabera, zenbaketako gauean guztira 198 lagun gehiago zeuden udalerrri parte-hartzaileetako kaleetan lo egiten, eta horrek haziko luke %61,3 gaueko zenbaketa bitartez zenbatutako pertsonen zenbatekoa. Horrelako hamar lagunetatik hiru Bilbon zenbatu zituzten (%29,8); eta hamarretik bi baino gehixeago, Donostian (%21,2). Bestetik, zantzuen orrien bitartez identifikatutako bizilagun gehien zenbatu zituen hirugarren lekua izan zen Portugalete (%11,2).

16. taula. 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean jasotako zantzuen orrietan oinarrituta egindako kaleko zenbaketa osagarriko emaitzak

	Jasotako orriak	Onartutako orriak	Ezetsitako orriak	Aipatutako kopurua	
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	% bertikala
Barakaldo	10	10	0	16	8,1
Bilbo	35	32	3	59	29,8
Donostia	21	18	3	42	21,2
Getxo	11	10	1	13	6,6
Irun	9	7	2	18	9,1
Portugalete	8	5	3	23	11,6
Santurtzi	6	6	0	10	5,1
Vitoria-Gasteiz	14	12	2	17	8,6
Guztira	114	100	14	198	100,0

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Informazio-iturriari dagokienez, kalkulaturako zantzuen hamar kasuetatik sei (%61,1) zenbaketa egin zuten boluntarioen taldeen behaketa zuzenaren zantzuen ondorioa izan ziren. Lau kasuetatik batean baino gehixeagotan (%27,3), ordea, inguruko auzokideak edo langileak izan ziren erabilitako iturria, udalerriko zenbait lekutan lo egiten zuten bizilagunak ohikoak zirela adierazi zuten-eta. Azkenik, hamar kasuetatik batean (%11,6), beste etxerik gabeko batzuek esan zieten zenbaketa egin zutenei inguruan beste bizilagun batzuk ere bazeudela bizitegi-bazterketa larrian.

¹² Laudion ez zen nabarmendu inolako zantzurik.

17. taula. 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean jasotako zantzuen orrietan oinarrituta egindako kaleko zenbaketa osagarriko emaitzak, informazio iturriaren arabera

	Behaketa zuzena	Auzokideak	Beste etxerik gabeko bat	Guztira
Barakaldo	5	11	0	16
Bilbo	31	15	13	59
Donostia	32	9	1	42
Getxo	13	0	0	13
Irun	3	6	9	18
Portugalete	23	0	0	23
Santurtzi	2	8	0	10
Vitoria-Gasteiz	12	5	0	17
Guztira	121	54	23	198
Guztira (%)	61,1	27,3	11,6	100,0

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Zantzuen orrien bidez identifikatutakoek lo egiteko erabilitako lekuari dagokionez, %44,4 kalean ari ziren lo egiten, eta aurkitutakoen herenak baino gehixeago (%34,8) zenbaketa-taldeentzat helezinak ziren kokalekuetan zeuden; esate baterako, bertan behera utzitako etxean edo eraikinean (%11,1), ibilgailuan (%13,6) edo txabolan (%10,1).

18. taula. 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean jasotako zantzuen orrietan identifikatutakoek lo egiteko erabilitako lekua

	Vitoria-Gasteiz	Bilbo	Donostia	Beste udalerririk gabeko batzuk	Guztira	
					Kop.	%
Kalean/plazan	6	25	28	29	88	44,4
Parkean	2	6	1	2	11	5,6
Azpiegituren barruan/inguruan	2	10	2	1	15	7,6
Bertan behera utzitako etxean edo eraikinean	0	0	6	16	22	11,1
Ibilgailuan	5	3	3	16	27	13,6
Bizitzeko aurreikusita ez dagoen lekuan	0	5	0	4	9	4,5
Kutzazainean	0	4	0	1	5	2,5
Txabolan	1	6	2	11	20	10,1
Daturik Gabe	1	0	0	0	1	0,5
Guztira	17	59	42	80	198	100,0

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

c) *Zenbaketako gauean udalerrietako kaleetan lo egin zutenen benetako kopuruaren zenbatespena*

Erkapenerako erabilitako bi metodoetako batek ere ez du ematen zenbaketan parte hartu zuten udalerrietako kaleetan lo egin zutenen benetako kopuruaren emaitza zehatzak edo estatistikari begira adierazgarriak diren hurbilketak lortzeko aukerarik. Dena dela, haiei esker, badago kaleko gaueko zenbaketarako metodologia bera ebaluatzerik eta udalerririk gabeko etxegabetasunaren irismena zenbaketaren bidez lortutako emaitzetan azalduko baina handiagoa izan daitekeen jakiterik.

19. taulan, udalerrri bakoitzean identifikatutako kopurua agertzen da, baita eta erkapenerako erabilitako metodo bakoitzaren arabera zenbatetsitakoa ere. Horrez gain, urkila bera ere azaltzen da, eta horren inguruan mugituko da aztergai ditugun udalerrri guztietako kaleetan edo etxebizitza desegokietan benetan dauden bizilagunen kopurua, emaitzak erkatzeko ezarritako metodoak kontuan hartuta.

19. taula. 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean eguneko zentroetan eta zantzuen orrietan jasotako informazioan oinarrituta egindako kaleko zenbaketaren emaitzak

	Behatuak		Onartutakoak		Guztira	
	1. Aurkitutakoak		2. Eguneko zentroen metodoa	3. Zantzuen metodoa	4. Marjina	
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Δ (%)	
Barakaldo	9	8	16	9-25	178	
Bilbo	141	141	59	141-282	100	
Donostia	89	72	42	89-161	81	
Getxo	20	--	13	20-33	65	
Irun	39	--	18	39-57	46	
Laudio	3	--	0	3-3	0	
Portugalete	2	--	23	2-25	1.150	
Santurtzi	3	--	10	3-13	333	
Sestao	0	--	0	0-0	--	
Vitoria-Gasteiz	17	4	17	17-34	100	
Guztira	323	225	198	323-633	96	

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Lortutako emaitzek nabarmentzen dutenez, ia-ia bikoiztu egin omen daiteke gaueko zenbaketaren metodologiaren emaitzak erabilitako kontrasterako bi metodoak erabiliz. Emaitzak horiek nabarmentzen dutenez, 323 pertsonetako zenbateko horri gehituz daude ustez kalean lo egin baina zenbatu gabeko beste 310 lagun, eta horren ondorioz emaitza helduko litzateke 633¹³ lagun izatera partaide izandako 10 udalerrietarako.

Lortutako emaitzen arabera, termino absolutuetan, Bilbo da etxegabetasun-egoeren gehikuntza handiena eduki duen udalerrria, zenbaketako gauean 282 lagunek ere lo egin ahal izango zutelako udalerrri horretako leku publikoetan edo etxebizitza desegokietan, hau da, zenbaketan aurkitutakoak baino 141 lagun gehiago. Gehikuntza hori handia ere bada Donostiako hirian, zenbaketarako metodologiaren bidez zenbatetsitakoak baino 72 bizilagun gehiago egongo zirelako, hau da, %80,9 gehiago. Neurri absolutuetan, udalerrietako kaleetan lo egiten dutenen kopuruaren gehikuntza askoz txikiagoa da zenbaketan parte hartu duten gainerako udalerrri guztietan, eta zenbateko horrek aldeak izan zitzaizkeen Portugaleteko udalerrian lo egiterik izan zuten 23 lagun gehiagotatik, Santurtziko udalerrian lo egiterik izan zuten 10 lagun gehiagotara. Neurri erlatibo batean, hasierako zenbateko hori gehien hazten dela nabarmentzen den udalerririk dira Portugalete, ia 13 aldiz biderkatzen da zenbateko hori, Santurtzi, lau aldiz bidertzen da, eta hirukoiztu egiten da Barakaldon.

¹³ Zenbateko hori lortzeko gehitzen dira gaueko metodologia horren bidez udalerrri bakoitzean zenbatutako pertsonak eta kontrastearen metodoetan bi zenbakietatik altuena.

4.1.1.4. Beste hiriekiko konparazioa

Aipatutako hamar euskal udalerriez gain, oraintsu Estatuko beste hiri batzuetan ere burutu izan dituzte etxegabekoen gaueko zenbaketaren metodologia horretan oinarritutako ikerketak. Ondorengo taulan azaltzen da eskuragarri dagoen azkeneko zenbaketaren inguruko informazioa Bartzelona, Madril, Zaragoza eta Sevillako hiriburuetan eta hiru euskal hiriburuetan. Hautaturiko zapi hiriburu horietatik, Bartzelona da egungo tasarik altuena duena (0,557 lagun mila biztanleko). Horren atzetik datoz Donostia (0,478), Bilbo eta Sevilla, biek ere agertzen dute 0,407 etxegabekoen tasa berbera mila biztanleren arabera. Aitzitik, Madrilen (0,241) eta Zaragozan (0,209) tasa hori askoz ere apalagoa da, eta 0,2 ingurukoa da. Vitoria-Gasteiz hirian jaso da aztertutako hiriburu horien artean tasarik baxuena duena, eta bere tasa hori da 0,070 etxegabe dauden pertsonena mila biztanleko.


20. taula. Zenbait hiritako gaueko zenbaketetan kalean aurkitutako bizilagunen kopurua eta mila biztanleko tasa. 2014

	Kalean aurkitutako pertsona kopurua	Biztanleria guztira	Kalean aurkitutako pertsona-tasa 1.000 biztanleko
Bartzelona (2014)	892	1.602.386	0,557
Donostia (2014)	89	186.126	0,478
Sevilla (2013)	97	238.353*	0,407
Bilbo (2014)	141	346.574	0,407
Madril (2014)	764	3.165.235	0,241
Zaragoza (2014)	139	666.058	0,209
Vitoria-Gasteiz (2014)	17	242.082	0,070

*Sevilla hiriko zenbaketa erdiguneko zonaldeetara mugatzen denez, Erdigune Historiko, Macarena, Triana eta Nerbioi barrutietako biztanleria datuak erabili dira.

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. Madrilgo Hiriko Etxerik Gabekoen Zenbaketa. 2014ko otsailaren 26a; Zaragozako Etxerik Gabekoen Zenbaketa. 2014ko azaroaren 27a; Nessun Dorma txostena, Sevillako Hiriko Etxerik Gabekoen Zenbaketa (2013). EIN. Errolda Etengabeko Estatistika. Urte bakoitzeko urtarrilaren 1eko datuak.

4. grafikoa. Zenbait hiritako gaueko zenbaketetan kalean aurkitutako bizilagunen mila biztanleko tasa. 2014



Iturriak: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. Madrilgo Hiriko Etxerik Gabekoen Zenbaketa. 2014ko otsailaren 26a; Zaragozako Etxerik Gabekoen Zenbaketa. 2014ko azaroaren 27a; Nessun Dorma txostena, Sevillako Hiriko Etxerik Gabekoen Zenbaketa (2013). EIN. Errolda Etengabeko Estatistika. Urte bakoitzeko urtarrilaren 1eko datuak.


4.1.2. Zentro eta bizitokietan egindako gaueko zenbaketako emaitzak

4.1.2.1. Aurkitutako pertsonen banaketa geografikoa eta ezaugarriak

Azterlan honetan kontuan hartutako Udal, Foru Aldundi eta erakunde sozialek kudeatzen dituzten bizitokia duten 253 baliabide horien inguruko datuek erakusten dute 2014ko urriaren 29-30eko gau hartan ostatu hartu zutela bertan 1.513 lagunek, Oro har hartuz, datu horiek eskaintzen dute baliabideko 6 pertsonetako media eta %72,5eko okupazio-tasa bat.

Kontu hartuz gero zenbaketako gaueko 1.513 lagun horien banaketa geografikoari, EAeko etxerik gabekoentzako zentro eta bizitokietan 1.513 lagun zeuden guztira. Hamar lagunetatik lau Bilboko hiriko bizitokietan zeuden (595 lagun, %39,3); lautik bat, Donostiako zentroetan (350 lagun, %23,1); eta %18,3, Vitoria-Gasteizen (277 lagun). Hau da, hamar etxerik gabekotatik zortzik EAeko Hiru Lurralde Historikoetako hiriburuetakoko bizitokietan lo egin zuten (%80,7); eta hamarretik bik bakarrik, Gipuzkoako (157 lagun, %10,4) edo Bizkaiko (134 lagun, %8,9) beste udalerrri batzuetan kokatutako zentroetan. Araban etxegabeko pertsonen bizitokia eskaintzen dieten baliabideen kasuan, horiek guztiak lekutzen dira Vitoria-Gasteizen.

5. grafikoa. EAeko etxerik gabekoentzako zentro eta bizitokietan zeuden kopurua, bizitokiaren kokapenaren arabera. 2014
N=1.513



Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Bizitokietako okupazio-tasari dagokionez, Bizkaian dauden zentroak dira okupazio handiena dutenak, zenbaketako gauean hamar lekutatik zazpi baino gehiago zeudelako okupatuta, Bilbon (%77,6) nahiz lurraldeko gainerako udalerrietan (%76,1). Era berean, Donostiako (%73,5) eta Gipuzkoako beste udalerrri batzuetako (%72,4) bizitokietako okupazio-tasa ere izan zen antzekoa, Bizkaikoa baino txikixeagoa izan arren. Vitoria-Gasteizko bizitokietako okupazio-tasa, ordea, txikiena izan zen (%61,6), zenbaketako gauean hamar lekutatik sei baino gehixeago zeudelako okupatuta.

21. taula. 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean etxerik gabeko zentro eta bizitokietan zeudenen kopurua, Lurralde Historikoaren arabera

	Araba		Bizkaia			Gipuzkoa			EAE
	Vitoria-Gasteiz	Guztira	Bilbo	Bizkaiaren gaineratikoa	Guztira	Donostia	Gipuzkoaren gaineratikoa	Guztira	
Zentro parte-hartzaileak	48	48	97	32	129	50	26	76	253
Eskaintako lekuak	450	450	767	176	943	476	217	693	2.086
Eskaintako lekuak (%)	21,6	21,6	36,8	8,4	45,2	22,8	10,4	33,2	100,0
Bizitokiko erabiltzaileak	277	277	595	134	729	350	157	507	1.513
Bizitokiko erabiltzaileak (%)	18,3	18,3	39,3	8,9	48,2	23,1	10,4	33,5	100,0
Zentro bakoitzeko erabiltzaile kopurua	5,8	5,8	6,1	4,2	5,7	7,0	6,0	6,7	6,0
Okupazio-tasa (%)	61,6	61,6	77,6	76,1	77,3	73,5	72,4	73,2	72,5

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Bizitokietako erabiltzaileen ezaugarri soziodemografikoei dagokienez, lautik hiru baino gehixeago gizonak dira (%76,1); eta lautik ia-ia bat, emakumea (%23,9). Bizitoki eta zentroetan dauden emakumeen ehunekoak kalean aurkitutako emakumeen proportzioa bikoizten du, aurkitutako bizilagunen %12,4 baino ez direlako izan emakumeak. Horrez gain, badago lurraldeen arabera alde handirik. Emakumeek bizitokietako erabiltzaile guztien gainean daukaten proportzioa honako hauexen arteko mailan mugitzen da: %13,4, Bilbo ez diren Bizkaiko udalerrietan kokatutako bizitokietan; eta %32,5, Vitoria-Gasteizko zentroetan.

22. taula. 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean bizitokietan zeudenen sexua, bizitokiaren kokapenaren arabera

N=1.513

		Kopurua			Banaketa horizontala (%)		
		Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Araba	Vitoria-Gasteiz	187	90	277	67,5	32,5	100,0
	Guztira	187	90	277	67,5	32,5	100,0
Bizkaia	Bilbo	467	128	595	78,5	21,5	100,0
	Bizkaiaren gaineratikoa	116	18	134	86,6	13,4	100,0
	Guztira	957	326	1283	80,0	20,0	100,0
Gipuzkoa	Donostia	258	92	350	73,7	26,3	100,0
	Gipuzkoaren gaineratikoa	123	34	157	78,3	21,7	100,0
	Guztira	2295	778	3073	75,1	24,9	100,0
EAE	Guztira	1.151	362	1.513	76,1	23,9	100,0

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Bizitokietan lo egin zutenen %7,3 bakarrik dira adingabeak. Araba da erabiltzaile adingabeen ehuneko handiena daukan lurralde historikoa (%16,6), jarraian Gipuzkoa (%7,7) eta Bizkaia (%3,6). Vitoria-Gasteizen kasua deigarria da, hiri honek kontatutako 111 adingabekoetatik 46 hartu baitzituen (%41,1), nahiz eta hiri honek EAEko zentro eta ostatudun zerbitzuetan aurkitutako pertsonen %18,3ari besterik ez zion ostatu eman. Kontrako aldean dago Bilbo hiria, bertan pasa zutelako gaua zentro eta ostatudun zerbitzuetan aurkitutako adingabeen %18ak, EAEko zentro eta ostatudun zerbitzuetan aurkitutako pertsonen %40a ostatuan hartu arren.

23. taula. 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean bizitokietan zeudenen adina, bizitokiaren kokapenaren arabera
N=1.513


		Kopurua			Banaketa horizontala (%)		
		<18 urte	≥18 urte	Guztira	<18 urte	≥18 urte	Guztira
Araba	Vitoria-Gasteiz	46	231	277	16,6	83,4	100,0
	Guztira	46	231	277	16,6	83,4	100,0
Bizkaia	Bilbo	20	575	595	3,4	96,6	100,0
	Bizkaiaren gaineratikoa	6	128	134	4,5	95,5	100,0
	Guztira	118	1165	1283	3,6	96,4	100,0
Gipuzkoa	Donostia	27	323	350	7,7	92,3	100,0
	Gipuzkoaren gaineratikoa	12	145	157	7,6	92,4	100,0
	Guztira	275	2798	3073	7,7	92,3	100,0
EAE	Guztira	111	1.402	1.513	7,3	92,7	100,0

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

4.1.2.2. Bizitoki-mota

Atal honetan, aztertu egingo da nola banatzen diren bizitegi-bazterketa larrian dauden bizilagunak eskuragarri dauden era guztietako bizitokietan. Horretarako, bizitokiak zer lurralde historikotan dauden hartuko da kontuan, baita bertako erabiltzaileen ezaugarri soziodemografikoak nolakoak diren ere. Bizitoki guztiak ETHOS tipologiaren arabera sailkatu dira (ikusi 2. taula.), azterketarako kategoriak euren artean homologatzeko eta EAEko lurralde historikoetako egoera eratzeko.

6. grafikoa. 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean bizitegi-bazterketa larrian daudenez zentro eta bizitokietan izandako banaketa, bizitoki-motaren arabera
N=1.513



Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Zenbaketako gauean zentro eta bizitokietan lo egin zuten 1.513 lagunetatik, ia-ia erdiek babespeko bizitokietan lo egin zuten (724 lagun, guztizkoaren %47,9). Hori dela eta, bizitoki-mota erabiliena

izan da. Ondoren, gaueko aterpetxe edo babeslekuak daude, bertan 225 lagunek lo egin zutelako (%14,9), baita epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak ere, 197 lagunengatik bizilekua dira-eta (guztizkoaren %13). Hamar lagunetatik batek aterpetxe eta bizitokietan lo egin zuen (165 lagun, guztizkoaren %10,9); eta, bizitoki gainerako tipologietan, aurkitutakoak %15ek baino gutxiagok.

Zenbaketako gauean gehien erabilitako bizitokiei dagokienez, hau da, okupazio-tasa handiena eduki zuten zentroei dagokienez, lehenengo hamarrak eskakizun urriko eta egonaldi laburreko zentroak direla esan beharra dago: gaueko sei aterpetxe eta babesleku (ETHOS 2.1. kodea) –hiru, Bilbon; bi, Donostian; eta bat, Vitoria-Gasteizen–, hiru aterpetxe eta bizitoki (3.1. kodea) –bat, EAEko hiriburuko bakoitzean– eta Gasteizen kokatzen den sostengua eskaintzen duen bizitoki bat (3.3. kodea). Hamar baliabide horiek batera hartuta, ostatu eman zioten EAEko lau etxebizitzak bati zenbaketaren gau hartan (%24,1), beraz, gau hartan toki horietan lo egin zuten 364 lagunek.

24. taula. 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean okupazio handiena eduki zuten hamar bizitokietako erabiltzaileen ezaugarriak eta kopurua.

Zentroen izena	ETHOS kodea	Udalerrria	Erabiltzaileak	Erabiltzaileen %	Lekuen kopurua	Okupazio-tasa (%)
Elejabarriko Udal Aterpetxea	3.1.	Bilbo	66	4,4	71	93,0
Harrera Sozialerako Udal Zentroa (CMAS)	3.1.	Donostia	40	2,6	40	100,0
Harrera Sozialerako Udal Zentroa (CMAS)	3.1.	Vitoria-Gasteiz	38	2,5	67	56,7
Gaueko Herrerarako Udal Zerbitzua	2.1.	Bilbo	36	2,4	50	72,0
Hotzaldi	2.1.	Donostia	36	2,4	40	90,0
Zubi Garaiko Harrera Zentroa (Bultzain)	3.3.	Vitoria-Gasteiz	36	2,4	38	94,7
Gaueko Aterpea	2.1.	Donostia	30	2,0	40	75,0
Lagun Artean Gaueko Zentroa	2.1.	Bilbo	29	1,9	32	90,6
Eskakizun Urriko Udal Aterpetxea	2.1.	Bilbo	28	1,9	32	87,5
Aterpe Gaueko Zentroa	2.1.	Vitoria-Gasteiz	25	1,7	32	78,1
Guztira			364	24,1	442	83,8

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Bizitokietako erabiltzaileen banaketari buruzko datuak lurralde historikoaren arabera aztertzean, alde handiak agertzen dira. Esate baterako, Bizkaian (132 lagun, %18,1) epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzetan dauden bizilagunen ehunekoak Gipuzkoakoa (46 lagun, %9,1) bikoiztu eta Arabakoa (19 lagun, %6,9) hirukoizten du. Bestetik, babespeko bizitokia lurralde historiko guztietako erabiliena bada ere (3.3 kodea), badago erabileraren arloko alderik. Gipuzkoan, etxerik gabekoen erdiek baino gehiagok lo egin zuten horrelako zentroetan zenbaketako gauean (%53,1), Arabako %40,1en eta Bizkaiko %47,2ren aldean. Aldi baterako artean, bizitoki-mota hori erabiltzaileei nolabaiteko intimitatea eskaintzen dien bakarra dela kontuan hartuta, antzemandako aldeak handiak dira oso, emandako zerbitzuen kalitatean daukatelako eragina.

Aipatu ere egin beharra dago Gipuzkoan ez dagoela etorkinentzako aldi baterako harrera-zentrorik edo bizitokirik. Araban, ordea, etxerik gabekoen %10,8k lo egin zuten horrelako zentroetan zenbaketako gauean; eta, Bizkaian, %5,2k. Azkenik, nabarmendu ere egin behar da emakumeentzako aterpetxeetako erabiltzaileen ehuneko handiagoa dela Araban (%9,7) Gipuzkoan (%3) edo Bizkaian baino (%3,2).

25. taula. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen banaketa, 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean lo egiteko erabilitako bizitoki-motaren eta lurralde historikoaren arabera

N=1.513

	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
2.1. Gaueko aterpetxea edo babeslekua	25	9,0	79	15,6	121	16,6	225	14,9
3.1. Aterpetxea eta bizitokiak	45	16,2	54	10,7	66	9,1	165	10,9
3.2. Aldi baterako eta iragaitzako bizitokiak	20	7,2	44	8,7	5	0,7	69	4,6
3.3. Babespeko bizitokiak	111	40,1	269	53,1	344	47,2	724	47,9
4.1. Emakumeentzako aterpetxeak	27	9,7	15	3,0	23	3,2	65	4,3
5.1. Aldi baterako bizitokiak/harrera-zentroak	30	10,8	0	0,0	38	5,2	68	4,5
7.2. Epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak	19	6,9	46	9,1	132	18,1	197	13,0
Guztira	277	100,0	507	100,0	729	100,0	1.513	100,0

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Datu horiek ebaluatzeko orduan, oso kontuan ere hartu beharra dago zenbat leku dauden eskuragarri lurralde historiko bakoitzean, baita leku bakoitzari nolako bizitokia dagokion ere, lurralde bakoitzean eskuragarri dagoen eskaintzak eskaria egituratuko duelako neurri batean. Hain zuzen ere, lurralde bakoitzean eskuragarri dauden lekuen zuzkidura erkatzen denean, egiaztatu egiten da etxerik gabekoek bizitoki-motaren arabera daukaten banaketan antzemandako aldeak hiru lurraldeetan eskaintako leku-motetan dauden aldeetan islatzen direla. Araban, esaterako, babespeko bizitokietako lekuen ehunekoa (%38,9) Bizkaikoa (%48,5) edo Gipuzkoakoa (%48,1) baino hamar puntu txikiagoa da. Alde horiek epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzetan ere antzematen dira, baita emakumeentzako aterpetxeetako lekuetan ere.

26. taula. Etxerik gabekoentzako zentro eta bizitokietan eskuragarri dauden lekuen banaketa, 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean lo egiteko erabilitako bizitoki-motaren eta lurralde historikoaren arabera.

	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		Guztira	
	N	%	N	%	N	%	N	%
2.1. Gaueko aterpetxea edo babeslekua	32	7,1	100	14,4	142	15,1	274	13,1
3.1. Aterpetxea eta bizitokiak	79	17,6	79	11,4	71	7,5	229	11,0
3.2. Aldi baterako eta iragaitzako bizitokiak	41	9,1	81	11,7	7	0,7	129	6,2
3.3. Babespeko bizitokiak	175	38,9	333	48,1	457	48,5	965	46,3
4.1. Emakumeentzako aterpetxeak	61	13,6	38	5,5	69	7,3	168	8,1
5.1. Aldi baterako bizitokiak/harrera-zentroak	34	7,6	0	0,0	41	4,3	75	3,6
7.2. Epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak	28	6,2	62	8,9	156	16,5	246	11,8
Guztira	450	100,0	693	100,0	943	100,0	2.086	100,0

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

4.2. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen sailkapena, ETHOS tipologiaren arabera

Kalean eta era guztietako bizitokietan lo egiten aurkitutakoen kopurua aztertu ondoren, atal honetan jorratuko da bizitegi-bazterketa larrian dauden bizilagunak azterketa honetan kontuan hartutako ETHOS tipologian zehaztutako etxegabetasun-egoeren arabera nola dauden banatuta. Ondoren agertzen diren datuetan, udalerrietako kaleetan egindako zenbaketan aurkitutako bizilagunak hartzen dira kontuan, baita zenbaketako gauean bizitoki eta zentroetan zeuden bizilagunak ere.

- Bizitegi-bazterketa larrian daudenen laurdenak etxerik gabekoak dira (%24,7, 454 lagun), hau da, ez dute ohiko bizilekurik, ezta epealdi laburrerako ere. Honako bizilagun hauek egongo dira talde horretan: kalean edo azpiegitura publikoetan eta gizakien bizilekua izateko diseinatu ez diren lekuetan daudenak eta gaueko aterpea bakarrik eskaintzen duten aldi baterako aterpetxeetan eta harrera-zentroetan lo egiten dutenak. Eurretatik guztietatik lo egin zuen erdiak baino gehixeagok eremu publikoetan edo kanpoko guneeetan (guztizkoaren %12,5, 229 lagun), hau da, hiri zein inguruetakoa kaleetan, plazetan, parkeetan, hondartzetan eta mendietan (%6,9, 127 lagun) edo azpiegiturretan, eraikin publiko edo pribatuetan, kutxazainetan eta saltegietan (%5,6, 102 lagun). Gaueko babesleku eta aterpetxeetan, EAEko hamar etxerik gabekotatik batek baino gehiagok lo egiten du (%12,3). Hori dela eta, zenbaketako gauean 225 lagun aurkitu zituzten horrelako bizitokietan.
- Zenbatutako hamar bizilagunetatik zazpik (%70,2) badute etxea eskuratzeko aukerarik, baina ez daukate etxebizitzarik. Gehienak ETHOS tipologiako 3. kategoria eragilean zehaztutako bizitegi-egoeretan daude, hau da, etxerik gabekoentzako aterpetxe eta zentroetan aldi baterako bizi diren pertsonak dira. Azterketa honetan zenbatutako bizilagun guztien %52,2 daude egoera horretan. Gehienak babespeko bizitokietan daude (etxerik gabeko guztien %39,4). %7,2 (133 lagun), ordea, etxerik gabekoen talde berezientzako bizitokietan daude, hau da, emakume zein etorkinentzako zentroetan. Genero-indarkeriako emakume biktimientzako aterpetxeetan, 65 lagun daude (guztizkoaren %3,5); eta, etorkinentzako harrera-zentroetan, 68 lagun (guztizkoaren %3,7). Azkenik, hamar lagunetatik bat epe luzerako bizitokietan bizi dira. Hain zuzen ere, 197 lagun aurkitu zituzten epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzetan (guztizkoaren %10,7).
- “Etxebizitza desegokia” kategoria kontzeptualean zehaztutako bizitokiren batean dauden bizilagunei dagokienez, oso kontuan hartu beharra dago azterketa honen hasierako helburuengatik eta landa-lanean erabilitako metodologiagatik ez dagoela etxegabetasun-mota horri buruzko informazioa behar bezala biltzerik. Izan ere, etxegabetasunaren fenomenoak modu zabalagoan aztertzea erabaki izan bagenu (ETHOS sailkapeneko kategoria guztiak kontuan hartuta), etxebizitza desegokietan bizi direnek EAEko etxerik gabeko guztien gainean daukaten pisu erlatiboa lortutako emaitzetan azalduko baina handiagoa izango zen. Dena dela, zenbaketan aurkitutako etxerik gabekoen %4,8 zeuden ETHOS tipologiako 11. kategoria eragilean zehaztutako bizitegi-egoeretan. Hain zuzen ere, honako leku hauetan bizi ziren: karabanak eta antzekoak (12 lagun, %0,7); ezohiko eraikinak eta bizileku moduan diseinatu ez diren eraikinak (33 lagun, %1,8) eta aldi baterako egiturak (10 lagun, %0,5). Azterketa honetan parte hartu duten udalerrietako kaleetan egindako zenbaketan aurkitutako 323 bizilagunetatik, 88 zeuden egoera horretan.

27. taula. 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean bizitegi-bazterketa larrian kalean eta bizitokietan aurkitutakoen banaketa, bizitoki-mota eta lurralde historikoaren arabera N=1.836

	Kategoria eragilea	Bizitegi-egoera	Azterketako azalpena	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
				Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
ETXERIK GABE	1 Eremu publikoan bizi direnak (atari zabalean)	1.1 Kanpoko eremu publikoa	Kalea, plaza, parkea, hondartza eta mendia	8	2,7	67	7,4	52	8,2	127	6,9
			Beste kokaleku batzuk (azpiegituren edo eraikinen barruan edo inguruan, kutxazainetan edo merkataritza-zentroetan)	6	2,0	61	6,7	35	5,5	102	5,6
	2 Gaueko babeslekuan lo egiten dutenak edota egunean zenbait ordu eremu publikoan eman behar dituztenak	2.1 Gaueko aterpetxea edo babeslekua	Ohiko bizilekurik ez dutenez, oso eskakizun urriko bizitokiak edo aterpetxeak erabiltzen dituztenak	25	8,4	121	13,4	79	12,4	225	12,3
	<i>Guztira</i>			39	13,1	249	27,5	166	26,1	454	24,7
ETXEBIZITZARIK GABE	3 Etxerik gabekoentzako aterpetxe eta zentroetan / aldi baterako bizitokietan bizi direnak	3.1 Aterpetxeak eta bizitokiak	Egonaldia epe labur edo ertainerako eta aldi baterako denean eta behin betiko bizilekua ez denean	45	15,2	66	7,3	54	8,5	165	9,0
Gaueko zenbaketan lortutako emaitzen inguruko laugarren atal hau burutzeko, banaketaren eta erabileraren egoera nagusia zein den azalduko dugu atal honetan, azterlan honetan parte hartu duten 253 zentroen azterketa kontuan hartuta.

40. taula. Zentro parte-hartzaileak, eskainitako lekuen kopurua eta 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean bizitokian zeudenen kopurua.

	Araba		Bizkaia			Gipuzkoa			EAE
	Vitoria-Gasteiz	Guztira	Bilbo	Bizkaiaren gaineratikoa	Guztira	Donostia	Gipuzkoaren gaineratikoa	Guztira	
Zentro parte-hartzaileak	48	48	97	32	129	50	26	76	253
Lekuen kopurua	450	450	767	176	943	476	217	693	2.086
- Publikoak edo hitzartuak	380	380	536	145	681	377	196	573	1.634
- Pribatuak	70	70	231	31	262	99	21	120	452
Erabiltzaileak	277	277	595	134	729	350	157	507	1.513

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Atal honetako 4.1.2.2. azpiatalean aipatu den moduan, 2014ko urriaren 29-30eko gauean 1.513 lagun hartu zituzten azterlan honetan partaide izandako 253 zentro eta zerbitzuetan. Zentro horietako bakoitzak eskainitako informazioaren arabera, eskainitako leku horiek 2.086 izan ziren guztira, eta batez besteko okupazioaren tasa hori izan zen %72,5ekoa. Modu zabal batean hartuta, eskainitako lekuen kopurua da 1.000 biztanleren arabera, 0,953 lekukoa. Halaber, bildutako informazio hori oinarri hartuz, aipatu daiteke eskainitako leku horietatik guztietatik %78,3 (1.634 leku) plaza publiko edo hitzartutakoak direla, eta gainontzeko %21,7 pribatuak direla (452 leku).

41. taula. 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean zeuden lekuen estaldura eta banaketa, okupazio-tasa eta zentro parte-hartzaileen batez besteko tamaina, lurralde historikoaren arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
10.000 biztanleko zentro kopurua	1,491	1,120	1,063	1,156
1.000 biztanleko lekuen kopurua	1,398	0,819	0,969	0,953
- Publikoak edo hitzartuak	1,180	0,591	0,801	0,746
- Pribatuak	0,217	0,227	0,168	0,206
Lekuen kopurua (% bertikala)	100,0	100,0	100,0	100,0
- Publikoak edo hitzartuak	84,4	72,2	82,7	78,3
- Pribatuak	15,6	27,8	17,3	21,7
Lekuen kopurua (% horizontala)	21,6	45,2	33,2	100,0
- Publikoak edo hitzartuak	23,3	41,7	35,1	100,0
- Pribatuak	15,5	58,0	26,5	100,0
Okupazio-tasa	61,6	77,3	73,2	72,5
Plazen batez besteko kopurua zentroko	9,38	7,31	9,12	8,25

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Zentroetako banaketa geografikoari dagokionez, ondorio nagusi gisara nabarmendu behar da hiriburuetan pilatzen direla baliabide horiek. EAEko datu globalak kontuan hartuz gero, azterlan honetan kontuan hartutako zentro horietatik guztietatik %77,1 kokatzen dira hiru euskal hiriburuetan. Zehazki, Arabako kasuan baliabide horietatik %100 daude bere hiriburua den Vitoria-Gasteizen. Bizkaiko eta Gipuzkoako hiriburuetako kontzentrazioaren tasa horiek dira %75,2 eta %65,8, hurrenez hurren. Zentro horien inguruan nabarmendutako pilaketa horren ondorioz, zentroen dentsitatea hori –hau da, 10.000 biztanleren arabera lurralde zehatz batean dauden zentroen zenbatekoa– bereziki altua da hiriburuetan. Vitoria-Gasteiz, Bilbo eta Donostiaz gain,

bertan identifikatu dira edonolakoak diren zentroak EAEko 22 udalerrietan. Horietatik guztietatik 12 daude Gipuzkoan eta 10 Bizkaian.

42. taula. 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean bizitegi-bazterketa larrian zeudenentzako zentrozen kopurua eta 10.000 biztanleko estaldura-tasa, kokapen geografikoaren arabera.

		Zentrozen kopurua	Banaketa bertikala (% azpitotala)	Banaketa bertikala (% totala)	10.000 biztanleko tasa	Udallerri kopurua	Biztanleria guztira
Araba	Vitoria-Gasteiz	48	100,0	19,0	1,983	1	242.082
	Arabaren gaineratikoa	0	0,0	0,0	0,000	0	79.850
	Guztira	48	100,0	19,0	1,491	1	321.932
Bizkaia	Bilbo	97	75,2	38,3	2,799	1	346.574
	Bizkaiaaren gaineratikoa	32	24,8	12,6	0,397	10	805.331
	Guztira	129	100,0	51,0	1,120	11	1.151.905
Gipuzkoa	Donostia	50	65,8	19,8	2,686	1	186.126
	Gipuzkoaren gaineratikoa	26	34,2	10,3	0,491	12	529.022
	Total	76	100,0	30,0	1,063	13	715.148
EAE	Hiriburuak	195	77,1	77,1	2,517	3	774.782
	Gainerako udalerrak	58	22,9	22,9	0,410	22	1.414.203
	Guztira	253	100,0	100,0	1,156	25	2.188.985

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Bizitoki-motari dagokionez, nabarmentzen da EAE osoan (ikus 43. taula) hamar zentrotik sei babespeko bizitoki gisara sailkatu daitezkeela (3,3 kodea), horrelako bizitokietan dauden leku guztien %46,26 bakarrik eskaintzen badute ere, hau da, 965 leku. Zentro horien batez besteko tamaina 6,3 lekukoa da. Nolanahi ere, lurralde guztietako eskaintza ez da berbera. Araban, babespeko bizitokiak leku guztien %38,9 bakarrik eskaintzen dituzte; eta, Gipuzkoan zein Bizkaian, erdiak, hau da, %48,1 eta %48,5, hurrenez hurren. Gainera, lurralde bakoitzean ere aldeak daude zentrozen batez besteko tamainan, Arabakoak (7,6 leku) Gipuzkoakoak (6,9 leku) eta Bizkaikoak (5,6 leku) baino handiagoak direlako.

Gaueko ostatu eta aterpeak dira (2.1. kodea) EAEn eskaintako bigarren baliabide-motak, eskuragarri dauden lekuen %13,1 (274 leku) eskaintzen dira horrelako zentroetan. Horietatik 9 zentrok parte hartu dute zenbaketan, eta euretako bat Araban dago; 3, Gipuzkoan; eta 5, Bizkaian. Bizitokien batez besteko tamainari dagokionez, kasu honetan 30,4 lekukoa da, eta, berriro ere, Bizkaia da bizitokiko leku gutxien eskaintzen dituen lurraldea (28,4).

Aterpetxe eta bizitokietan (3.1. kodea), EAEn etxerik gabekoentzat eskuragarri dauden hamar lekutatik bat baino gehixeago eskaintzen dira (%11) 6 zentrotan banatuta (6). Hori dela-eta, horrelako zentrozen batez besteko tamaina da 38,2 lekuetakoa baliabideko. Berriro ere, alde handiak daude lurraldeen artean. Bizkaian, horrelako zentro bat bakarrik dago, eta 71 leku eskaintzen ditu. Gipuzkoan, ordea, hiru zentro daude, eta euren batez besteko tamaina 26,3 lekukoa da bizitokiko, eta Araban bi daude, eta batez besteko tamaina 39,5 lekukoa da bizitokiko.

Epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak (7.2. kodea) EAEn leku gehien eskaintzen dituzten laugarren zentroak dira. Dena dela, kasu honetan ere, alde handiak daude lurraldeen artean. Bizkaian, lekuen %16,5 eskaintzen dira horrelako zentroetan, eta haien batez besteko tamaina 6,5 lekukoa besterik ez da. Araban, ostera, horrelako bi zentro baino ez daude, eta eskuragarri dauden lekuen %6,2 eskaintzen dituzte. Zentrozen batez besteko tamainari dagokionez, Bizkaia bikoizten du erabat, bizitokiko 14 lekukoa da-eta. Azkenik, Gipuzkoa erdibidean dago, bertako 5 zentroek eskuragarri dauden lekuen %8,9 eskaintzen dituztelako eta haien batez besteko tamaina 12,4 lekukoa delako.

Amaitzeko, etxerik gabekoen talde berezientzako baliabideak (4.1 eta 5.1. kodeak) eskuragarri dauden lekuen %11,7 eskaintzen dituzte, nahiz eta gehienak emakumeentzako aterpetxeetan eskaintzen diren (%8,1). Etorkinentzako harrera-zentroek, aldiz, eskuragarri dauden lekuen %3,6 baino ez dituzte eskaintzen.

43. taula. Zentroen kopurua, eskaintako lekuak eta bizitegi-bazterketa larrian daudenezako zentro zein bizitokien batez besteko tamaina, bizitoki-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2014ko urriaren 29tik 30erako gaua.

		Zentroak		Lekuak		Batez besteko tamaina
		Kop.	Banaketa bertikala (% azpitotala)	Kop.	Banaketa bertikala (% azpitotala)	Plaza kopurua zentroko
Araba	2.1. Gaueko aterpetxea edo babeslekua	1	2,1	32	7,1	32,0
	3.1. Aterpetxeak eta bizitokiak	2	4,2	79	17,6	39,5
	3.2. Aldi baterako eta iragaitzako bizitokiak	5	10,4	41	9,1	8,2
	3.3. Babespeko bizitokia	23	47,9	175	38,9	7,6
	4.1. Emakumeentzako aterpetxeak	11	22,9	61	13,6	5,5
	5.1. Aldi baterako bizitokiak/harrera-zentroak	4	8,3	34	7,6	8,5
	7.2. Epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak	2	4,2	28	6,2	14,0
	Guztira	48	100,0	450	100,0	9,4
Bizkaia	2.1. Gaueko aterpetxea edo babeslekua	5	3,9	142	15,1	28,4
	3.1. Aterpetxeak eta bizitokiak	1	0,8	71	7,5	71,0
	3.2. Aldi baterako eta iragaitzako bizitokiak	1	0,8	7	0,7	7,0
	3.3. Babespeko bizitokia	81	62,8	457	48,5	5,6
	4.1. Emakumeentzako aterpetxeak	12	9,3	69	7,3	5,8
	5.1. Aldi baterako bizitokiak/harrera-zentroak	5	3,9	41	4,3	8,2
	7.2. Epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak	24	18,6	156	16,5	6,5
	Guztira	129	100,0	943	100,0	7,3
Gipuzkoa	2.1. Gaueko aterpetxea edo babeslekua	3	3,9	100	14,4	33,3
	3.1. Aterpetxeak eta bizitokiak	3	3,9	79	11,4	26,3
	3.2. Aldi baterako eta iragaitzako bizitokiak	12	15,8	81	11,7	6,8
	3.3. Babespeko bizitokia	48	63,2	333	48,1	6,9
	4.1. Emakumeentzako aterpetxeak	5	6,6	38	5,5	7,6
	5.1. Aldi baterako bizitokiak/harrera-zentroak	0	--	0	--	--
	7.2. Epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak	5	6,6	62	8,9	12,4
	Guztira	76	100,0	693	100,0	9,1
EAE	2.1. Gaueko aterpetxea edo babeslekua	9	3,6	274	13,1	30,4
	3.1. Aterpetxeak eta bizitokiak	6	2,4	229	11,0	38,2
	3.2. Aldi baterako eta iragaitzako bizitokiak	18	7,1	129	6,2	7,2
	3.3. Babespeko bizitokia	152	60,1	965	46,3	6,3
	4.1. Emakumeentzako aterpetxeak	28	11,1	168	8,1	6,0
	5.1. Aldi baterako bizitokiak/harrera-zentroak	9	3,6	75	3,6	8,3
	7.2. Epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak	31	12,3	246	11,8	7,9
	Guztira	253	100,0	2.086	100,0	8,2

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Bizitokien erabilerari dagokionez, zenbaketako gauean zeukaten okupazio-tasa hartu daiteke erreferentziatzat, EAEko etxerik gabekoek neurri handiagoan edo txikiagoan erabiltzen dituzten balioesteko. 44. taulan ikusten denez, etorkinentzako harrera-zentroak izan ziren zenbaketako gauean EAE osoan okupazio-tasa handiena eduki zuten bizitokiak, horrelako zentroetan eskuragarri dauden hamar lekutatik 9 zeudelako okupatuta (%90,7). Ondoren, gaueko aterpetxeak eta babeslekuak daude, bertan eskuragarri zeuden hamar lekutatik zortzi okupatu zirelako (%82,1); eta

epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak (%80,1), gaueko aterpetxeek besteko okupazio-tasa izan zutelako ia-ia.

Bestetik, emakumeentzako aterpetxeetako okupazio urria nabarmendu beharra dago, eskainitako hamar lekutatik lau baino gutxiago okupatu zituztelako zenbaketako gauean (%38,7). Okupazio txikiena eduki zuten bigarren zentroak, ordea, aldi baterako eta iragaitzako bizitokiak izan ziren, eskuragarri zeuden lekuen %53,5 bakarrik okupatu zituztelako.

44. taula. EAEko etxerik gabekoentzako zentro eta bizitokiak eskainitako lekuen kopurua, erabiltzaileen kopurua, okupazio-tasa eta estaldura-tasa, bizitoki-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

		Lekuen kopurua	Pertsona kopurua	Okupazio-tasa (%)	Estaldura-tasa (1.000 biztanleko)
Araba	2.1. Gaueko aterpetxea edo babeslekua	32	25	78,1	0,099
	3.1. Aterpetxeak eta bizitokiak	79	45	57,0	0,245
	3.2. Aldi baterako eta iragaitzako bizitokiak	41	20	48,8	0,127
	3.3. Babespeko bizitokia	175	111	63,4	0,544
	4.1. Emakumeentzako aterpetxeak	61	27	44,3	0,189
	5.1. Aldi baterako bizitokiak/harrera-zentroak	34	30	88,2	0,106
	7.2. Epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak	28	19	67,9	0,087
	Guztira	450	277	61,6	1,398
Bizkaia	2.1. Gaueko aterpetxea edo babeslekua	142	121	85,2	0,123
	3.1. Aterpetxeak eta bizitokiak	71	66	93,0	0,062
	3.2. Aldi baterako eta iragaitzako bizitokiak	7	5	71,4	0,006
	3.3. Babespeko bizitokia	457	344	75,3	0,397
	4.1. Emakumeentzako aterpetxeak	69	23	33,3	0,060
	5.1. Aldi baterako bizitokiak/harrera-zentroak	41	38	92,7	0,036
	7.2. Epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak	156	132	84,6	0,135
	Guztira	943	729	77,3	0,819
Gipuzkoa	2.1. Gaueko aterpetxea edo babeslekua	100	79	79,0	0,140
	3.1. Aterpetxeak eta bizitokiak	79	54	68,4	0,110
	3.2. Aldi baterako eta iragaitzako bizitokiak	81	44	54,3	0,113
	3.3. Babespeko bizitokia	333	269	80,8	0,466
	4.1. Emakumeentzako aterpetxeak	38	15	39,5	0,053
	5.1. Aldi baterako bizitokiak/harrera-zentroak	0	0	--	
	7.2. Epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak	62	46	74,2	0,087
	Guztira	693	507	73,2	0,969
EAE	2.1. Gaueko aterpetxea edo babeslekua	274	225	82,1	0,125
	3.1. Aterpetxeak eta bizitokiak	229	165	72,1	0,105
	3.2. Aldi baterako eta iragaitzako bizitokiak	129	69	53,5	0,059
	3.3. Babespeko bizitokia	965	724	75,0	0,441
	4.1. Emakumeentzako aterpetxeak	168	65	38,7	0,077
	5.1. Aldi baterako bizitokiak/harrera-zentroak	75	68	90,7	0,034
	7.2. Epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak	246	197	80,1	0,112
	Guztira	2.086	1.513	72,5	0,953

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Berrito ere, badago lurraldeen arteko alderik. Esate baterako, Araban, bizitoki guztietako okupazio-tasa EAE osokoa baino txikiagoa da, emakumeentzako aterpetxeetan izan ezik, nahiz eta bertan eskuragarri zeuden lekuen %44,3 bakarrik okupatu zituzten zenbaketako gauean. Bizkaian, ostera, batez bestekoa baino okupazio-tasa handiagoa dago era guztietako bizitokietan, emakumeentzako aterpetxeetan izan ezik, bertan eskuragarri zeuden leku guztien herenak baino ez zirelako okupatu (%33,3).

5. BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIAN DAUDENEN KARAKTERIZAZIOA

5.1. Sarrera

Txostenaren bosgarren atal honetan, xehetasunez aztertzen dira 2014ko urriaren 29-30eko gauean zenbatutako bizitegi-bazterketa larrian zeudenen ezaugarri eta bizi-baldintzak, informazioa eskuragarri dagoen kasuetan. Aipatu beharra dago, beraz, atal honetan eskaintzen diren emaitzek kontuan hartzen dituztela zenbaketako gauean aurkitutako 1.836 bizilagunetatik 1.236 –hau da, horietatik guztietatik %67,3–, horietatik izan zirelako atal honetan eskaintzen den informazioa biltzeko galde-sortari erantzun ziotenak.

Azterketa honetako parte-hartzaileak hautatzeko orduan laginketarako inolako teknikarik ezarri ez denez, ondoren azaldutako datuak ezin izango dira zenbaketan aurkitutako bizilagun guztietara estrapolatu. Nolanahi ere, bildutako informazioaren berezko zenbait alborapen zehazten ahaleginduko gara, eta euren jatorri dira azterlanean partaide izandako biztanleriaren ezaugarri demografikoak. Horretarako, azterketan parte hartu duten etxerik gabekoen eta zenbaketako gauean galde-sortari erantzundako guztien arteko oinarrizko ezaugarri soziodemografiko batzuen antzekotasuna aztertu daiteke. Aurkitutako 1.836 lagun horietatik, 1.566 lagun oinarrizko ezaugarri soziodemografikoak bakarrik ezagutzen ditugunez (informazio hori jaso zen behaketa-fitxaren bitartez), ondoren egindako azterketan bizilagun horiek baino ez dira kontuan hartuko.

45. taulan ikusi daitekeen moduan, galde-sortari erantzundako pertsonen oinarrizko ezaugarri soziodemografikoak ez dira nabarmen aldentzen informazioa eskuragarri dagoen zenbatutako pertsona horietatik guztietatik. Soilik nabarmendu daiteke nolabaiteko gehiegizko errepresentazio bat adin-tarte gazteenarena, izan ere, galde-sortari erantzundakoen %26,1 ordezkatzeko du talde horrek, baina bakarrik %23,8 izan dira aurkitutako adin-tarte horretako bizilagunak. Edonola ere, etxerik gabekoekin, hau da, kalean lo egiten dutenekin zerikusia daukana da alborapen garrantzitsua. Zenbaketan aurkitutako 1.836 lagunetatik %17,6 dira etxerik gabekoak, baina azterketan parte hartu dutenen %11,2 baino ez dira. Tokiko bizilagunen, adin gehiagoko bizilagunen eta zenbaketako gauean kalean aurkitutako bizilagunen erantzun-tasa txikiagoaren emaitza dira alborapen horiek.

Gainerakoan, galde-sortari erantzun diotenen barne-osaketaren patroiak aurkitutako etxerik gabeko guztien patroien antzekoak dira. Hau da, nagusiki gizonak dira (%78,1), atzerritar jatorrikoak (%56,7) eta gazteak dira, batez ere, haien bi herenek 44 urte baino gutxiago dituztelako eta lau lagunetatik bat 24 urtetik beherakoa delako.

45. taula. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen banaketa, oinarrizko ezaugarri soziodemografikoen, zenbaketako gaueko kokalekuaren eta azterketan izandako partaidetzaren arabera. 2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

		Galde-sortari erantzuten dioten bizilagunak		Zenbaketan zenbatutako biztanleak guztira*	
		Kop.	% bertikala	Kop.	% bertikala
Sexua	Gizonak	965	78,1	1.219	79,2
	Emakumeak	271	21,9	320	20,8
	Daturik gabe	--	--	27	--
Nazionalitatea	Espainiarra	535	43,3	650	44,0
	Atzerritarra	701	56,7	826	56,0
	Daturik gabe	--	--	90	--
Adina	<25 urte	314	26,1	351	23,8
	25-34 urte	236	19,7	293	19,9
	35-44 urte	269	22,4	348	23,6
	45-54 urte	268	22,3	336	22,8
	55 urte eta gehiago	114	9,5	146	9,9
	Daturik gabe	35	--	92	--
Kokapena	Kalea	138	11,2	323	20,6
	Aterpetxea	264	21,4	361	23,1
	Beste baliabide batzuk	834	67,5	882	56,3
LH	Araba	178	14,4	201	12,8
	Bizkaia	648	52,4	836	53,4
	Gipuzkoa	410	33,2	529	33,8
	Guztira	1.236	100,0	1.566	100,0

* Zenbaketako gauean 1.836 lagun zenbatu zituzten arren, 1.566 laguni buruzko oinarrizko informazio soziodemografikoa baino ez dago, hau da, aurkitutako guztien %85,3i buruzkoa.

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Lehen aipatutako alborapenak daudenez, EAeko etxerik gabekoen artean gutxiengodun taldeen inguruabar bereziak behar bezala biltzeko asmoz ere, informazioaren dimentsio bakarreko azterketa eta bi dimentsioko azterketa bateratuko ditugu txosteneko bigarren zati honetan.

Dimentsio bakarreko azterketan, azterketako aldagaia aztergai diren biztanle guztietan nola banatzen den aztertzen da, beste faktorerik kontuan hartu gabe. Hau da, galde-sortari erantzun dioten guztientzako informazioa eskaintzen du. Bi aldagaiko edo bi dimentsioko azterketak, ordea, aldagai jakin bat beste aldagai batzuekin gurutzatzen denean, hau da, biak batera aztertzen direnean nola banatzen den jakitea dauka helburu. Horrelako azterketari esker, badago ezaugarrien banaketa diferentzia biztanle horien azpialdeen artean identifikatzerik eta haien artean egon daitezkeen desberdintasunak antzematerik. Gurutzatuko diren aldagaiak edo aldagai independenteak modu estrategikoan hautatzen dira, ikerketaren helburuak eta aldagai bakoitzaren gaitasun argigarria kontuan hartuta. Kasu honetan, honako aldagai hauek hautatu dira: oinarrizko ezaugarri soziodemografikoak (sexua, nazionalitatea eta adina) eta bizilagun horiek zenbaketako gauean zeukaten kokalekua. Horrez gain, zenbatutakoek bizileku duten lurralde historikoa ere kontuan hartu da gurutzatuko den aldagai moduan, zenbatutakoek kokalekua EAeko lurralde

historiko bakoitzeko etxerik gabekoen osaketan eta bizi-baldintzetan dauden aldeak antzemateko asmoz¹⁶.

Era berean, oso kontuan hartu beharra dago bi aldagaiko azterketak ez duela aldaeren arteko lotura kausalak identifikatzeko aukerarik ematen. Izan ere, bi aldaeren artean dauden faktoreak nabarmentzen ditu. Hori dela eta, biztanle-taldearen arteko desberdintasunak zehazteko aukera eman arren, desberdintasun horren azpian dauden arrazoiak ulertzeko, ezinbestekoa da azterketa sakonagoa egitea, antzemandako aldearen arrazoi zehatzak zein diren jakin ahal izateko. Chi Karratua¹⁷ estatistikoari esker, aztertutako bi aldagairen arteko lotura adierazgarriak dagoen zehaztu ahal izango da, zenbakizko aldagaiak ez direnean. Estatistiko horretarako lortutako emaitzak beti-beti kontuan hartu dira, zenbait aldagai euren artean gurutzatu direnean.

Kapitulu honen egiturari dagokionez, honako haxe da bertan azaldutako informazioaren hurrenkera:

- Lehenengo eta behin, galde-sortari erantzun diotenen sorteria, egoera administratiboa eta nazionalitatea aztertuko dira.
- Bigarren atalean, inkestatutakoen hezkuntza-maila eta jardueraren egoera izango dira aztergai.
- Hirugarrenean, inkestatutakoen diru-sarrerak, txirotasun-egoera eta diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eskuratzeko aukera landuko dira.
- Laugarrenean, bizitokiaren galerarekin lotutako inguruabarrak, etxegabetasun-egoeren iraupena eta biktimizazio-egoerak jorratuko dira.
- Bosgarrenean, etxerik gabekoen osasun-egoera, osasun-sistemara jotzeko aukera eta gaixotasun kroniko edo larrien prebalentzia izango dira aztergai.
- Seigarrenean, bizitegi-bazterketa larrian daudenen familiarekin, gainerakoekin eta erkidegoarekin dauzkaten harremanak jorratuko dira.
- Zazpigarrenean, inkestatutakoek gizarte-zerbitzuak eskuratzeko daukaten aukera eta haien erabilera aztertuko dira.
- Azkenik, 2012tik 2014ra aztertutako taldearen ezaugarri nagusien bilakaerari buruzko atala ere sartu da.

¹⁶ Sarreraren adierazi bezala, 2013ko txostenean, beste kapitulu batean egin zen bi aldagaiko azterketa (aldagai berberak kontuan hartuta). Kasu honetan, bi azterketak sartu dira kapitulu berean, eta adierazitako aldagai independenteen arabera desagregazioa (sexua, adina, nazionalitatea, kokalekua eta bizileku duten lurraldea) aldagai independente esanguratsuenetarako baino ez da egin. Bestetik, datuak aurkezteko orduan, ehuneko horizontalak (hau da, talde bakoitzeko zer ehuneko dagoen egoera zehatz baten eraginpean) eta ehuneko bertikalak (hau da, aurretiaz zehaztutako taldeek zer pisu duten egoera zehatz baten eraginpean daudenen taldearen barruan) sartu dira tauletan.


¹⁷ Proba honen bidez, bi aldagai batera aztertzen direnean, bi aldagaiok aztertzeko kategorien artean antzemandako aldeak ausazkoak diren edo bi aldagaien arteko lotura estatistikoa dagoen zehaztuko da. Antzemandako aldeak behar bezain handiak badira, bi aldagaien arteko lotura egongo da. Hau da, gurutzatutako aldagaiak edo aldagai independenteak azterketako aldagaian behar besteko eraginik daukan, bertako jatorrizko banaketa goitik behera aldatzeko, bi aldagaiak batera aztertzen direnean. Erkapen hori egiteko, maiztasunen taulan jarriko dira datuak. Azterketako balio edo kategorია bakoitzerako antzemandako erabateko maiztasuna edo enpirikoa (O_i) adieraziko da, bi aldagaiak euren artean gurutzatu direnean. Ondoren, azterketako balio edo kategoría bakoitzerako kalkulatu da itxaron litekeen erabateko maiztasuna edo itxarondako maiztasuna ($E_i = n \cdot p_i$: bertan, n laginaren tamaina izango da; eta p_i , balio i -garrenaren edo balioen tartearen probabilitatea, hipotesi nuluen arabera), betiere, aldagaiaren banaketa dimentsio bakarreko azterketakoa bezalakoa bada.

5.2. Sorterria eta egoera administratiboa

5.2.1. Sorterria


Lehen esan dugun bezala, galde-sortari erantzun zioten 1.236 lagunetatik, 740 atzerritarrak dira (%59,9), 343 lagun (%27,8) EAEko lurralde historikoren batean jaio dira eta haien %12 baino ez da (148 lagun) estatu espainoleko gainerako autonomia-erkidegoetan.

14. grafikoa. Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa, jaiotako herrialdearen arabera. 2014
N=1.236



Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

15. grafikoa. Bizitegi-bazterketa larrian dagoen biztanleria eta EAEko biztanleria orokorraren banaketa, jaiotako herrialdearen arabera. 2014



Iturriak: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014. EIN. Errolda Etengabeko Estatistika.

Datu horien arabera, egiaztatu egiten da atzerritarrek nagusi direla EAEko etxerik gabekoen artean. Izan ere, 2014an EAEko biztanleen %8,3 bakarrik atzerritarrek izan arren, atzerritarrek EAEko etxerik gabekoen artean daukaten proportzioa zazpi aldiz handiagoa da (%59,9). Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetako biztanleen artean aurkakoa gertatzen da, ordea. EAEko biztanleen %19,9 diren arren, bizitegi-bazterketa larrian dauden %12 baino ez dira talde horretakoak.

Azterritar diren etxegabekoen sortzerri dagokienez, nabarmendu daiteke Afrikatik datozela %73 eta erdiak baino gehiago Magrebekoak direla (%50,5). Izan ere, Maroko da atzerrian jaio eta bizitegi-bazterketa larrian dauden bizilagunen %43,9ren sortzeria. Ehuneko horiek Estatutik kanpo jaiotakoak diren EAEko biztanle diren Afrikako jatorria duten pertsonen errepresentaziotik oso gora daude (%20,3). Bestalde, bizitegi-bazterketa larrian daudenetatik %22,4 Afrikako gainontzeko herrialdeetakoak dira, gehienbat Sahara Azpiko Afrikako jatorrikoak. Kasu honetan ere, biztanle-talde horren garrantzia erlatiboak hirukoiztu egiten du atzerrian jaio eta EAEn bizi diren bizilagunen artean daukan proportzioa.

46. taula. Atzerrian jaio eta bizitegi-bazterketa larrian dauden banaketa, sortzerriaren arabera. 2014
N=740

	Kop.	Atzerrian jaiotako etxerik gabekoen gaineko %	Atzerrian jaiotako biztanleriaren banaketa	Etxerik gabeko guztien gaineko % N=1.236
Africa	540	73,0	20,3	43,7
- Magreb*	374	50,5	12,8	30,5
- Afrikaren gaineratikoa	166	22,4	7,4	13,2
Europa	100	13,5	25,5	8,1
- Europar Batasuna	95	12,8	21,8	7,7
- Europaren gaineratikoa	5	0,7	3,6	0,4
Amerika	50	6,8	47,0	4,0
- Erdialdea eta Karibea	12	1,6	8,7	1,0
- Hegoaldea	38	5,1	36,3	3,1
Asia	19	2,6	7,1	1,5
Ozeania	0	0,0	0,2	0,0
Daturik gabe	31	4,2	0,0	2,5
Guztira	740	100,0	100,0	59,9

*Marokon eta Aljerian jaiotako pertsonak barneratu dira.

Iturriak: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014. EIN. Errolda Etengabeko Estatistika.

Datu horien arabera, agerikoa da atzerrian jaiotakoek EAEko gainerako biztanle guztiek baino arrisku handiagoa dutela bizitegi-bazterketa larrian egoteko eta, horrez gain, arrisku hori oso modu desberdinean banatzen da bizilagun horien sortzerriaren edo jatorrizko eskualde edo kontinentearen arabera (egoera horien eragina askoz ere handiagoa da Afrikako kontinentean jaiotakoentzat European edo Amerikan jaiotakoentzat baino).

Eskualde geografikoak kontuan hartu beharrez, atzerritar gehienek sortzeria diren hamar herrialdeak zein diren aztertuz gero, herrialde horietatik hiru baino ez dira Europako kontinenteetakoak (Errumania, Portugal eta Frantzia). Gainerakoak, ordea, Afrikan daude, Magrebeko eskualdean (Maroko eta Aljeria) eta Sahara Azpiko Afrikan (Kamerun, Senegal eta Nigeria), hain zuzen ere. Bestetik, egiaztatu egiten da Amerika Latinoan jaiotakoek pisua oso urria dela eta 47. taulan Amerika Latino herrialde bat bera ere agertzen ez dela, herrialde horietako immigrazioak EAEn daukan pisua kontuan hartuta.

47. taula. Atzerrian jaio eta bizitegi-bazterketa larrian daudenen artean sorteri nagusiak diren hamar herrialdeak. 2014

	Kop.	Atzerrian jaiotako etxerik gabekoen gaineko %	Etxerik gabeko guztien gaineko %
Maroko	325	43,9	26,3
Errumania	50	6,8	4,0
Aljeria	49	6,6	4,0
Kamerun	30	4,1	2,4
Senegal	24	3,2	1,9
Nigeria	19	2,6	1,5
Portugal	16	2,2	1,3
Ghana	14	1,9	1,1
Frantzia	12	1,6	1,0
Ginea	12	1,6	1,0
Guztira	551	74,5	44,5

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Estatu espainoleko beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoen sorterriari dagokionez, gehienak Andaluziakoak (%18,2), Gaztela eta Leongoak (%17,6), Extremadurakoak (%12,2) eta Galiziakoak dira (%8,1). Beraz, lau erkidego horietakoak dira estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoen erdiak baino gehiago (%56,1).

48. taula. Beste AAEE batzuetan jaio eta bizitegi-bazterketa larrian daudenen banaketa, sorleku duten autonomia-erkidegoaren arabera. 2014
N=148

	Kop.	EAetik kanpo jaiotakoen gaineko %	Etxerik gabeko guztien gaineko %
Andaluzia	27	18,2	2,2
Gaztela eta Leon	26	17,6	2,1
Extremadura	18	12,2	1,5
Galizia	12	8,1	1,0
Katalunia	11	7,4	0,9
Asturias	10	6,8	0,8
Madril	9	6,1	0,7
Aragoi	6	4,1	0,5
Kantabria	6	4,1	0,5
Valentziako Erkidegoa	4	2,7	0,3
Ceuta eta Melilla	4	2,7	0,3
Uhartea Balearrak	2	1,4	0,2
Errioxa	2	1,4	0,2
Kanariak	1	,7	0,1
Gaztela-Mantxa	1	,7	0,1
Daturik gabe	9	6,1	0,7
Guztira	148	100,0	12,0

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

EAEn jaiotakoen 343 bizilagunetatik, erdiak baino gehiago Bizkaikoak dira (%52,5, 180 lagun), heren bat baino gutxiago Gipuzkoan jaio dira (%28,3, 97 lagun) eta hamar lagunetatik bat baino ez da Araban jaio (%9,3, 34 lagun). Edonola ere, lurralde bakoitzaren pisu demografikoan aldeak daudenez, datu horiek balioesteko orduan, lurralde bakoitzean jaio eta gaur egun EAeko lekuren batean bizi direnen ehunekoarekin erkatu beharko dira. Bizkaian jaiotakoen ehunekoa bi kasuetan berbera bada ere, Araban eta Gipuzkoan jaiotakoen etxegabetasun-tasa lurralde horietan jaiotakoen ehunekoa baino 4,1 eta 5,8 puntu txikiagoa da, hurrenez hurren. Datu horien arabera,

beraz, badirudi etxegabetasun-tasa txikixeagoa dela Araban eta Gipuzkoan jaiotakoen artean Bizkaian jaiotakoen artean baino.

49. taula. Bizitegi-bazterketa larrian dauden banaketa, sorleku duten lurralde historikoaren arabera. 2014

	Bizitegi-bazterketa larrian dauden biztanleak			Gainerako biztanle guztiak		
	Kop.	EAEn jaiotako etxerik gabekoen gaineko %	Etxerik gabekoen gaineko %	Kop.	EAEn jaio eta bizi diren biztanleen gaineko %	EAEko biztanleen gaineko %
Araba	32	9,3	2,6	210.690	13,4	9,6
Bizkaia	180	52,5	14,6	824.408	52,5	37,7
Gipuzkoa	97	28,3	7,8	535.802	34,1	24,5
Daturik gabe	34	9,9	2,8	--	--	--
Guztira	343	100,0	27,8	1.570.900	100,0	71,8

Iturriak: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014. EIN. Errola Etengabeko Estatistika.

5.2.2. Bizitegi-bazterketa larrian dauden atzerritarren egoera administratiboa: nazionalitatea eta bizileku-baimena.

5.2.2.1. Nazionalitatea

Atzerrian jaio eta bizitegi-bazterketa larrian dauden 740 bizilagunetatik, hamarretik 9k ez dute Espainiako nazionalitaterik (%90,9), 18k errefuxiatu-estatusa daukate (%2,4) eta 16k nazionalitate bikoitza dute (%2,2). Atzerrian jaiotako etxerik gabekoen %3,5ek bakarrik lortu ahal izan dute Espainiako nazionalitatea (26 lagun).


50. taula. Atzerrian jaio eta bizitegi-bazterketa larrian dauden nazionalitatea. 2014.
N=740

	Kop.	Banaketa bertikala %	EAEko etxerik gabeko guztien gaineko % N=1.236
Espainiarrak	26	3,5	2,1
Atzerritarrak	673	90,9	54,4
Biak	16	2,2	1,3
Errefuxiatuak, asilatuak	18	2,4	1,5
Daturik gabe	7	0,9	0,6
Guztira	740	100,0	59,9

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Atzerrian jaiotako etxerik gabekoen nazionalitatea lortzeko daukaten aukerarekin lotutako aldagai nagusia adina da. 34 urtetik beherakoen artean, legezko estatus hori daukatenen ehuneko %20 baino txikiagoa da. 45 urtetik gorakoen artean, ostera, hamarretik 7-8 lagunek lortu dute Espainiako herritarren estatusa: 45-54 urteko bizilagunen %71,3 eta 55 urtetik gorako bizilagunen %80,7, hain zuzen ere.

16. grafikoa. Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa, nazionalitatearen arabera. 2014
N=1.236




Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

5.2.2.2. Bizileku-baimena

Espainiako nazionalitatea erdiestea zaila denez, bizileku-baimenik daukaten ala ez aztertzea da bizitegi-bazterketa larrian dauden atzerritarren egoera administratiboa eta legezko estatusa zein diren jakiteko adierazle onena. Hainbat eratako bizileku-baimenak dauden arren, guzti-guztietan, behintzat, bermatu egingo da baimena indarrean dagoen bitartean herrialdeko egonaldia erregularra izango dela.

Nazionalitate atzerritarreko 673 etxerik gabekoetatik, erdiak baino gehiago bizileku-baimeneko titularrak dira (%52,5), eta %45,9 egoera administratibo irregularrean daude, herrialdean legez bizitzeko baimenik ez daukatelako. Pertsonak horiek osatzen dute galde-sortari erantzudako bizitegi-larrian daudenen %25.

17. grafikoa. Bizitegi-bazterketa larrian dauden nazionalitate atzerritarra duten pertsonen banaketa, bizileku-baimenaren arabera. 2014
N=673



Iturria: EAEEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Nazionalitatearen lorpenarekin gertatzen den bezala, bizileku-baimena erdiesteko ere, bizilagunon adina da antzemandako aldeak azaltzen dituen oinarritzko faktoreetako bat. 51. taulan ikusi daitekeen moduan, 25 urtetik beherakoen ia-ia bi herenek bizileku-baimena daukate (%65,6), 25-34 urtekoen heren baten baino gutxiagoren (%29,2) eta gainerako adin-tarteetako erdien baino gehixeagoren aldean.

Era berean, gizonek (%53,8) baino emakume gutxiagoak (%46,9) daukate legezko bizileku-estatusa, antzemandako aldeak estatistikari begira esanguratsuak ez badira ere. Araban ere, jende gehiago dauka bizileku-baimena (%60,7), baina, batez ere, egonaldi ertain edo bizitokietan daudenek (%55,8).

51. taula. Nazionalitate atzerritarra duten eta bizitegi-bazterketa larrian daudenen banaketa, bizileku-baimenik duten ala ez kontuan hartuta, zenbait aldagairen arabera. 2014.

N=673

		Bizileku-baimena dutenak	Bizileku-baimenik gabe	Ez dute erantzun	Guztira	
		%	%	%	%	Kop.
% horizontala						
Sexua	Gizonak	53,8	44,8	1,5	100,0	545
	Emakumean	46,9	50,8	2,3	100,0	128
Adina*	<25 urte	65,6	33,2	1,2	100,0	256
	25-34 urte	29,2	68,0	2,8	100,0	178
	35-44 urte	54,6	45,4	0,0	100,0	130
	45-54 urte	56,9	38,9	4,2	100,0	72
	55 urte eta gehiago	57,9	42,1	0,0	100,0	19
	Daturik gabe	55,6	44,4	0,0	100,0	18
Kokapena	Kalea	41,7	54,2	4,2	100,0	96
	Aterpetxea	49,3	49,3	1,4	100,0	138
	Beste baliabide batzuk	55,8	43,1	1,1	100,0	439
Lurralde Historikoa	Araba	60,7	39,3	0,0	100,0	84
	Bizkaia	49,3	48,7	2,1	100,0	339
	Gipuzkoa	54,0	44,4	1,6	100,0	250
Guztira	%	52,5	45,9	1,6	100,0	--
	Kop.	353	309	11	--	673
% bertikala						
Sexua	Gizonak	83,0	79,0	72,7	8,01	545
	Emakumean	17,0	21,0	27,3	19,0	128
Adina*	<25 urte	47,6	27,5	27,3	38,0	256
	25-34 urte	14,7	39,2	45,5	26,4	178
	35-44 urte	20,1	19,1	0,0	19,3	130
	45-54 urte	11,6	9,1	27,3	10,7	72
	55 urte eta gehiago	3,1	2,6	0,0	2,8	19
	Daturik gabe	2,8	2,6	0,0	2,7	18
Kokapena	Kalea	11,3	16,8	36,4	14,3	96
	Aterpetxea	19,3	22,0	18,2	20,5	138
	Beste baliabide batzuk	69,4	61,2	45,5	65,2	439
Lurralde Historikoa	Araba	14,4	10,7	0,0	12,5	84
	Bizkaia	47,3	53,4	63,6	50,4	339
	Gipuzkoa	38,2	35,9	36,4	37,1	250
Guztira	%	100,0	100,0	100,0	100,0	--
	Kop.	353	309	11	--	673

Alde adierazgarriak dira estatistikari begira, $p < 0,05$ erako Chi karratua proba kontuan hartuta. Independentziaren probarako, *daturik gabeko* kasu guztiak utzi dira kanpoan: 18 kasu, *adinaren* aldagaian; eta 11 kasu, *bizileku-baimenaren* aldagaian. Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

5.2.3. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoera administratiboa: erroldatzeko aukera

Bizitegi-bazterketa larrian dauden hamar lagunetatik ia-ia bederatzire erroldatuta daude (%87,4), eta hamarretik bat baino gehixeago (%11,2), ez. Errolda eskubide sozialak eta herritartasun-eskubideak lortzeko iturri nagusietakoa dela kontuan hartuta, herrialdean legez bizitzeko baimenik ez daukaten atzerritarren kasuan, batez ere, oso garrantzitsua da bizilagunon ezaugarriak eta bizitegi-egoera zein diren jakitea.

Erroldaren gabeziak eragin berbera dauka gizonen zein emakumeen artean, baina atzerritarren artean tokiko bizilagunen artean baino gehiago. Era berean, eragin handiagoa ere badauka gazteen artean eta, batik bat, kalean aurkitzen dituztenen artean. Alde horiek kontuan hartuta, erroldarik gabekoen taldearen ezaugarriari erreparatuz gero (52. taulako ehuneko bertikalak), argi eta garbi dago talde horretako gehiegizko errepresentazioa, eta atzerritarrek eta kalean aurkitutakoek erroldatu gabe daudenen %54,7 direlako, baina galdera horri erantzun diotenen %11,2 baino ez.

52. taula. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen banaketa, erroldatze-agiria duten ala ez kontuan hartuta, zenbait ezaugarriren arabera. 2014.

N=1.236

		Erroldatze- agiriarekin	Erroldatze-agiririk gabe	Ez du erantzun	Guztira	
		%	%	%	%	Kop.
% horizontala						
Sexua	Gizonak	87,0	11,4	1,6	100,0	965
	Emakumeak	88,6	10,7	0,7	100,0	271
Nazionalitatea	Espainiarrak	95,0	3,6	1,5	100,0	535
	Atzerritarrak	81,6	17,1	1,3	100,0	701
Adina	<25 urte	86,9	12,1	1,0	100,0	314
	25-34 urte	79,7	18,6	1,7	100,0	236
	35-44 urte	86,2	12,3	1,5	100,0	269
	45-54 urte	92,5	6,0	1,5	100,0	268
	55 urte eta gehiago	93,9	5,3	0,9	100,0	114
	Daturik gabe	91,4	5,7	2,9	100,0	35
Kokapena	Kalea	39,9	55,1	5,1	100,0	138
	Aterpetxea	81,1	16,7	2,3	100,0	264
	Beste baliabide batzuk	97,2	2,3	0,5	100,0	834
Lurralde Historikoa	Araba	89,3	9	1,7	100,0	178
	Bizkaia	85,6	13,1	1,2	100,0	648
	Gipuzkoa	89,3	9,3	1,5	100,0	410
Guztira	%	87,4	11,2	1,4	100,0	--
	Kop.	1.080	139	17	--	1.236
% bertikala						
Sexua	Gizonak	77,8	79,1	88,2	78,1	965
	Emakumeak	22,2	20,9	11,8	21,9	271
Nazionalitatea	Espainiarrak	47,0	13,7	47,1	43,3	535
	Atzerritarrak	53,0	86,3	52,9	56,7	701
Adina	<25 urte	25,3	27,3	17,6	25,4	314
	25-34 urte	17,4	31,7	23,5	19,1	236
	35-44 urte	21,5	23,7	23,5	21,8	269
	45-54 urte	23	11,5	23,5	21,7	268
	55 urte eta gehiago	9,9	4,3	5,9	9,2	114
	Daturik gabe	3,0	1,4	5,9	2,8	35
Kokapena	Kalea	5,1	54,7	41,2	11,2	138
	Aterpetxea	19,8	31,7	35,3	21,4	264
	Beste baliabide batzuk	75,1	13,7	23,5	67,5	834
Lurralde Historikoa	Araba	14,7	11,5	17,6	14,4	178
	Bizkaia	51,4	61,2	47,1	52,4	648
	Gipuzkoa	33,9	27,3	35,3	33,2	410
Guztira	%	100,0	100,0	100,0	100,0	1236
	Kop.	1.080	139	17	--	1.236

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

5.3. Hezkuntza-maila eta jardueraren egoera

Atal honetan, azterketan parte hartu duten etxerik gabekoen prestakuntza-maila eta jarduera nagusia zein diren izango dugu aztergai. Horrez gain, lanari begira aktiboak direnek (hau da, gaur egun lanean edo langabezian daudenek) garatutako lan-motak ere hartuko ditugu kontuan, baita lan horiek garatzen edo garatu dituztenean izan dituzten kontratazio-baldintzak ere. Oso garrantzitsua da bizitegi-bazterketa larrian daudenen ezaugarri horiek nolakoak diren jakitea, jardueraren egoera eta, lan-merkatuarekiko lotura egonkorra, hain zuzen ere, arrisku-faktoreak direlako txirotasun-egoeretan; eta, behin-behinean, bizitegi-bazterketa larrian ere bai. Gainera, bizilagunen prestakuntza-mailak ere zeresan handia dauka, talde horretako biztanleak gizarteratzeko eta laneratzeko orduan.

5.3.1. Hezkuntza-maila

Inkestatutako enrdiek baino gehiagok ez dute ikasketarik (%14, 170 lagun), edo Lehen Hezkuntzako ikasketak baino ez dituzte (%44, 543 lagun). Bi kategoria horietan daude etxerik gabekoen %58, hau da, 713 lagun, guztira. Inkestatutako enrdiek baino gehixegok Bigarren Hezkuntzako titulua daukate (434 lagun, %35). Azkenik, galde-sortari erantzun diotenen %5ek unibertsitateko titulua daukate, eta proportzio hori EAEko gainerako biztanle guztiena baino ia-ia bost aldiz txikiagoa da, bertan 10 urtetik gorakoen %24k dutelako unibertsitateko titulua.

53. taula. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen eta EAEko gainerako biztanle guztien banaketa, ikasketak-mailaren arabera. 2014
N=1.236

	EAEko etxerik gabekoak		EAEko gainerako biztanle guztiak	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikasketarik gabe	170	13,8	58.375	2,9
Lehen Hezkuntzakoak	543	43,9	684.566	34,7
Bigarren Hezkuntzakoak	434	35,1	754.775	38,3
Unibertsitatekoak	63	5,1	472.346	24,0
ED/EE	26	2,1	-	-
Guztira	1.236	100,0	1.970.062	100,0

Iturria: EAEEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014; EUSTAT. Hezkuntzari buruzko Udaltzatitika. 2013.

Izan ere, bi biztanle-taldeak erkatuz gero, egiaztatu egiten da bizitegi-bazterketa larrian daudenen prestakuntza-maila EAEko gainerako biztanle guztiena baino askoz ere txikiagoa dela. Inolako ikasketarik ez dutenen pisu erlatiboa ia-ia bost aldiz handiagoa da etxerik gabekoen artean (%13,8) gainerako biztanle guztien artean baino (%3) eta gainera, Lehen Hezkuntzako ikasketak bakarrik dituztenen proportzioa (%43,9) EAEko biztanleria osoarena baino ia-ia hamar puntu handiagoa da (%34,7).

5.3.2. Jarduerarekin lotutako egoera

Galde-sortari erantzun dioten 1.236 etxerik gabekoetatik, 1.059 lagun (%85,7) langabezian daude (%41,8, 517 lagun), edo ez-aktiboak dira (%43,9 542 lagun). Gaur egun, bizilagunon %5,7k bakarrik daukate lan egonkor bezain erregularra (70 lagun). Hala eta guztiz ere, eta aurrerago aztertzen den moduan, 194 lagunek (horietatik %15,7k) lanik egiten ez dutela esan arren, nolabaiteko lan-jarduera edo erdilan-jarduera garatzen duten euren diru-sarreraren iturri osagarri moduan. Nolanahi ere, horrelako jarduerak lantzean behin edo lan-baldintza irregularretan garatzen dituztenez, ezin dira enplegu erregularrekin parekatu.

54. taula. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen banaketa, jarduerarekin lotuta duten egoera kontuan hartuta, zenbait aldagairen arabera. 2014
N=1.236


		Kop.	Banaketa bertikala (%)
Aktiboak	Lanean	70	5,7
	Praktiketan	6	0,5
	Langabezian	517	41,8
	Guztira	593	48,0
Ez-aktiboak	Erretiratuak, pentsiodunak, elbarriak	162	13,1
	Ikasten ari dira	316	25,6
	Eguneko zentroa/lanerako zentroa	33	2,7
	Lanerako ezintasuna	15	1,2
	Beste egoera batzuk	16	1,3
	Guztira	542	43,9
Beste egoera batzuk	Lanerako baimenik gabe	29	2,3
	Beste batzuk	26	2,1
	Guztira	55	4,4
Daturik gabe	Ez du erantzuten	46	3,7
Guztira		1.236	100,0

Iturria: EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014.

Etxegabekoen enpleguarekiko jarduerarik ezaren inguruan, prestakuntza (316 lagun) eta erretiro, baliaezintasun edo beste pentsioren bat jasotzeagatik erlazionatzen dira nagusiki egoera horiek (162 lagun). Halaber, badira bestelako egoera zehatz batzuek, adibidez, eguneko zentro edo zentro okupazional batera joaten direnak (33 lagun) edota lanerako ezintasuna dutenak (15 lagun).

Jardueraren arabera, bizitegi-bazterketa larrian daudenen artean eta EAeko gainerako biztanle guztien artean egoera alderatuz gero, agerikoa da etxerik gabekoen jarduera-tasa (%48) EAeko gainerako biztanle guztiena (%57,5) baino hamar puntu gutxiago dela. Halaber, bertako emaitzen iradokitzen dute zortzi aldiz baxuagoa dela EAeko biztanleria osoaren langabezia-tasaren aldean (%6,1 eta %49,1), baina, aitzitik, langabezia-tasak (%87,2) sei aldiz biderkatzen duela biztanleria osoarena (%14,5).

18. grafikoa. Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsona eta EAEko biztanleria orokorraren jarduera-, okupazio- eta langabezia-tasak. 2014



*Jarduera-, okupazio- eta langabezia-tasak EUSTATEk Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkestan erabiltzen duen metodologian oinarrituta kalkulatu dira.

(1) Jarduera-tasak 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren arabera aktiboak den biztanleriaren proportzioa azaltzen du. Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen kasuan, lanean, praktiketan edo langabezian dauden pertsonak hartu dira kontuan (593 pertsona). Halaber, 1.236 pertsona hartu dira izendatzaile gisa.

(2) Okupazio-tasak 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren arabera landunak diren pertsonen proportzioa azaltzen du. Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen kasuan, lanean edo praktiketan dauden pertsonak hartu dira kontuan (76).

(3) Langabezia-tasak 16 urte eta gehiagoko biztanleria aktiboaren arabera langabezian dauden pertsonen proportzioa azaltzen du. Bizitegi-bazterketa larriaren kasuan, egoera horretan daudela dioten 517 pertsona hartu dira kontuan. Biztanleria aktibo gisa, lanean, praktiketan edo langabezian dauden pertsonak izan dira (593 pertsona) kontuan.

Iturriak: EAEEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketa. 2014. EUSTAT. Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta. IV. Hiruhilekoa 2014.

Hurrengo taulan ikusiko dugunez, bizilagunen jardueraren egoerarekin neurri handiagoan lotzen diren bi aldagaiak adina eta zenbaketako gaueko kokalekua dira. 25 urtetik beherakoen artean, hamarretik sei ez-aktiboak dira (%61,5), baina, batez ere, prestakuntza-ibilbideetan zeudelako inkesta egin zietenean. Izan ere, adin-tarte horretako taldea osatzen dutenetatik zenbatutako 305 lagunenetatik 187 lagunen kasuan, hau da, horietatik guztietatik %61,3, esaten dute egun ikasten ari direla.

Langabetuen artean, ordea, 25-34 urtekoak dira nagusi; eta, batez ere, bitarteko adin-tarteetakoak, hau da, 35-54 urtekoak. Adin horietako biztanleen artean, ia-ia erdiak langabezian daude, eta lanean ari direnen ehunekoak behera egiten du, adina handitzen den neurrian, 25-34 urtekoen %7,6tik 45-54 urtekoen %4,5era baino ez. Azkenik, 55 urtetik gorako hamar lagunetatik ia bost ez-aktiboak dira (%48,2), nahiz eta kasu honetan ez-aktibotasunaren arrazoi ohikoena pentsioduna izatea edo nolabaiteko elbarritasuna aitortua edukitzea den (%74,5, 38 lagun). Horrez gain, 55 urtetik gorakoen artean, langabetuen ehunekoa ere bada handia, adin-tarte horretako hamar lagunetatik ia-ia lauk lanik aurkitzen ez dutelako (%39,5, 45 lagun).

Lo egiteko erabilitako lekuari dagokionez, oso alde handiak daude zenbaketako gauean egonaldi ertain eta luzeko bitokietan zeudenen jardueraren egoeraren eta aurkitutako gainerako bizilagunen jardueraren egoeraren artean. horrelako bitokietan aurkitutako biztanle guztietatik, erdiak baino gehiago ez-aktiboak dira (%54,2), eta horretarako arrazoi nagusia da prestakuntzaren bat egiten ari direla edo pentsiodunak direla. Kanean edo aterpetxeetan aurkitutakoen artean, ostera, hamar lagunetatik sei daude langabezian, zehazki, %61,6 eta %60,2, hurrenez hurren.

55. taula. Bizitegi-bazterketa larrian daudenen banaketa, jarduerarekin lotuta duten egoera kontuan hartuta, zenbait aldagairen arabera. 2014.

N=1.236

		Lanean	Langabezian	Ez-aktiboak	Beste egoera batzuk	Daturik gabe	Guztira	
		%	%	%	%	%	%	Kop.
% horizontala								
Sexua	Gizonak	6,3	41,7	43,6	4,7	3,7	100,0	965
	Emakumeak	5,5	42,4	44,6	3,7	3,7	100,0	271
Nazionalitatea*	Espainiarrak	5,0	45,8	44,3	1,5	3,4	100,0	535
	Atzerritarak	7,0	38,8	43,5	6,7	4,0	100,0	701
Adina*	<25 urte	8,9	21,7	61,5	5,1	2,9	100,0	314
	25-34 urte	7,6	44,9	36,9	8,1	2,5	100,0	236
	35-44 urte	5,2	56,1	32,3	3,3	3,0	100,0	269
	45-54 urte	4,5	48,9	38,8	2,6	5,2	100,0	268
	55 urte eta gehiago	2,6	39,5	48,2	3,5	6,1	100,0	114
	Daturik gabe	2,9	45,7	45,7	0,0	5,7	100,0	35
Kokapena*	Kalea	2,9	61,6	14,5	8,7	12,3	100,0	138
	Aterpetxea	4,2	60,2	26,5	4,9	4,2	100,0	264
	Beste baliabide batzuk	7,3	32,7	54,2	3,6	2,2	100,0	834
Lurralde Historikoa*	Araba	6,7	47,8	34,8	6,2	4,5	100,0	178
	Bizkaia	5,6	37,8	49,2	3,9	3,5	100,0	648
